LISIPE

borroka armatua eta kartzelak

ZURIÑE RODRIGUEZ
OIHANA ETXEBARRIETA

1

Zuriñe Rodriguez
Oihana Etxebarrieta

Borroka armatua eta kartzelak

LISIPE

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2016 Zuriñe Rodriguez, Oihana Etxebarrieta
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

editorea: Jule Goikoetxea

Lehen edizioa paperean: 2016ko urria
Edizio hau: 2016ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Hitzaurrea

Jule Goikoetxea

Lisipe emakume gerlarien burua izan zen, gizonek gidatutako mundu ikuskera misogino baten aurka borrokatu ziren amazonen burua. Emakume marka daramagunon zokoratze amaigabea bermatu nahi duten pentsamendu, mekanismo eta egituren aurkako borroka armatua da emakumeon borroka. Armatuak doazenak, oro har, gizonak dira. Estatuak eta bankuak dituzte, su armak, arma kimikoak, enpresak, erakundeak, kartzelak eta justizia sistema. Gizonek gobernatzen dute guztia. Biolentzia, gatazka, armak, historia, kapitala eta protagonismoa. Eta gobernatu ezin dituzten emakumeak, erail egiten dituzte, kanporatu, iraindu, gutxiagotu. Baina badira armatuak doazen emakumeak ere. Patriarkatuaren aurkako borroka armatua humanitatearen borrokarik zaharrena, zailena eta interesgarriena dela erakusten diguten emakumeak.

Esaera zahar afrikar batek dio lehoiek hitz egiten ikasten ez duten arte, historia ehiztariek idazten ja-

rraituko dutela. Emakumeak mintzatzen hasten ez diren arte, alegia, estatuak eta bankuak gidatzen, su armak eta politika publikoak ekoizten, kartzelak eta justizia sistema taxutzen, gizartea eta mundua gobernatzen hasten ez diren arte, ehiztarien historia eta errealitatea bizitzen jarraituko dugu.

Hau da LISIPE bildumaren helburua: lehoiek hitza hartzea. Ahaztu gabe emakumeok ehiztariak baino bi aldiz azkarragoak izan behar dugula, ehiztariek lortzen dutenaren erdia lortzeko.

Gizarte patriarkalean gatazka politikoa gizonek elkar akabatzen dutenean gertatzen da eta bakea edo normalizazioa gizonek elkar akabatzeari uzten diotenean.

Izan ere, patriarkatuan emakumeen kontrako biolentzia da araua, eta normalizazioak zera esan nahi du: emakumearen mendekotasuna. Gizarte baketsu eta normal bat da gizarte bat non emakumezkoak otzanak eta esanekoak baitira eta gizonezkoek gobernatzen baitute. Sistema patriarkalean emakumeek eremu pribatua taxutzea da norma, *emakume normala* objektua, gorputza, naturala, partikularra, lizuna eta femeninoa da. Gerlariaren deskantsua, ama, emaztea edo puta. Eguneroko praktikak patriarkalak

diren heinean, normalizazioa eta bakea emakumearentzat, eguneroko gatazka eta biolentzia jarraituan oinarritzen dira.

Patriarkatuan, gizonen bakea emakumeon biolentzia da, halabeharrez.

Borroka armatuaren eta errepresioaren diskurtso ofizial eta publiko-publikatuetan ez da patriarkatua aipatzen, alegia, emakumeok emakume izateagatik bizi dugun gatazka politikoak ez du izenik. Ez du izanik.

LISIPE bilduma irekiko duen lehen liburu honek argi azaltzen du gizonek monopolizatutako gatazketan emakumeok parte hartzeko, ama, puta, emazte edo zaintzaile-garbitzaile izan behar dugula.

Horregatik, emakumea ez da gizonarekiko desberdina, esplotatua baizik. Gizona-emakumea diferentzia esplotazio mekanismo bat da, menderakuntzarako kategoria politikoa, beltza-zuria edo ugazaba-langilea bezalaxe. Horregatik da sistema patriarkaletan gizonen bakea emakumeen biolentzia. Sistema kapitalistan ugazabaren bakea langilearen biolentzia den bezalaxe.

Euskal Herrian estatuaren aurkako borroka armatua egitera eraman zuten arrazoiak ez dira patriarkatuaren kontrako borroka armatua egitera daramaten

arrazoiak baino legitimoagoak. Aldiz, patriarkatuaren aurkako borroka pedagogiaz eta kantuz armatu behar ei da, goxotasunez eta amatasunez, estatuaren eta kapitalismoaren aurkako borrokan ez bezala. Zuekin, jaun-andreok, Euskal Patriarkatua.

Naturaren espazioa emakumeen espazioa da eta espazio publikoa kulturaren, arrazoiaren, politikaren eta legearen espazioa: berdinen eremua, gizonen tokia. Beraz, emakumea izaki ez-politikoa da. Aluarekin jaio eta emakume marka jartzen zaionetik politika egiten duten horiek zaintzera eta produzitzera kondenatua dago.

Edo, bestela esanda, gatazka politikoa egiten duten horiek zaindu eta produzitzen ditu.

Nolatan izango da gizon publikoaren gatazka, emakume pribatuaren gatazka? Alegia, noren gatazkaz ari gara euskal gatazka politikoaz aritzean?

Ez gatazka armatuan, ez ezagutzan, ez medikuntzan, ez hedabideetan, ez justizian, ez gara subjektu nagusia inon; protagonismoa, politika, legea, eskubidea, historia, gizonena da. Kanporaketa sistematiko horri esaten zaio normaltasuna. Bake egoera.

Beraz, noren bakeaz ari gara normalizazioaz mintzatzean?

Emakumeek musu truk lan egitea, esklaboak bezala, edo gizonen lanegunaren bi halako egitea, gutxiago kobratuz, ez da gure herriaren gatazka politikoa. Horretarako, ez dago nazioarteko batzorderik, gizonen desarmatze prozesurik (alegia, botere guneetatik kanporatze prozesurik), ez dago Euskal Gobernuetan batzorde loteslerik: ez dago gatazka politikorik, normaltasuna soilik.

Horregatik “gatazka politikoa” (gerra, biolentzia politikoa), gizonek elkar akabatu eta bortxatzen dutenean gertatzen da. Eta “bakea”, gizonek haien artean akordio bat lortzen dutenean.

Ikuspuntu patriarkaletik, estatua ei da arerioa edo biolentzia gauzatzen duen erakunde multzo nagusia. Horregatik estatuaren aurka borrokatzen direnak gudariak dira. Aldiz, patriarkatuaren kontra borrokatzen garenok, putak, traidoreak, etsaiak, konbertsoak, burgesak edo espainolak gara. Ez euskal gudariak. Bada, hori bukatu da.

Esker onak

Lan prozesu honetan, modu batean edo bestean lagun askok hartu dute parte. Prozesu kolektiboa izan da eta horregatik eskerrak ematen hasi nahi genuen, neurri batean liburua haiena ere badelako.

Jule Goikoetxeari, LISIPE bilduma sortzeagatik eta bildumaren lehengo alerako gugan pentsatzeagatik. Beldurrez eta ilusioz ekin genion erronkari eta lan prozesu guztian zehar zure animoak sentitu ditugu.

Irantzu Mendiari, liburuaren epilogoa idaztea eskatu eta segituan baietza emateagatik. Zure ekarpen teorikoak oso baliagarriak dira guretzat eta gatazka armatuak ikuspegi feminista batetik begiratzen erakutsi diguzu. Ohore handia da liburua zure hitzekin bukatzea.

Nola ez gure eskerrik beroenak haien bizi esperientziak eta sentimendu intimoenak gurekin partekatu dituztenentzat: Poti, Itsaso, Aitziber, Juli, Uxue, Laida, Jone, Isa, Onintze, Paula, Ihintza, Alaitz, Irantzu, Idurre, Argiñe, Lorea, Gotzon, Koldo eta Jurdan. Asko ikasi dugu zuekin eta prozesuan handitzen lagundu

gaituzue. Ausardiaz, erresistentziaz eta plazerez josten dituzue zuen bizitzak. Memoria bizia zarete.

Euskarazko jardun eta analisi feminista egunero ahalbidetzen duzuenoi.

Eskerrik asko gure familia politikoari, lagunei, bizilagunei, militantzia kideei, maitaleei, lankideei, gure katuari, pisu-kideei... finean, alboan bizi zaren horri.

Euskal emakume borrokalari guztiei: presoei, politikariei, amei, ahizpei, neska-lagunei, zaintzaileei, itzalean egon direnei, militanteei...

Zuriñeren partez:

Potiri. Mila esker soineko femme horrekin Donostiako Antigua auzoko terraza pijo horretan ETAz, militantziaz, borroka armatuaz, sexuaz, Euskal Herriaz, feminismoaz, kartzelaz, antisorgailuez, erbesteaz eta frankismoaz zurekin solastatzeko aukera emateagatik. Bidean joan egin zara gudari bihurtu barik. Zenbat emakume joan dira berdin? Beste zenbati utziko diogu joaten?
Agur, ohore eta memoria!

Oihanaren partez:

Evari. Haize zirimola bat bezala sartu zinen gure bizitzetan, astindu gintuzun, barrez leherrarazi gaituzu, zurekin amestu, sortu, deseraiki dugu... Haize zirimolek egiten duten bezala agertu zinen eta liburuaren prozesu honetan joan egin zara. Baina zure astinduak beti jarraituko du gurekin. Eskerrik asko gure bizitzen parte izateagatik. Maite zaitut.

Aitzin oharra

Zuriñe Rodriguez
Oihana Etxebarrieta

Esku artean duzuen liburua bion artean idatzitako liburua da, baina bidelagun askorekin partekatutako eta eraikitako analisia eta ideiak daude bertan batuta. Nola ez, ideia horien gaineko erantzukizuna gurea baino ez da. Gutako bakoitzak bere harreman pertsonala zein politikoa dauka kartzelarekin eta gatazka armatuarekin. Nork berea.

Elkar ezagutu genuenean, bakoitzak aurretiko bizipenak eta analisiak zituen hasita. Oihanak, bere tesinan, euskal emakume preso politikoen edo haien bikotekidea preso duten emakumeen harreman afektibo sexualak aztertu zituen (Etxebarrieta, 2013). Zuriñe, ordea, ETAn ibilitako hainbat emakumeren esperientziak aztertzen dabil. (Rodriguez, 2012). Liburu osoan zehar 18 emakume eta 3 gizonen kontakizun eta hausnarketak bildu ditugu. Euren nortasuna anonimotasunean mantentzeko eta euren segurtasuna bermatzeko hainbat datu aipatu gabe utziko ditugu. Beste-

tik, testigantza guztiak euskara batura moldatu ditugu, modu horretan elkarrizketatuen jatorria zein den ezin baita jakin.

Gatazkak zeharkatzen gaitu, eta horrek baldintzatzen du gure mundu-ikuskera, baita gure analisia ere. Horregatik, kokagune zehatz batetik egin dugu azterketa. Neutraltasun androzentriko irreal horretatik aldentzen saiatu gara, oso argi baitugu objektibotasun analitiko horrek ez gaituela asetzen; izan ere, ez gaitu kontuan hartzen. Beraz, gure analisia subjektiboa da, baina inolaz ere ez hutsala. Pentsatua, eztabaidatua, taldean eraikia, zintzoa, kritikoa eta zorrotza da. Eta nola ez, feminista. Plazera sentitu dugu proiektu honekin, eta, aldi berean, ikasteko balio izan digu. Asko gozatu dugu lan honekin, eta gozatzen jarraituko dugu! Elkargune asko dauzkate gure analisiek, eta horietan islatutako kezka askok ere norabide berberari begiratu diote: Zer gertatzen da patriarkatuarekin gatazka armatuetan? Ahuldu egiten da? Indartu? Nola egiten diogu aurre emakume militanteok horri? Feminismoarekin sortu dugun erlazioa indartsuagoa da? Nolakoak dira gizonen erresistentzia patriarkalak eta paktu sinbolikoak? Eta, behin gatazka armatua deitu diogun

hori bukatu denean, zer? Emakumeekin, zer? Feminismoarekin, zer?

Jardun armatuaren amaieratik bost urteko ibilbidea

Niretzat ezinbestekoa da umore beltza, kartzelako umorea... Sasian sekulako beldurra genuenean, baten batek sekulako ergelkeria botatzen zuen, eta denok kristoren barreak egiten genituen. Umeak bezala. Egoerari buelta emateko balio du.

Baduzu beste teknikarik bizirik irauteko?

Bai. Gaizki konpontzen naizen jendearekin ez dut denborarik galtzen.

(Arantza Arruti, *Berria*, 2015)

Bost urte igaro dira ETAk bere jardun armatuaren amaiera iragarri zuenetik eta ordutik jokaleku politikoa aldatu egin da. Gatazka armatuaren konponbideari ekin behar diote euskal gizarteak zein instituzioek: baina ekiten ari dira/gara? Bakeaz, normalizazioaz, indarkeriaz eta abarrez hitz egiteko beharra dago eta gi-

zarte mugimenduen agendetan gai hau nola sartu den edo ez den sartu ikusteko beharra dugu. Mugimendu feministatik zein norbanako edo elkarte zehatzetatik ahaleginak egiten ari dira.

Mugimendu Feministak azken urteetan egindako ibilbidean, hainbat jo-puntu eta bateragune aipatu ditzakegu, indar ezberdinen arteko aliantzak edo gai konkretuen gaineko analisiak ekarri dituztenak. Horietako batzuk aipatzearren, Euskal Herrian Gallardonen Abortuaren erreformaren kontra sortutako mugimendu askotariko eta indartsua aipatzen hasi nahi genuke. Aspaldian ikusi ez genituen moduko mobilizazio eta sormenak, eta Estatu espainiarrean sortutako mugimenduak lege proposamena bertan behera geratzea lortu zuten. Horretaz gain, 2014ko abenduaren 13an Emakume Abertzaleen VI. Topaketa Feministak egin ziren Ondarroan. Bertan, 600 emakume bildu ginen Euskal Herrian bizitzen ari garen egoera berri honetan euskal feminismoaren estrategia zein izango den eztabaidatzeko. Euskal feministak askotarikoak garela ikusi genuen. Ez gara inolaz ere Sabino Aranak margotu zituen emakume horiek; beltzak gara, baserritarrak edo hirikoak, migratzaileak, periferikoak, lesbianak, presoak, transak eta abar. Gero Euskal Herriko

Emakumeen Mundu Martxa etorri zen. Urtebeteko lan prozesuaren ostean, 2015eko irailaren 8tik urriaren 4ra bitartean igaro zen Euskal Herritik. *Martxan jarraituko dugu denak aske izan arte* lelopean, karabana aste bakarrean pasatu zen Euskal Herriko 25 txokotatik, eta herri zein hiri bakoitzak bere egitaraua prestatu zuen karabanari harrera egiteko. Tokian tokiko autonomiaren indarra eta tokian tokiko beharren aniztasuna erakutsi zizkigun martxak, eta, bide batez, indarkeriaren inguruko hainbat eztabaida egin genituen.

Tokikoa izatetik nazionala izatera igaro da mugimendu feminista, eta azken adibidetzat 2016ko apirilaren 9an Gasteizen egin genuen manifestazio nazionala ekarri nahi dugu gogora. *11 eraso 12 erantzun, Feministok Prest!* lelopean, 12.000 lagun bildu ginen Gasteizko kaleetan, indarkeria matxistak nazka-nazka eginda gauzkala aldarrikatze eta erantzun feministaren beharra azpimarratzeko asmoz. Mugimendu feministak aspaldian antolatu duen manifestazio jendetsuena izan da.

Gatazka politiko armatuaren irakurketa feministari dagokionez, 2015eko uztailean, Udako Euskal Unibertsitatean ikastaro bat antolatu genuen (Arantza Santestebanek eta hirurok) eztabaidari kolektiboki heltze-

ko, “Euskal Herriko gatazkaren irakurketa, etorkizuneko bake feministaren bidean” izenekoa. Bi egunetan zehar, 30 lagunekin batera, berrikuspen kritiko feminista egin genien bakea eta gatazka kontzeptuei. Eztabaidarako nahia dagoela eta gai horri buruz hitz egiteko espazio seguruak sortzeko beharra dugula egiaztatu genuen hortxe. 2016ko udan “Kartzela eta euskal gatazka birpentsatzen. Subjektu feministaren norabidean” ikastaroa burutu zen ildo beretatik (Oihana Barriosek eta Oier Azkarragak antolatua). Eztabaidak aurrera jarraitu zuen Bilgune Feministak eta Emaginek “Eskola Feminista” deitu zieten jardunaldietan, 2015ean. Feminista ugari bildu ginen eztabaidatzeko gogoz. Eztabaidatzeaz gain, minak sendatzeko ere balio izan zigun gune horrek. Azkenik irailean Emagune plataforma aurkeztu zen. Emakumeen topagunea gatazkaz eta bake prozesuez genero ikuspegitik hitz egiteko.

Topaketak, ikastaroak, mundu martxa, manifestazio nazionala eta hainbat ekintza eta prozesu egin dira nonahi azken bost urte hauetan (protokoloak, gaueko manifestazioak...). Euskal Herrian feminismoak dituen gaurkotasunaren eta indarraren erakusle izan dira jarduera horiek, eta, horien arabera ukaezina da, beraz,

euskal feminismoak autoritate eta analisirako gaitasuna lortu dituela, eragile garrantzitsuenetarikoa bihurtu dela.

Hau aintzat hartuta, gatazken eta bake prozesuen inguruko analisian ikuspegi horren beharra azpimarratzen dugu. Analisirako metodologia eta subjektu izan behar dute feminismoek. Aitortu behar dugu oraindik badagoela zer egina alor honetan. Bestalde, gatazkaren konponbiderako antolatu izan diren foro ezberdinetan genero ikuspegia gehigarri bat bezala ikusi izan da kasurik onenetan. Badago zer egina baina badago hori aurrera eramateko moduko gaitasun eta indarra duenik ere. Ekin bideari!

Gatazkan bizi gara

Zuriñe Rodriguez Lara

> *Bizitzaren balioa agertzen da, soilik, baldin eta baldintza batzuk badaude, eta, horien arabera, bizitzaren galerak garrantzia badauka. Beraz, heriotza baten ondorioz negar egiten da, soilik, baldin eta bizitza horrek axola badu. Bizitza batzuek bakarrik dakarte dolua: bizi izan diren bizitzek.*
>
> (Judith Butler, 2010)

Gatazkan bizi gara. Gatazkez dugu gorpuztuta bizitza eta gatazkaren arrakaletan aurkitzen dugu geure burua, askotan, gorputz gatazkatsu disidenteok; ertzetan, bazterretan, iluntasunaren alde desiragarrian. Beste askotan, erdigunean korapilatzen gara eta bertan elkartzen, sarri, hain aurkakoa eta patriarkala den eremu horren boterea geureganatzen dugula. Badugu beste aukerarik? Badago gatazkarik gabeko lekurik?

Hobeto esanda, interesatzen ote zaigu horrelako tokirik?

Gatazkan bizirik irauten ikasi dugu; gainera, ongi mugitzen gara. Badakigu, ordea, batzuetan galdu egiten garela. Gatazkei esker hamaika erresistentzia asmatu ditugu, estrategia subertsiboz josi ditugu gorputzak eta disidentzia praktikatu dugu. Beste askotan, berriz, gatazketan arau izan gara, baita oso eroso sentitu ere normalak izanda. Gatazkek berek egin gaituzte feminista, eta bere egunerokotasunean praktikatu dugu sexua, barre algarak egin, haserretu, malkoak isuri, ikasi eta irakurri; eta, nola ez, militatu egin dugu, asko militatu dugu. Gehiegi akaso? Militantzia bera gatazkatsua baita, eta, askotan, gatazka zehatz batzuek –zeintzuek?– militatzera eraman gaituzte. Militantzia, halere, ez da gauza aseptikoa, ezta neutroa ere. Esan beharrik ez dago, militantzia harremanek osatzen dute; gizonen, emakumeen eta bestelako identitateen arteko harremanek, eta harremanetan boterea sortzen da, menderakuntza eta erresistentzia.

Jakin badakigu gatazkak asko direla, baina liburu honetan gatazka zehatz batera –eta horren ondorioz sortzen diren beste gatazka askotara ere– bilduko dugu gogoa: gatazka armatura. Badaude herriak,

gurea kasu, gatazka armatuan murgilduta bizi direnak, eta horrek eragin zuzena du jendarteetan. Gatazka armatuan dagoen herria ez da patriarkatutik at bizi, ez baitugu ezagutzen patriarkaturik gabeko herririk. Monique Wittig-ek esaten zuen bezala, “ez dago ihesbiderik, ez baitago lurralderik, ez Mississippiren beste ibaiertzik, ez eta Palestinarik edo Liberiarik ere, emakumeontzat” (1992). Beraz, emakumeok mendekoak izaten jarraitzen dugu baita gatazka armatuetan ere, sistema patriarkalak berak gatazka armatuetan bizirik irauten duelako.

Halere, Monique Wittigen hitzei jarraituz: “Emakumeok egin dezakegun gauza bakarra geure baliabideen bitartez eustea da; iheslari, esklabo iheslari edo lesbiana gisa” (1992). Izan ere, gatazka armatuetan erresistentzia prozesuak ere gertatzen dira, eta, horietan, sistema patriarkala ahultzen da; hutsuneak sortzen dira eta emakumea den hori birdefinitzeko aukera askotarikoak irekitzen dira. Aukera horiek baliatu izan dituzte historikoki feminista askok, eta subertsiorako espazio bilakatu dituzte gatazka armatuko hainbat momentu eta leku. Gatazka armatua feminismotik irakurtzea gatazka armatuaren teoria egitea da.

Horretaz gain, gainerako gizarteetan bigarren mailan edo, behintzat, ezkutuan mantentzen ditugun hainbat elementuk tarte handiagoa hartuko dute gure gizarteratze prozesuetan, eta protagonista bihurtuko dira. Horren adibide nabarmenetakoa da kartzela bera. Euskal Herrian, asko hitz egiten dugu kartzelaz. Gure intimitatean sartuta dagoen instituzioa da, eta askotan gurutzatu izan du gure gorputza, bai sinbolikoki, bai fisikoki.

Gizartean jakitun gara sistema kapitalista-heteropatriarkalaren birika garrantzitsua dela gatazka armatu-politikoen ondoriozko kartzela, eta horri begira jarri dugu fokua pertsona eta agente askok. Kartzela aztertzen hasi garenean, gizartean gertatzen diren dinamika guztien lupa dela ikusi dugu. Bertan, beharrak, diskriminazioak, botere harremanak eta gizon-emakumeen arteko ezberdintasunak biderkatu egiten dira, eta, aldi berean, esperimentaziorako gune, norbanakoaren izaera garatzeko gune eta besteekin harreman ez-normatiboak eraikitzeko espazio ere bilakatu daitekeela ikusi eta ikasi dugu.

NORI EGITEN DIO NEGAR EUSKAL HERRIAK?

Euskal Herriko gatazka politiko armatua ulertu nahi badugu, osotasunean aztertu behar dugu. Sarreran aipatu dugun bezalaxe, gure bizitzako toki, une eta praktika asko busti ditu gatazkak. Hemen, kartzelan zentratuko gara, baina ez dugu kartzela bakarrik aztertuko. Kartzela eta emakume preso politikoen bizitza eta egoera gatazka armatu-politikoaren baitan ulertzeko, ezinbestekoa da gizonen, emakumeen eta beste identitateen arteko harremanak eta kokalekuak ulertzea. Izan ere, gorputz disidenteok ondorio larriak jasaten ditugu gatazka armatuetan, gizon eta gorputz normatiboek baino askoz ere ondorio larriagoak.

Judith Butler filosofoak (2010) azaldu duen bezala, bizitza, oro har hartuta, zalantzan egoten da gatazka armatua duten eremuetan, berau galtzeko eta desagertzeko arrisku etengabea egoten baita. Beraz, galeraren continuuma sortzen da. Hau da, gorputz guztiak bilakatzen dira gudu-zelai, nonahi, eta bizitza *segurua ez* delako sentipenarekin bateratu behar izaten dira eguneroko zereginak; baita militantziako zereginak ere. Bizitzaren galeraren sentsazioarekin gauzatzen

dugu askotan militantzia, eta, galera horrekiko belduррean, tenkatu egiten dira genero harremanak.

Zaurgarritasunak inoiz baino garrantzi handiagoa bereganatzen du espazio armatuetan. Zaurgarritasuna askoz ohikoagoa izango da, eta askoz naturalizatuagoa egongo, edo, behinik behin, horren gaineko kontzientzia handiagoa izango dugu, *bake* egoeran dauden gizarteetan baino. Horregatik, gatazka armatuan murgilduta dagoen gizarteak bestelako harremana eraikiko du heriotzarekin. Heriotzaren bitartez eratuko dira harremanak, modu sinboliko zein errealean, eta praktika politiko nahiz intimoei txertatuko zaie dolua. Bizitza bat galtzen denean, edo galtzeko arriskua agertzen denean, doluak protagonismoa hartuko du, eta, doluaren bidez, negar egingo diogu bizitza horri. Alegia, gure bizitzako edozein espaziotan egongo dira dolua, mina eta negarra; hortaz, gure militantziara ere sartuko dugun errealitate eta prozesu politikoa izango da dolua. Hau da, gorputzak desagertzen direnean, doluaren beharra agertuko da, gorputz horien absentziari taldean negar egitekoa, eta negarra ekintza kolektiboaren errepertorio bat gehiago bihurtuko da.

Begoña Aretxaga antropologoak militante abertzaleen hiletak aztertu ditu, eta heriotzak Euskal Herriko gatazka armatuan dituen presentzia eta garrantzia ikusi ditu. Egiaztatu ahal izan du berebiziko garrantzia eskuratu duen egitate eta gertakari sozial bihurtu dela politikak heriotzarekin duen harremana, euskal kultura abertzaleari dagokionez (1988: 23). Gorputz zehatz eta sexualizatu batzuek pairatzen dute heriotza. Sistema kapitalista heteropatriarkaletan bizitza guztiek balio bera ez dutela irakatsi digu teoria feministak (Pérez, 2014: 111); horregatik, modu berean baiezta dezakegu heriotza guztiek ere ez dutela balio berbera izango. Hots, gatazka armatuetan galderaren fokua aldatu beharra dago, eta Euskal Herriko gatazkan heriotza guztiak berdinak al diren galdetu beharko dugu. Bestela esanda, heriotza guztiek jasoko dute dolu bera? Edozein gorputzek merezi ditu dolua eta negarra? Erantzuna argia da: ez!

Gorputz eta heriotza guztiak ez dira berdinak, ez dute dolu berbera jasoko eta ez dute garrantzi sozial eta politiko berbera izango. Alde batetik, dolua eta besteen negarra jasoko dituzten heriotzak daude, eta, bestetik, dolua egingo duten eta bizitzaren galerari negar egingo dioten gorputzak daude. Beste modu

batera esanda, lehen mailako eta bigarren mailako gorputz militanteak egongo dira, eta militantzian parte hartzeko eskubiderik edukiko ez duten beste gorputz batzuk egongo dira. Denak egongo dira sexualizatuta, eta publiko-pribatu dikotomiaren arauetan eutsiko zaio horien zatiketari. Hau da, gizonak izango dira batez ere dolua jasoko duten gorputzak, eta emakumeak gorputz horiei dolua egingo dieten subjektuak. Zergatik, ordea? Gatazka armatuan ikusgarritasun handiena izan duten gorputzen heriotzek eskuratuko dute balio handiena; hots, espazio publikoan borroka egin duten eta eztabaida politikoan parte hartu duten horien heriotzek. Ikusezinagoak izan diren gorputzen heriotzek, berriz, balio sozial txikiagoa izango dute; alegia, borroka armatuaren eta eztabaida politikoaren alderdi ezkutuan egon direnen heriotzek ez dute besteek adinako balioa erdietsiko.

Halere, nahiz eta gatazka armatuetan emakumeen heriotzek gizonen heriotzek adinako baliorik izan ez, salbuespenak daude. Euskal Herriko kasuan, hainbat gizon eta emakume hil dira errepidean sakabanaketa politikaren ondorioz, heien lagun edo senitarteko presoak bisitatzera zihoazenean. Errepideetako istripuetan galdu dute bizitza. Haien gorputzak de-

sagertu egin dira. Jada ez daude. Gatazkaren ondoriozko bizitza-galerak dira horiek.

Hamasei lagun hil dira sakabanaketaren ondorioz errepideetan, eta horietatik zazpi emakumeak izan dira, ia erdia. Heriotza horiek, modu sinbolikoan, militanteen sostengurako lan emozionalak egin dituzten gorputzak izan dira; hau da, presoak bisitatu, laztandu, animatu, maitatu edo zaindu dituzten gorputzak. Edozein jendartetan jotzen dira lan horiek ez-politikotzat, eremu pribatuan, etxean eta aisialdian egin beharrekotzat, ezkutukotzat. Militantea preso bihurtzen denean, etxea (eremu pribatu eta ezkutuko hori) partekatzeko aukera desagertzen da, eta zaintza eta sostengua ikusarazteko aukera irekitzen. Horrela, publikoak bilakatzen dira zaintza eta sostengu lanak, agerian jartzen direnak. Adibidez, herrian badakite preso jakin bat bisitatuko duzula larunbatean, eta animoak ematera eta berarekin barre edo negar egitera joango zarela. Publiko bihurtu da barneko kontu pribatutzat hartu izan dugun hori.

Errepideko istripuetan galdutako gorputzak militantea zaintzeko eta sostengatzeko pentsatutako gorputzak dira, berez, gatazka armatuetan nagusi diren logika patriarkalen arabera, negarrik jaso behar ez lu-

keten gorputzak, negar egiteko baitaude pentsatuta. Kartzelaren eta dispertsioaren ondorioz, ordea, gorputz publiko bihurtzen dira (senitarteko eta lagun presoak izango dira gorputz pribatuak, gatibu daude-eta), eta, beraz, negarra jaso dezaketen gorputz bihurtzen dira, axola duten gorputzak, eta, militanteak ez izan arren, gogoratzea merezi duten gorputzak.

Botereak sexualizatutako eta zeharkatutako bizitza dago jokoan; bizitzari egiten diogu negar, eta balio politikoa eman. Jakina, bizitzak eta bizitzak daude. Gatazkaren erdigunean bizitzaren balioa jartzeak, konfrontazio-eremu gisara, bizitzaren zaurgarritasunetik bertatik hitz egitea ahalbidetzen digu, baina baita horren ahalmen eta erresistentziatik hitz egitea ere.

Ildo horretan, adibide eredugarri gisa, *Basque lives matter! (Euskal bizitzek ere axola dute)* kanpaina ekarri nahi genuke orriotara. Horren bidez, lehenbiziko aldiz aldatu da diskurtsoaren fokua, eta militanteez mintzatu beharrean (gure iruditegiak, gehienbat, gizonezko bezala deskodetzen duen kontzeptua izaki), axola duten bizitzez hitz egiten da. Termino sinboliko edo errealetan, bizitzaren galera horrek zabaltzen dio atea negarrari, eta ez du generoak eta horrek ordena sozialean duen kokalekuak ezarriko nork egin behar

duen negar eta nori egin behar zaion negar. Kanpaina horrek marko diskurtsiboa aldatu du, euskal herritarren bizitzak jarri baitira erdigunean, eta ez euskal gizon militanteen bizitzak soilik.

*FULL-TIME*KO GIZON PUBLIKO MILITANTEA VS. *FULL-TIME*KO EMAKUME PRIBATU ZAINTZAILEA

Gatazka armatuetan, gizartea bitan egongo da banatuta; gizonak alde batean egongo dira eta emakumeak bestean. Hots, produkzioa eta erreprodukzioa edota alde publikoa eta pribatua bezalako binomioak sortuko dira. Binomioaren atal bati hegemonia, unibertsaltasuna eta menderatzaile izatea esleituko zaizkio; bestea, ordea, hegemoniaren, unibertsaltasunaren eta menderatzaile izatearen aurkakotzat hartuko da. Gizonak pertsona eta militante unibertsalak izango dira; emakumeok, ostera, gizona ez den hori guztia izango gara. Bada, gizona publikoa, produktiboa, subjektua, arrazionala eta maskulinoa izango da; emakumea, berriz, pribatua, erreproduktiboa, objektua, irrazionala eta femeninoa. Zatiketa horretan, gi-

zona da publikoa eta emakumea pribatua; gizona ikus daitekeen hori eta emakumea ezkutatu beharreko beste hori. Gizona gudaria izango da. Eta emakumea?

Atal publikoan, gainera, boterea, prestigioa eta politika egongo dira; atal pribatuan, aldiz, menderakuntza, ospe galera eta kultura. Nola ez, gizonak publikotasunean egoteko hezten dira, eta publikotasuneko ezaugarri guztiak ikasiko eta praktikatuko dituzte (produkzioa, espazioaren okupazioa, politika, diskurtsoa, arrazionaltasuna...). Emakumeok, ordea, esparru pribatuan –gizonak ez dauden espazio horretan– egoteko heziko gaituzte, eta pribatutasunaren logikak ikasiko eta praktikatuko ditugu (erreprodukzioa, diskrezioa, kultura, sentimenduak...).

Gatazka armatuetan, borroka eta eztabaida politikoa espazio publikoan egingo dira oro har, hau da, gizonen *berezko* espazio horretan; beraz, eurak izango dira protagonista hegemonikoak. Espazio publikoa, bertan gatazka armatua egoteaz gain, gizontasuna garatzeko eta maskulinitatearen erakustaldia egiteko agertoki sinboliko bihurtuko da. Gizon zehatz eta gutxi batzuek –terroristak batzuentzat, gudariak besteentzat– osatuko dute gatazka. Bestalde, beste gizon ze-

hatz batzuen aurka egingo dute borroka armatu zein politikoa.

Gainera, gatazka armatuetan, Irantzu Mendia (2014) soziologo feministak argudiatu duen bezala, generoen arteko ezberdintasunak polarizatzen eta tenkatzen dira eta, ondorioz, askoz hermetikoagoa izango da gizon-emakume kategoria politikoa. Hau da, gatazka armatuetan gizonak zein emakumeak ekoiz-ten ditugunean, *bake* egoeran dagoen jendartean baino ezaugarri gehiago esleitzen dizkiegu gorputz horiei. Gatazka armatuan genero estereotipoak eta gatazka estereotipoak uztartu beharko dira askoz ere konplexuagoa bihurtuz sexualizazio prozesua (gizon eta emakumeen fabrikazioa). Konplexutasun horren baitan, bestelako elementuak sartuko dira jokoan. Ho-riekin, bikoiztu egingo dira estereotipoak eta katego-riak, eta are hermetikoagoak eta bereiziagoak izango dira emakume izatearen eta gizon izatearen arteko desberdintasunak, balizko bake egoeran dagoen jen-dartean baino. Besteak beste, indarkeriarekin, milita-rismoarekin, errepresioarekin, klandestinitatearekin, doluarekin edota minarekin zerikusia duten kategoriak sartuko dira jokoan. Esaterako, Euskal Herriko gatazka armatuan pentsatzen dugunean, kategoria edo hitz

gako batzuk mobilizatzen ditugu: ETA, Estatu espainiarra, Guardia Zibila, biktimak, tortura. Kategoria horiek ez dira ez neutroak, ez unibertsalak; hots, sexua edukiko dute eta generoetako bati esleituko zaio kategoria bakoitza errepikatzeko erantzukizuna, estereotipoa sortuz horrengan eta modu zehatz bateko izaera edukitzera behartuz.

Oso antzeko prozesua gertatzen da kartzelarekin. Era sinbolikoan, feminitate eta maskulinitate normatiboa ezartzeko dispositiboa da. Elisabet Almedak (2002) emakume presoen kondena bikoitzaren ideiaren bitartez ikusarazi du egitate hori. Bere ustean, bi zeregin betetzen dituzte emakumeen espetxeek. Batetik, arau penala bete ez duten emakumeak zigortzen ditu eta, bestetik, kondena ezartzen die, moralaren gordetzailea den emakumearen rola hausteagatik. Kartzelan, gizarteak “emakume txartzat” hartzen dituen emakumeak egongo dira, beren generoari esleitu dizkioten arauak apurtu dituztenak, alegia. Gizonen kartzeletan, ordea, zigor kodea urratzeagatik bakarrik zigortzen dituzte.

Espetxeko espazioaren banaketan erraz ikus dezakegu esandakoa (aurrerago sakonduko dugu gai hori). Esaterako, kiroldegiak gizonen espetxeetan egoten

dira batik bat, haiek baitira kirola egiteko beharra izango duten bakarrak. Kirola emakumeen kontua ez dela esaten ari zaizkigu horren bitartez... Madrilgo Soto del Realen gizonek kaxa elektrikoak fabrikatzen dituzten bitartean, Valentziako Picassent-eko emakumeen moduluetan jostunak izaten ikasten dute.

Horregatik, bai gatazka armatuan, bai kartzelan, feminitate eta maskulinitate hegemonikoak blindatzeko saiakera egiten da. Gizonak gizonago izatera behartuta daude, maskulinoagoak eta harroagoak izatera. Aldiz, emakumeak emakumeago eta femeninoago izatera bideratuko dira. Generoen polarizazioaz gain, genero bakoitza –bi besterik ez dira egongo– monokromatikoa izango da. Gizon eta emakume izateko modu bakarra dagoela dirudi, eta oso modu zorrotzean gainera.

Blindaje horretan, gizon publikoaren eta emakume pribatuaren kategoriak askoz ere gehiago polarizatuko dira; zentzu batean, kategoria bateraezinak izanda, baina, beste zentzu batean, bateragarri bihurtuta. Hau da, emakume hermetiko hori pribatua den heinean ezin izango da, inolaz ere, publikotasunean egon (bateraezina), gizon hermetikoa egongo delako hor. Halere, atal publikoa egon dadin atal pribatuak egon

behar du; hau da, gizon publikoa existitu dadin, emakume pribatuak egon beharko du. Gainera, gatazka armatu eta politikoak ez du etenik izango, hogeita lau orduko borroka material eta sinbolikoa izango da; beraz, gizon publikoek *full-time*ko militanteak izan beharko dute, borrokarako prest beti. Horretarako, beste gorputz batzuek –*full-time*ko emakume pribatuek– egon beharko dute haiek elikatzen, janzten eta haien arropa garbitzen; une oro eztabaidarako eta borrokarako prestatzen, alegia. Horregatik, gizonak maitatuta, laztanduta eta bihotz arinduta ailegatzen dira, gehienetan, espazio publiko militantera.

Alabaina, gatazka armatuetan inoiz baino bateragarriagoak izaten dira gizon-emakume kategoriak, inoiz baino beharrezkoagoa baita euren artean elkartzea. Araubide heterosexualaren indartze prozesua gatazka armatuan murgildutako jendarteetan ere gertatuko da. Hau da, batetik, gizon eta emakume ugari fabrikatuko ditu eta, bestetik, sailean ekoitziko ditu heterosexualak.

Gainera, gorputz disidenteak ez dira kontuan hartuko, ez dira iruditerietan egongo eta ez da horientzako lekurik izango. Seguru asko, ez gara gai izango gure imajinario kolektibotik aniztasun funtzionala

duen edota homosexuala den gizon militante baten irudia eta izena berreskuratzeko. Gaitasun are txikiagoa izango dugu saiakera hori bera halaxe diagnostikatutako emakumearen gorputzarekin eta izenarekin egiten badugu. Ia ezinezkoa gertatuko zaigu. Gorputz intsumisoak eta arauari ihes egiten dioten identitateak ikusezin bihurtzeko mekanismo izatetik harago doa ezintasun hori. Erantsitako mekanismoa da; bai, behintzat, gatazka publiko armatuko parte hartze politikoari dagokionez, xedetzat baitu gorputz horiek borroka armatu politikotik kanporatzea. Feminitate eta maskulinitate hegemonikoa zorrotz blindatuko direla ziurtatzeko egiten da kanporatze hori, eta, nola ez, erregimen heterosexuala egonkortuko dela bermatzeko; izan ere, identitate gogaikarri horiek zalantzan jartzen dute gorputzek gatazka armatuan duten antolaketa. Dena dela, gorputz eta identitate deserosoak egon bagaude, eta iraultzeko nahiz irauteko erresistentziak garatzen ditugu.

Emakume askok subertsiorako espazio bilakatu izan dituzte euren espetxealdia eta gatazka armatuan izan duten parte hartze politikoa; maitasun harreman edo sexu praktika berri eta eraldatzaileak bizitzeko gune bihurtuz horiek, batetik, edota kontzientzia kriti-

koa eta artikulazio feminista garatzeko, bestetik. Zentzu horretan, emakume askori kartzelak ahalbidetu die lesbianismoarekiko lehenengo hartu-emana izatea. Frankismo garaian eta frankismo osteko urteetan, kartzelan egondako hainbat emakume preso politikoren solasaldietan, kartzela harreman lesbikoak ezagutzeko lehenengo gune bihurtu zela ikus daiteke, ordura arte ez baitzuten bi emakumeren arteko maitasuna edo desio praktika ikusteko aukerarik izan.

Gizarte frankista eta postfrankista kode sexual oso kontserbadore eta misoginoan zegoen oinarrituta (Nash, 2013); beraz, oso zaila zen bi lesbiana kalean musuka ikustea. Imajinario kolektiboan lesbianak ez ziren existitzen. Heterosexualitatearen diktadura erabateko araua zen. Kartzelak praktika hori ikustea ahalbidetzen zuen, eta, askorentzat, euren iruditerian praktika lesbikoak sartzeko eta naturalizatzeko estrategia izan zen kartzela bera. Horixe izan zen Yeserias kartzelan preso egon zen Jone emakume militantearen kasua.

> *Egon naiz kartzelan eta emakume asko enrollatu dira nire aurrean [...] Oroitzen naiz Don Josez. Maria Jose deitzen zen, baina gero jakin nuen emakumea zela. Eta esan zidan: "joder,*

chorba, que polvo tienes". Nirekin ligatu nahi zuen. Nik banituen lagunak lesbianak zirenak, baina horrela esanda inork ez zidan hitz egin. Don Jose hori zen la jefa del cotarro*. Bazuen putiklub bat kartzela barruan. Horrek eramaten zituen galtzontziloak eta dena.* (JONE)

Iruditegi lesbikoa garatzeko laborategia ez ezik, norbanakoaren desio lesbikoa garatzeko gune subertsibo ere bihurtu zuten batzuek kartzela. Ezarritako heterosexualitatea apurtzea posible eta desiragarria zela ikusi zuten, eta lesbianismoa praktikatzera igaro ziren.

Harremana zegoen Komando Autonomoetako bi neskaren artean, eta lasaitasuna, naturaltasuna eta elkar ukitzeko jarrera zegoen. Une hartan, harreman lesbikoek beldurra ematen ziguten oraindik, miatu gabeko lurraldea ziren. Orduan, emakume batzuenganako erakarpena sentitzen hasi nintzen; bi emakumerekin eduki nituen harreman lesbikoak; horietako bat kartzelan ezagutu nuen. (LAIDA)

Kartzelaz gain, militantzian ere erresistentziarako arrakalak topatu zituzten emakume militante askok.

Frankismo garaian, Iparraldean erbesteratuta egotea askatasun gune bihurtu zuten emakume militante feminista askok. Etxetik urrun eta itzultzeko aukerarik gabe egoteagatik gizon eta emakume askok erbestean jasaten duten min sentipenaren aurrean, emakume batzuen kasuan, min hori urtu egiten da eta askatasun zein plazer sentimenduarekin nahasten, hain zuzen ere, familiarengandik urrun egoteagatik. Gurasoen etxetik ateratzeko aukera dakar erbesteak, eta askatasun momentutzat hartu zuten askok, gurasoen etxea aurkako eremu errepresiboa baitzen askorentzat.

Jule Goikoetxea filosofoak azaltzen duen bezala, familia, gure gizarteko oinarrizko unitatea izateaz gain, esplotaziorako gune pribilegiatua ere bada, eta indarkeriazko mekanismo asko ezartzen dira instituzio horri eusteko: baldintzarik gabeko zaintza, amatasunaren gorespena, emakumeek etxean egiten duten doako lana eta abar (2015). Gainera, frankismoan familia heterosexual, katoliko eta erreproduktiboan sostengatzen zen erregimeneko diskurtso ofizialista. Horregatik, familia kartzela bihurtzen zen/da emakume batzuentzat; urrun eduki beharreko gune esplotatzailea. Marcela Lagarde mexikarrak emakumeen gatibu-

tasunaz hitz egitea proposatu digu. Sistema heteropatriarkalak bizi-kartzelak sortzen ditu emakumeen egunerokotasunean, ideia menderatzailean horrela hartzen ez direnak, bizi eta babes eremutzat jotzen baitira; baina, funtsean, emakumeen bizitza baldintzatzen duten kartzelek bezala funtzionatzen dute, emakumeen autonomia kontrolatzen baitute eta euren askatasuna kentzen (2011: 640). Kartzela horietako bat, besteak beste, familia da. Horregatik, erbestera joatea guztiz askatzailea eta subertsiboa izan zen emakume militante batzuentzat.

ETA politiko-militarrean aktiboki parte hartu zuten Poti eta Aitziberren kasua da horixe. Potiren kasuan, Iparraldeak askatasuna, autonomia eta zoriona ekarri zizkion. Etxe propioa segurtatu zuen, eta horrela egiturazko indarkeria horretatik urrundu zen. Horretarako, lana eta autonomia ekonomikoa eskuratzen saiatu zen, eta, horrela, familia tradizionalaren ideia (gizona / emakumea / seme-alabak) indargabetu zuen erbestean. Aitziberren kasuan, gainera, argi ikus daiteke gizonek, erbestean ere, beren pribilegio patriarkalari heltzen segitzen dutela, berdinak izan behar luketen horiek –emakume borrokalariak– euren esklabo bihurtu nahi izaten baitituzte. Horregatik, emakumeentzat

ez da familia biologikoa izango indarkeriaren instituzio bakarra, euren familia politiko eta militanteak ere horrelaxe jarduten du-eta. Familia politikoen kartzelaz eta gizon kartzelazainen erantzukizunaz hitz egin behar genuke. Gizon militante publiko ezkertiar independentista horiek, askotan, emakumeen independentzia oztopatzen zuten; haientzat askoz funtzionalagoa zelako emakume pribatu bat jabetzapean edukitzea, eurek, bitartean, borroka publiko eta armatua egin zezaten.

> *Erbestean, batez ere, gizonekin bizi behar izaten zenuen. Une batean, nik ez nuen gizonekin bizi nahi jada, ez nuen nahi, ikaragarria zelako. Ezin hobeto bizi ziren eta guztiaz aprobetxatzen saiatzen ziren, ezta? Orduan, ez nituen onartzen. Beste neska batekin bizitzea lortu nuen momentu batean, eta pisu bat lortu genuen, bi neska geunden pisu bat.* (AITZIBER)

Virginia Woolf-en norberaren gelari buruzko ideiak duen gaurkotasuna ikus dezakegu emakume horien testigantzetan. Emakumeek, aske izateko, gela bat –Potiren kasuan pisu bat eta Aitziberrenean emakumeekin bizitzea– eta autonomia ekonomikoa behar di-

tuztela aldarrikatzen zuen Woolfek (1929; 2014an euskaratua). Gutxieneko horiekin, emakumeak bere ahalduntze prozesua hasteko eta garatzeko oinarriak jar ditzake. Egia da militantzia mistoa oztopoz josita dagoela emakumeentzat; baina, agentzian jartzen badugu arreta, militantzia norberaren gela eskuratzeko leku aproposa izan daiteke, eta, behin gela izanda, plazerak esperimentatzeko tarteak irekitzen dira nonahi.

> *Argi nuen bakarrik bizi nahi nuela, eta ez erakundeko gizonekin. Bada, lana topatu nuen eta etxe bat alokatu. Hura nire etxea zen, kontratua nire izenean zegoen, eta telefonoa nuen! Antisorgailuak aurkitu nituen, eta inolako arazorik gabe erosten nituen. Frantziara joatea askapena zen. Aire freskoa zen farmaziara pilulak edo kondoiak eskatzera joan ahal izatea, eta gero etxera igotzea gogoak emandako horrekin.* (Poti)

Familia politiko zein biologikoen espetxeaz gain, herria ere kaiola handia izan da emakume militante abertzale eta feminista batzuentzat. Herriak emakumeei eskaintzen zizkien/dizkien aukerak eta etorkizu-

na guztiz errepresiboak ziren/dira, feminitate normatiboaren erreprodukzio fidela eta bakarra.

> *Katxondeoz beti esaten nuen* que yo me metí terrorista para no limpiar la casa*, herriko etxekoandreek ikara ematen zidaten, igandeetan plazan dantzan, gero, bi ume buru handi xamarrak zaindu, gero gizona partida jokatzen eta futbola irratian. Eta zuk guapa-guapa egon behar duzu,* con faldas de tubo. (ITSASO)

Erbestea ahalduntzeko eta emakumeen arteko sareak josteko baliatu izan zuten emakume askok; eta nazioarteko militantzian aritu zirenek kontzientzia feminista artikulatzeko erabili zuten. 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan hainbat militante bidali zituzten Europako beste herrialde batzuetara, eta hango mugimendu feministak ezagutzeko aprobetxatu zuten. Emakume militante askok baliatu zuten Europako egonaldia, mugimendu feminista hasi berri baitzegoen, feminismoaz blaitzeko eta mugimendu feminista artikulatzeko. Garai hura hasi arte, militantzia gizonez inguratuta egitera ikusi zuten behartuta beraien burua; une hartan, ordea, beste emakume batzuen erreferentziak aurkitzeko aukera ireki zitzaien. Emakumetasu-

naren aniztasunaz, borrokaren alde alaitsuaz, emakumeen arteko amodioaz eta sexu aukerez ikasi eta esperimentatu zuten askok, eta horiekin estrategia berriak ikasi zituzten, borroka hegemonikoaren gogortasuna baretzeko lagungarri egin zitzaizkienak.

> *Parisen egon nintzen. Han, feminismoa eta borroka jaia ziren, emakume lesbiana pila bat zegoen, eta guretzat, beste zerbait zen, gure erakundearen barruan ez zegoen bat ere ez... Baina Parisen ezberdina zen, oso ikusgarria zen. Feminismoaren eferbeszentzia zoragarria zegoen.* (ISA)

Feminismoa ezagutzea emakume batzuek erabili zuten estrategia izateaz gain, feminismoa beren bizitzaren salbagerriko bihurtu zela aldarrikatzen dute. Behin ezagututa, bizitza eta egunerokotasuna aldatzen direla sentitu dute.

> *Belgikara joan ginen. Militantzia feminista edukitzen hasi nintzen, autodefentsa taldeetan, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei lagunduz, abortuarekin lagunduz... Emakume batek honakoa esan zidan: "ez duzu ezer egiterik, inoiz ez dizkigute emango espazioak, hortik*

guzti horretatik atera behar da eta mugimendu feministara sartu", eta ikaragarria iruditu zitzaidan. Une hartan ez nion kasurik egin, baina handik bi urtera bai. [...]. Feminismoak salbatu nau hortik guztitik. Bizitzan gertatu zaidan guztiarekin bizirik atera banaiz, oso gauza gogorrak izan baitira, feminismoari esker izan da. Indarra eman dit, ideologia eman dit, neure burua babesteko armak eman dizkit; armak tresna zentzuan... Feminismorik gabe ezin dezaket nire bizitza ulertu. (UXUE)

Gatazka armatua da gure gatazka bakarra?

Plazerez hil nahi duzu
odolez zikindu gabe.
(Erractus: *Tractatus,*
“Gure artean” poema)

Euskal Herriko gatazka armatuan, kartzela hegemonikoaz aparte, familia eta herria ere emakumeen espetxea izan dira (kuadrillaz ere asko hitz egin genezake). Argi dugu patriarkatua emakumeen kaiola dela. Orduan, noiz bizi gara bakean? Ba al dago bakerik? Zeri buruz ari gara bakeaz hitz egiten dugunean? Gatazkaren amaiera eta konponbidea dira bakea? Noren bakea? Noren indarkeria? Gatazka armatuetan, bakea *vs.* indarkeria binomioa indartzen eta polarizatzen da. Edozein gizartetan dago bakea *vs.* indarkeria binomioa, baina gatazka armatuetan indartu egiten da, eta protagonismo handiagoa hartzen du. Gatazka armatua bizi duen herriak indarkeria politizatzen du, eta, aldi berean, indarkeriaren normalizaziorako dispo-

sitiboak sortzen ditu. Hori bai, gatazka armatuarekin zuzeneko lotura duten indarkeria motak politizatuko ditu, baina egiturazkoak diren beste indarkeria guztiak ez ditu nahitaez politizatuko edota eztabaida politikoan txertatuko.

Jule Goikoetxeak arrisku handia ikusten du normalizazio prozesu horien atzean. Prozesu horien bitartez, indarkeria batzuk (hegemonikoak) normalizatu egiten dira, eta beste batzuk (subalternotasunetik egiten direnak) neutralizatu (2015). Neutralizazio horren ondorioz, subalternotzat hartu izan ditugu beste biolentzia guztiak. Horregatik, gizarte gatazkatsu heteropatriarkalak subalternotasunean kokatuko du emakumeok pairatzen dugun indarkeria. Halere, aipatu beharra dago itxurazko bake egoeran dauden gizarteetan ere prozesu berbera gertatzen dela. Horietan ere, ertzetan kokatzen ditugu emakumeok pairatzen ditugun indarkeriak. Bien arteko ezberdintasuna zera da, lehenengoan indarkeria patriarkala eztabaidaren erdigunera eta agenda politiko-sozialera ekartzeko aukera zabaltzen dela, egunerokotasunean txertatuta baitago indarkeria bera, eta, bigarrenean, gizarte horietan bake ameskeria egoera bizi dutenez, zailagoa dela egunerokotasunean indarkeriari buruz hitz egitea, eta,

hortaz, zailagoa definizio sozial kritikoa sortzea, indarkeriaz ari garenean zeri buruz ari garen zehazte aldera.

Modu horretara, Euskal Herrian, bazterretan kokatuko da, nahita, gatazka patriarkala, hau da, gizonek emakumeen gainean ezarritako menderakuntzaren eta kontrolaren ondorioz sortutako gatazka, eta albokotzat joko da, ez zeharkakotzat, beste modu batean adierazteko baldintzak egon arren. Bigarren mailakotzat jotzen dugunez emakumeok pairatzen dugun indarkeriaren egitura, gure bizitzek balio txikiagoa dute; gure gorputzak garrantzirik gabeko gorputzak dira, eta negarra merezi ez duten horiek izango dira gure heriotzak. Indarkeria matxistaren inguruko eztabaidak agenda sozialera sartzeko baldintza objektiboak egon badauden arren, eztabaida ez da zeharka sartzen, bigarren mailako gaitzat hartzen dugu-eta. Omenaldi eta memoriarik ez guretzat.

Kontzeptualizazio horren ondorioz, ikusezin bihurtuko da patriarkatutik eratorritako indarkeria, komunitatearentzat gorabeheratsuagoak diren beste indarkeria batzuen premiaren eta garrantziaren aurrean. Eta, horrekin, gatazka armatua beste gatazkarik ez dagoelako sentimendu kolektiboa eratzen da (Rodriguez,

2015). Gatazka armatu hori gizonen gatazka izango da, eta indarkeria horiek hegemonikoak eta ordena sozial bihurtuko dira, gizon batzuek beste gizon batzuen aurka sortutako indarkeriak direlako. Horregatik bihurtzen dira, hain zuzen ere, hain garrantzitsuak. Haiek hiltzen direnez, alarma pizten da; gu hiltzen garenean, ordea, egunak normaltasun osoz egiten du aurrera. Emakumeen aurkako indarkeria ez da izango benetako indarkeria, ez politikoa, ezta garrantzitsuena ere. *Euskal Gatazka* izendapenaren bitartez ikus dezakegu aipatu ideia. Txikitatik, gatazka armatua den horrekin identifikatu izan dugu “gatazka”; gatazka unibertsal bakarra egongo balitz bezala, zatiari osotasun izaera emanez, eta gure narratibetan ere ideia hori barneratu dugu.

Ez dago gatazka bakar bat, gatazka hegemoniko bat dago (armatua). Horregatik, subalternotasunean irudikatu ditugun indarkeriak eta gatazkak erdigunera ekartzeko eta horiek gatazka hegemonikoarekin lotzeko erantzukizuna dauka feminismoak. Gatazka armatuan egon diren identitate androzentriko-hegemonikoak identifikatu behar dira, eta, horiek gatazka deitu diogun horretan bete duten tokia zein izan den salatu behar da. Beraz, arazo gisara erakutsi behar dugu in-

darkeriaren/indarkerien definizioa, eta indarkeriaren definizio kolektibo feminista sortu behar dugu. Indarkeriaren monopolioa ez delako estatua *vs.* herria eztabaida bakarrik, hau da, agente eta polo politiko gehiago daude monopolio horretan: gizona *vs.* emakumea, heterosexualitatea *vs.* lesbianismoa, eta abar.

Halere, aitortu beharra dago feministok ez garela gaur hasi indarkeria problematizatzen eta definizioaren konplexutasuna agerian jartzen, hamarkadak baitaramatzagu horren gainean hitz egiten eta eztabaidatzen. Asko landu dugu gai hori, eta kolektibo feminista eta transfeminista batzuek –Medeakek, Bilgune Feministak, Feministaldek edota Farrukasek, adibidez– eskarmentu handia dute indarkeriaren definizioan, eta ekarpen diskurtsibo eta praktiko oso baliagarriak utzi dizkigute. Bada, egun dugun erronka handienetakoa da, euren ekarpenetik abiatuta, indarkeria patriarkalak gatazka politiko armatuarekin duen zerikusia zein den jakitea, bai eta horien arteko harremana zein den ezagutzea ere. Horretarako, galdera batzuei erantzuten hasi behar dugu: Euskal Herriko gatazka armatuan emakume identitatea indartu ala lausotu egiten da? Gatazka armatuak heterosexualitatearen beharra al du? Zein imajinario kolektibo mobilizatzen ditu Euskal

Herriak indarkeria hitza esaten dugunean? Zein behar material, emozional, pertsonal eta sinboliko behar izan ditu gatazka armatuak? Zein izan da zaintzaren eta borrokaren espazioa? Nork zaindu du nor gure gatazka armatu honetan? Batzuek jadanik lehengo orrietan erantzun ditugu.

EMAKUMEA DA BAKEA, GIZONA BIOLENTZIA

Galdera horiek erantzuten gabiltzan bitartean, bakearen problematizazioan ere sakondu beharra dugu. Bakea *vs.* indarkeria binomioan, bakea definitzeko erabiltzen diren ezaugarri guztiak emakumeei esleitzeko joera izaten dugu; indarkeriari egozten zaizkionak, aldiz, gizonei atxikitzen dizkiegu. Erabaki politiko kontziente eta patriarkala da hori. Emakumeok bizitza emateko subjektutzat eraiki behar izan dugu gure identitatea. Horrekin batera, edo ondorioz, bizitza kentzearen aurkakoak garelako ideia biologizista sortu da, eta horrek eusten dio, hain justu, aipatutako dualtasun patriarkalari. Horrek, ordea, ez du inolako zerikusirik biologiarekin, generoak definitzeko eta erabiltze-

ko orduan baliatzen ditugun kategoria patriarkalekin baitu lotura. Horrela, emakumea bakea da, eta gizona indarkeria:

Bakea	**Indarkeria**
Emakumea	Gizona
Baketsuak	Bortitzak
Zaintzaileak	Gudariak
Ahulezia	Indarra
Koldarkeria	Ausardia
Kontziliazioa	Borroka
Amodioa	Odolzaletasuna
Hitzak	Armak
Ikusezinak (pribatua)	Heroiak (publikoa)

Modu horretara, emakumeak baketsuagoak garelako falazian eta ideologian heziko gara, bakearen eta bizitzaren alde egingo dugulako sinesmena elikatuko dugu gizarteratze prozesuan. Jule Goikoetxeak (2015) binomio patriarkal hori ulertzeko teoria oso argia azaldu du. Bere ustean, patriarkatutik pentsatu izan dira bakea eta indarkeria, eta, hortaz, ideologia androzentrikotik definitu ditugun kontzeptuak dira horiek. Gatazka eta indarkeria ezarekin bizi den komunitatetzat

jo izan dugu sistema patriarkalean bizi den jendartea. Gizarte baketsua, beraz, gizarte normala da, eta gatazkatsua anormala. Feminismoak sistema patriarkala indarkeriazko sistema gisa definitzen duen heinean, bakea utopia androzentrikoa besterik ez da izango, existitzen ez den hori, edo, behintzat, emakumeentzat ez dagoen hori. Zergatik? Sistema patriarkalean emakumeen kontrako indarkeria araua delako, hau da, egoera normala, egoera baketsua. Indarkeria pairatzea eta bakean bizitzea ez da inolaz ere bateraezina izango patriarkatuan. Beraz, gatazka armatuaren bukaerak edo Euskal Herriko bakeak eta normalizazioak ez dute, inondik inora ere, emakumeen bakea ekarriko. Hiltzen jarraituko dugu emakume hutsa izateagatik, indarkeria politikoa, alegia, patriarkala jasaten jarraituko dugulako.

Unibertsitateetako fakultateetan gatazka armatuaren inguruan eta gatazken irtenbideen inguruan ematen den teoria gehiena, baita bake prozesuak negoziatzeko mahaien planteamenduaren eta diseinuaren zati handiena ere, adibide ona dira ideologia patriarkal hori ikusteko, zeinetan emakumeak, izatez, subjektu/objektu baketsutzat bakarrik jotzen diren. Zentzu horretan, gatazka armatuari buruzko teoriak

oso gutxitan jarriko du arreta emakumeon egoeren eta subjektibotasunaren gainean, eta, egiten duenean, gainera, bi kategoriatan soilik ipiniko du fokua. Batetik, gatazkaren zeharkako zein zuzeneko biktima bezala irudikatuko ditu emakumeak, agentziarik gabeko subjektuak izango bagina bezala. Bestetik, ordea, agentzia emango die, baina emakumeek bakearen alde egindako lanari bakarrik erreparatuz.

Hots, bakearen aldeko emakumeen elkarteen lana goratzeari begirakoak izango dira, eta gatazkako gizon protagonisten ama egoerara mugatuko du emakume horien aktibismoa (Maiatzeko Plazako Amak, esaterako). Beraz, badirudi, gatazka armatuetan, agentziarik gabeko biktimak izatea edo bakearen aldeko kolektiboetan militatzea dela emakumeon patua.

Halere, bakearen aldeko aktibismoa egiten duten emakume-taldeen ausardia eta erresistentzia azpimarratu nahi ditugu hemen. Maiatzeko Plazako Amek edota Kolonbiako Emakumeen Bide Bakegileko emakumeek espazio publikoa okupatu dute, eurentzat gorde gabeko espazio hura. Baimenik eta barkamenik gabe eskatu dituzte justizia, memoria eta konponketa. Isiltasuna hautsi dute politika eginez, eta euren arteko sareak josi dituzte; beraz, subertsibo eta erresistente-

tzat jo behar dugu haien lana, eta merezi duten izena aitortu.

Gure herrian, ildo horretan, Ahotsak izeneko ekimena jarri zen abian. Emakume politikari batzuek eta gizarteko eragile sozialetan parte hartzen zuten hainbat emakumek bultzatutako plataforma izan zen. ETAk 2006an su-eten iraunkorra iragarri zuenean sortu zen, eta plataformaren helburua indarkeriarekin behin betiko bukatzea eta elkarbizitzarako eragileen arteko elkarrizketak sustatzea izan zen. Abenduaren 2an, 5.000 emakumek sinatutako dokumentu batean aurkeztu zuten beren konpromisoa. Lehen aldiz egin zuten alderdi eta eragile sozialetako hainbat emakumek, elkarrekin eta beraien kabuz, konponbidearen aldeko aldarri publikoa, inflexio-puntu bat markatuz. ETAk Madrilgo aireportuan burututako atentatuaren ondorioz bukatu zen ekimena (2006-12-30). Dena dela, aipatuarekin antzekotasunak dituen gune berri bat jarri da martxan. 2016ko irailean aurkeztu dute Emagune izeneko plataforma. Izenak dioen bezalaxe, emakumeen gunea da, eta bakearen eraikuntzan eragitea, beste emakume batzuekin gatazkaz solastatzeko eztabaida-guneak eraikitzea eta konponbidean

emakumeen memorien eta ahotsen presentzia egotea bermatzea ditu helburu.

Baina bake prozesuetan emakumeak ez gara soilik biktima edo subjektu/objektu baketsu gisa agertuko. Gizonek, beren desio sexual pornografikorako objektu erakargarri bihurtuko gaitu. Emakumeen gorputzek gizonen kanpai-jotzerako prest egon behar dute bake garaian ere. Hortaz, emakumeok gatazkan izan dugun paperarekin kitzikatuko dira gizonak.

Horren adibide iraingarrienetariko bat *Soho* aldizkari kolonbiarrean (*Interviú* espainiarraren antzerakoa) argitaratutako erreportaje sakona da. Titularra

argigarria da: “Bakea Sohoren ustez” eta lehen orrialdean bi emakume agertzen dira biluzik, besarkatuta. Bata, Ana Pacheco da (FARCeko kide ohia), beste, Isabel Londoño (detektibe ohia). Horrela ulertzen du *Soho* aldizkariak Kolonbiako bake eraikuntza, horrela, alegia, ulertuko dute bakea *Soho*ko irakurleek ere (gizonak gehienbat). Gatazka armatuan aktiboki parte hartu duten emakumeei bake aroan gordeko dioten espazio bakarra gizon kolonbiar heterosexual boteretsuek euren desio sexuala garatzeko izango da.

Negoziazio mahaietan, ordea, eurak, gizonak, egongo dira batez ere. Bakea sortzen, eraikitzen eta ezartzen diren guneetan emakumeen presentzia ez da ongi etorria. FARCek eta Kolonbiar gobernuak La Habanako bake elkarrizketara bidali zituzten talde negoziatzaileetan emakume bakarra zegoen –FARCen partez–. Tanja Nijmeijer du izena, europarra da, zuria eta biziki ederra. FARCek zergatik hautatu du bera eta ez beste emakume bat? Negoziazio lantaldeko beste kideak gizonak dira, inolaz ere edertasun normatiboko kanona betetzen ez dutenak gainera eta guztiak kolonbiarrak. Ez du FARCek Tanja Nijmeijer erabiltzen nazioarteko agenteen interesa erakartzeko, hau da, objektu gisa? Tanja Nijmeijer FARCen badu jardunbide

militante luzea, eta, jakina, guk horri jarri nahi diogu arreta. Ez dugu zalantzarik bake negoziazioetan egoteko aproposa denik, baina zalantzak ditugu bakea egiten ari diren gizon heterosexual boteretsuek berdina pentsatzen ote duten.

Euskal Gatazka zentzu honetan ez da salbuespena izan eta emakume militanteen inguruan hainbat imajinario eraiki dira. Baketsuak ez diren horiek, hipersexualizatuak izan dira batzuetan. Komandoko putaren imajinarioa elikatuz, adibidez. Hau ez da soilik etsaien gizonek garatutako desio misoginoa izan, euskal gizon heterosexual publikoek ere birsortu dute. Tanja Nijmeijer edota Ana Pachecorekin egindakoa egin dute hemen Idoia Lopez Riaño ETAko kidearekin, esaterako. *La Tigresa* izengoitia ipini zioten Espainiako komunikabide kontserbadoreek eta euskal hedabide batzuek inongo autokritikarik gabe ontzat hartuz hainbat albistetan errepikatu. Haren bizitza, edertasuna, sexua eta amodioa herriko kontu bilakatu dira; bere militantziaz, ordea, ez da hainbeste hitz egin.

Desio misogino heterosexuala garatzeko, bai; baina bakea negoziatzeko ez, eta boteregunetik at egon behar gara. Euskal Herria, oraingoan ere, ez da salbuespena. Adibide xume bi ekarriko ditugu hona:

2016 Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako Udako Ikastaroen irekiera egiteko Euskal Herriko Bakea eta Bizikidetza hautatu zuten gai gisa. Hizlari gonbidatua Mariano Aguirre izan zen, Norwegian Peacebuilding Resource Centreko zuzendaria, gizona, eta mahai inguruan beste zazpi lagun. Horietako bi soilik ziren emakumeak eta kargu politikoak dituztenak, eta ez bakean adituak direnak. Beste adibidea, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearena, egun bost kidek osatzen dutena; horietako bakarra da emakumea (Fleur Ravensbergen). Ez da kasualitatea, inertzia patriarkala baizik.

Orain arte azaldu dugun bezala, emakumeek bakearekiko harreman naturalizatua dutelako ideian oinarritzen dira diskurtso esentzialista eta patriarkalak, eta horrek badu eraginik ere bake prozesuen agendetan. Emakumeak biktima bezala irudikatzen ditugunean, indarkeriaren alderdi ikusgarrienaz eta gordinenaz hitz egingo da batik bat; normalean, sexu indarkeriaz baino ez (bortxaketa, tortura...). Hortaz, indarkeria mota horien ondorioak konpontzeko neurriak bakarrik adosteko arriskua dago. Neurri horiek adosten direnean, gainera, ahaztuta eta konpondu gabe utziko dira gainerako indarkeria guztiak, egongo ez balira be-

zala (talde batean militatzeko betoa ezartzen zaienean emakumeei emakume izate hutsagatik, adibidez,).

Balkanetako gatazkak sakon aztertu dituen Dubravka Zarkov (2008) feministaren ustez, analisia eta konponketa sexu indarkeriaren ondorioetara biltzeak emakumeen agentziaren fokua galtzera eraman gaitzake, haien ekarpenak ikusezin bihurtuz, eta, are, horiek biktimizatuz ere. Bake negoziazioetan erdigunera ekartzen da emakumeek gatazkan jasandako indarkeria konpontzeko beharra, eta, aldi berean, ahaztu egiten da emakumeek bai gatazkan, bai gatazka amaitzeko borrokan egindako parte hartzeari eta inplikazio politikoari balioa ematea.

Balio eta errekonozimenduez aparte emakumeen presentzia publikoa eta parte hartze politikoak bermatuta egon behar dute *bakea* negoziatzen den edozein gunetan. Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak 2000. urtean 1325 Ebazpena onartu zuen. Horren arabera, gatazka armatuaren agente guztiei emakumeen eskubideak errespetatzea eskatzen die, batetik, eta bake negoziazioetan zein gatazka ostearen berreraiketan emakumeen parte hartze aktiboa bermatzea, bestetik. Errealitateak, ordea, ez digu hori

erakusten. Emakumeak daude, bai, baina ez dira gehiengoa. Horietako zenbatek bermatzen duten ikuspuntu feminista, nork daki. Esaterako, 2011ko urriaren 17an Donostian burututako Aieteko Bake Konferentzian 54 lagun gonbidatu zituzten. Euskal Herriko hainbat eragile ordezkatuta zeuden bertan eta mugimendu feminista ez zen gonbidatuta izan. 54 gonbidatu horietatik soilik 13 ziren emakumeak, hau da, % 24 besterik ez·

Indarkeria matxista: gerrararen ezinbesteko arma

Gure gorputzak ez dira gudu-zelaiak.
(Lelo feminista)

Gatazka armatuetan indarkeria zuzena dago eta gizon errudunei izen-abizenak jartzea eta erantzukizunak eskatzea garrantzitsua da. Emakumeon gorputzak gudu-zelai bihurtzen dira, eta beste bandoko gizonei prestigioa kentzeko erabili izan da emakumeon gorputza, sistematikoki. Guda eta gatazka guztietan bortxatzen eta erailtzen dira “etsaien emakumeak”. Kasurik ikusgarriena eta munduko alarmak piztu zituena Bosnia-Herzegovinakoa da. Gudak iraun zuen bitartean, 14.000-50.000 emakume bortxatu zituzten (Irin, 2005: 107). Euskal Herria, berriz ere, ez da salbuespena. Gogora ekarri behar ditugu Ana Tere Barrueta eta Maria Jose Bravoren kasuak. Biak bortxatu, torturatu eta hil zituzten GAE erakunde parapolizialeko gizonek, 1980ko hamarkada hasieran (Casanova, 2007: 255).

Gainera, Estatu espainiarreko polizia-etxeetan isolatu dituzten zenbait emakume militantek publikoki salatu dute bortxatu eta torturatu egin dituztela. Ez dira, inolaz ere, kasu bakanak; konponketa eta aitortza behar dituzten kasuak dira. Horregatik, beharrezkoa da eragile guztiak inplikatzea eta gizonen eta emakumeen egoera ezberdinak ikusarazteko gai izatea. Ildo horretan, ikusezintasun hori ahalbidetu zuen gertakari bat berreskuratu nahi genuke. 2009ko azaroaren 24an, Segi gazte antolakundearen aurkako makro operazioan 34 gazte atxilotu zituzten. Torturak pairatu izana salatu zuten, eta horien senide batzuek eragile sozialekin, alderdi politikoekin eta sindikatuekin biltzea erabaki zuten. Bada, Emakundeko orduko zuzendari Maria Silvestrerekin hitzordua eskatu zuten eta, senideek diotenez, Silvestreren ezetza jaso zuten: “Emakundek gai horri heltzeko ahalmenik ez duela” argudiatzen zuen jasotako eskutitzak, eta Arartekoarekin (EAEko Herriaren Defendatzailearekin) biltzera gonbidatu zituen, eta bildu egin ziren baina emakumeen egoera zehatzari heldu barik.

Elkarrizketatu izan ditugun emakume gehienak oso kontziente dira indarkeria matxista gerraren ezinbesteko arma gisa erabiltzen dela. Beraz, badakite

torturatuak eta bortxatuak izan daitezkeela polizia-etxeetan. Horrekin bateratzen dute beren egungo militantzia, eta beldur horren sentsazioa gorpuztuta dutela. Atxiloketa ailegatuko dela eta polizia-etxean gertatutako denaren "zain" daude. Egoera hori normalizatu, burutik kendu eta ez proiektatzea da emakume askok mina ekiditeko erabili izan duten estrategia.

> *Nik asumitu dut momentu batean militante politiko izateagatik* a estar expuestas a que nos violen. *[...] Hau da, sexualki erasotuak izatera. Asumituta edukitzea eta nire kasuan horrelako egoera bat ekidin ahal izatea pues izan da la ostia ez? Baina jakinda ni libratu naizen bitartean beste kide batzuk hortik pasatu direla, ez?* (ALAITZ)

Orain arte ikusi dugunez, bortxatzaile eta torturatzaile guztiek, beti daukate ezaugarri bera: gizonak izaten dira. Halere, salbuespen bat azpimarratu nahi dugu. Emakumeok ere biolentzia eragiteko gai gara; alegia, emakumeak ere torturatzaileak dira. Zer esanahi sozial eta politikoa du emakumeak torturatzaileak izateak? Abu Ghraib kartzelan egindako argazkietan ikus dezakegu horren garrantzia (Irak, 2003).

Lynndie England Estatu Batuetako emakume-soldadua, gatibu dagoen gizon irakiar preso bat torturatzen agertzen da. Mundu guztian zehar ikusi ziren argazki horiek eta alarmak piztu ziren. Inpunitatea eta tortura salatzeko erabili zituzten askok. Hala ere, hauek ez ziren izan Abu Ghraibeko lehenengo argazkiak; oso argazki antzekoak publikatu ziren garai berean. Gauza bakar bat dute ezberdin bi argazkiek: torturatzailearen generoa. Batean, emakumea eta bestean, ordea, gizona.

Tortura ez da argazkien inflexio-puntua markatzen duena (horren ezagutza bazegoen jada, dokumentu grafikoak ere bazeuden), baizik eta generoaren eta sexuaren beraren apurketa. Biolentzia eragiten zuena (emakumea) horretarako sozializatua ez zegoena zen, eta aldiz biolentzia jasotzen zuena (gizona) eragitera derrigortua dagoena zen. Argazkien bitartez hierarkia patriarkala apurtzen da. Horregatik (eta ez torturengatik) pizten dira alarmak. Argazki hauen ezkutatzea eskatzen denean, antzekoekin egin ez denean, benetan eskatzen ari dena zera da: generoaren haustearen ezkutatzea, eta gizarte-ordenaren mantentzea (emakumea mendekoa / gizona nagusi). Abu Ghraibeko kasuarengatik prozesatu eta kondenatu ziren bederatzi

pertsonen artean Lynndie England-en kasua izan zen mediatikoki gehien azpimarratu zena. Gainontzekoek eragin zituzten torturen kasuei ez zitzaien garrantzi handirik eman, gorputz maskulinoei baitagokie tortura eragitea (arauak hori markatzen du). Ez ziren ezer hausten ari, beraz, ez zen berri aparta. Hobe ezkutatzea.

Dena dela, gatazka armatuetan gizonek ez dituzte “etsaien emakumeak” bakarrik bortxatzen; izan ere, neska-lagunak, emazteak zein militantzia kideak ere bortxatzen dituzte. Emakumeei askoz ere gehiago kostatzen zaie bortxaketa horiek salatzea (bai publikoki, bai intimitatean). Women's Affairs Centre elkarteak Gazako zerrendan bizi ziren 670 emakume elkarrizketatu zituen 2001ean. Horien % 14,2k aitortu zuen sexu indarkeria pairatu izana. Gainera, % 14,2 horren % 82,6k adierazi zuen senarrak izan zirela erasotzaileak. Kasu horietan, militantzia kidea, kide ezkertiar eta berdintasunaren aldeko hori, senarra edo mutil-laguna izan, konplize politikoa izatetik etsai erreala izatera igarotzen da. Eta Euskal Herria ez da salbuespena.

Euskal Herriko gatazka armatuan, adibidez, erbestea askatasun gune bilaka zitekeen bitartean (lehen azaldu dugun bezala), era berean, arriskuz beteriko

espazio bihur zitekeen. Erbestean nahiz klandestinitatean, indarrez sartzen da elkarbizitzaren aldagaia. Militantziaren tarte bat espazio pribatuan egitera behartzen dituzte emakumeak. Hautatu ez duten jendearekin (gizonekin) bizitzera behartuta ikusten dute beraien burua, eta ilegaltasunaren tentsioarekin, segurtasun neurriekin, beldur eta frustrazioekin partekatu behar izaten dute eguneroko elkarbizitza. Egoera horretan, emakumeen gorputza gudu-zelai bihurtzen da, eta elkarrekin bizi diren militanteen etxea indarkeria gune. 70eko eta 80ko hamarkadetan ETAn militatu zuen Aitziberren hitzetan argi ikusten da hori:

> *Nahikoa genuen bizirik irautearekin, eta haietako asko jasatearekin; batzuetan, gainera, ohera sartzen zitzaizkizun-eta. Horrek dakarren guztiarekin, e? Iraultzaileak, barrez lehertzen naiz ni ezkerrarekin. Bai, halaxe da.* (AITZIBER)

Borrokan eta espazio publikoan emakume militanteek konkistatu izan duten askatasuna atzera egitea ekar dezakete erbesteak edo klandestinitateak; baina, liburuan ikusten ari garen bezala, emakumeok eutsi eta erantzun egiten dugu, gure espazioa eta autono-

mia berreskuratuz, eta gizonen rol diskriminatzailea salatuz.

> *Ia beti egokitzen zitzaizun gizonez inguraturik bizitzea, baina, guztiok elkartzen ginenean, unea baliatzen genuen, ez ginen isiltzen. Beti ari ginen borrokan: "zuri dagokizulako harrikoa egitea, gaur ez duzulako erosketa egin, potrohandia zarelako". Etengabeko liskarra izaten zen; ez zeukaten, inolaz ere, etxeko lanetan parte hartzeko ohiturarik.* (Poti)

Askatasun gunea den hori errepresio eta indarkeria gune bihur daiteke uneoro. Etxea, militantzia, intimitatea eta amodiozko erlazioak emakumeen aurkako goreneko indarkeria-eremu bihur daitezke gatazka armatuetan. Beharrezkoa da indarkeriaren aurpegi guztiak ikusaraztea eta publiko egitea, benetako konponbidea ahalbidetu eta gizartearen minak guztiz sendatu nahi badira. Kanpoko zein barneko eragileengandik jasandako erasoak identifikatzeko gai izan behar dugu emakumeok. Azaldu dugun bezalaxe, sistema patriarkalean egoera normala da emakumeen kontrako indarkeria egotea; beraz, emakumeak erasotuta sentitzen dira beren eguneroko militantzian, eta eraso egi-

ten diete. Batzuetan, eraso horiek oso sotilak izaten dira, eta ez da erraza izaten horiek identifikatzea, inertzia patriarkalaren ondorio izaten baitira, naturalizatuak, gure militantzia-ohituren barrenean egindako erasoak. Esaterako, lanen banaketa bereiziaren bitartez gauzatzen dira, edota emakumeen ahotsari eta ekarpenei balio txikiagoa emanez, gizonen arteko aliantza sinbolikoak ahalbidetuz, eta abar.

Militantziaren continuumean emakume askok sentitu dituzte, horren ondorioz, frustrazioa eta erruduntasuna, eta isilean edo lotsaz bizi izan dituzte eraso eta egoera etsaiak. Hala nola, frankismo garaiko eta horren osteko emakume militanteen kasuan, askotan emakume bakarrak izaten ziren militantzian; beraz, nahiz eta egoera horiek isilean bizi nahi izan ez, gehienetan ez zuten egoera partekatzeko emakumerik topatzen.

Kasu horietan, katalizatzaile erabilera eman diote euskal emakume preso politiko batzuek kartzelari; izan ere, beste emakume batzuekin egin dute topo hor, espazio intimo eta lasaiak eraikiz. Emakume horiek beren arteko sareak josteko espazio seguru bihurtu dute hain aurkakoa den espetxe-instituzioa. Besteen esperientziekin topo egitean, bakardade sentsa-

zioak indarra galtzen du, eta norbanakoaren ahalduntzea zein taldekoa sortzen da. Ahalduntze prozesu horri esker, sendatze prozesua ere abiarazten da, erruduntasuna eta frustrazioa plazer eta erresistentzia bihurtzeko aukerak irekitzeaz bat.

> *Elkarrekin geunden denok txaboloan, eta asko hitz egiten genuen feminismoaz. Bizi izandakoa asko konpartitzen da kartzelan, pairatutakoa batez ere. Asko sufritu dugu eta horrela pixka bat gutxiago sentitzen da mina.* (LAIDA)

Eraso matxistak jasan dituzte, bai, baina aurre egin ere egin diete. Elkartzen direnean, bizitza partekatzen dutenean eta espazio intimo ez-mistoak sortzen dituztenean, feminismoa ezagutzeko aukera ere agertzen da, eta, horrela, kartzelan adibidez, feminismoa ezagutu eta praktikatu izan dute emakume preso politiko askok. Eztabaidatzeko, ekintza feministak prestatzeko eta subertsiorako erabili izan dute kartzela.

> *Nik espetxean asko ikasi nuen. Basauriko kartzelan formazio handia zuten emakumeak zeuden. Motibo argirik gabe sartu ziren emakumeak ere bazeuden. Egon zen momentu bat*

aldi berean hogeita bost sartu zirena eta asko eztabaidatzeko eta irakurtzeko aprobetxatu genuen. Feminismoaz hitz egiten genuen. (ISA)

1982ko martxoaren 8an feminismoari buruzko debatea ere antolatu genuen GRAPOkoekin, ostiaka amaitu genuen ia. Haientzat, burges hutsak ginen, eta haiek, guretzat, itxurati hutsak. Gu titi bistan jolasten ginen paletara. Emakume askorentzat ikasteko gunea izan zen kartzela. Nik neuk emakume apartak ezagutu nituen, etxekoandreengandik hasita. (LAIDA)

Diotenez, bakardade sentsazioa eta beste emakumeen erreferentzia gabezia dira gatazka armatuetan emakumeek aurkitzen dituzten oztopo handienetarikoak. Bakarrik sentitzen dira eta etsipena eta nekea sentitzen dituzte. Beren egoerak (onak zein txarrak) beste baten gorputzean hautematen dituztenean, intimitatean, publiko eta politikoa bilakatzen da lotsaz eta ezkutuan bizi izandako hori.

Nora Miralles feministaka kataluniarrak (2016) Ipar Irlandako gatazka armatuko Máiría Cahill-en kasuaz baliatuta azaldu du hori. Bere ustez, sexu indarkeriaren katarsi gisa funtzionatzen du Máiría Cahillen ka-

suak. IRA barruko sexu indarkeriaren kasuak, jendarteko sektore batzuetan horien berri izanagatik eta, are, auzo batzuetan horren gaineko neurriak hartu zituzten arren, ez ziren jotzen gatazka armatuko dinamiketan txertatutako indarkeriatzat, eta, hortaz, jendarteak ez zituen egile horiek erasotzailetzat hartzen, iruditegian heroi izaten jarraitzen zuten. Máiría Cahillek sexu gehiegikeriak salatu zituen, eta, BBCk eman zuen dokumental baten bidez (*A Woman Alone with the IRA*), dimentsio soziala eskuratu zuen bere kasuak. Katarsi mekanismo bihurtu zen kasua emakume ipar irlandarrentzat, hortik abiatuta hasi baitziren jendaurrean bortxaketak salatzen. Ordura arte ezarritako isiltasun kodea hautsi zuen Máiría Cahillen salaketak. Haustura hori gertatu arte, *gu/haiek* batekin eutsi zitzaion isiltasun kode horri, eta, horren bidez, erantzukizuna kentzen zitzaion *gu* horren barruan erasotzen zuenari. Máiría Cahill erreferente bihurtu ahal izan zen emakume batzuentzat; bakarrik egoteari uzteko eta kolektibo (*gu* –emakumeak–) bihurtzeko modua.

Gatazka armatuetan sortzen den *gu* homogeneo eta unibertsal hori maskulinoa da, emakumeak asetzen eta irudikatzen ez dituena. Militante eta preso unibertsal hori gizona da, eta hala islatzen dugu gure

iruditegian. Emakume militante eta presoa, ordea, existituko ez balitz bezala da, edota militante unibertsal maskulino kategoriaren barruan sartuta dagoen hori izango da. Horregatik, emakume erreferenteak agertzen direnean –Máiría Cahill bezalakoak–, zuzenean eragiten dute beste emakume batzuengan, ispilu efektua eraginez. Zu bezalakoak edo antzekoak diren beste batzuk daudela egiaztatzeko aukera sortzen da, eta beste *gu* bat (erreala, ez-unibertsala eta ez-maskulinoa) sortzeko aukera eratzen.

70eko hamarkadan ETAn sartu ziren emakumeetan ikus dezakegu aipatu ispilu efektua. Elkarrizketatutako gizonek zein emakumeek oso gogoan dute 1970ean egin zen Burgosko prozesua. Bertan, 16 etakide auzipetu zituzten, eta nazioartean ere sona izan zuen epaiketa hark. Euskal Herrian mobilizazio ugari egin ziren epaiketaren egunetan, eta irratitik une oro segitu zen. Elkarrizketatutako guztiek tentsio eta intentsitate handiko garaitzat gogoratzen dute gertaera hura; emakumeen kasuan, ordea, beste elementu bat nabarmendu daiteke. Denek nabarmendu dute hiru emakume auzipetu zituztela epaiketa hartan. Argi eta garbi, zalantzarik gabe gogoratzen dituzte horien izenak. Gizonen kasuan, berriz, Burgosko prozesua mo-

mentu berezia izan arren, elkarrizketatutako batek bakarrik gogoratu du emakumeak ere auzipetu zituztela, baina ez da hiruren izenak gogoratzeko gai izan. Arantza Arruti, Jone Dorronsoro eta Itziar Aizpuruaren epaiketaren bitartez, ETAn emakumeak zeudela ikusarazi zen, emakumeen militantzia publiko egitearekin eta besteen erreferente bihurtzearekin batera.

> *Hiru sexuen epaiketa deitzen baikenion algara artean: gizonak, emakumeak eta kleroa.* (ITSASO)

> *Burgosko prozesuan Jone Dorronsoro zegoen, eta beste bi emakume. Gogoratzen dut etxeko eskaileretan nola Burgosko juizioa izan zenean gauero iluntzean biltzen ginen han komentatzera.* (JULI)

Emakume militante erreferente horiek borroka armatua gainditzen dute, eta beste mugimendu sozialetan ere erreferente bilakatzen dira. Horren kasu adierazgarriena da Euskadiko Emakume Feministen Batzarrak 1991ko martxoaren 8rako egindako kartela. Kartel horretan, mugimendu feministak berarentzat erreferente ziren hogei emakume hautatu zituen. “Emaku-

meek ez dute ezertarako balio” lelopean, emakume horien balioan jarri zuten arreta; emakumeek egindako lanetan zein gure aniztasunean.

Emakumeok historiaren parte garela ikusarazten du kartel horrek, eta historia patriarkalak ezabatzen gaituela salatzen. 20 emakumeren hautu horretan Belen Gonzalez Peñalba etakidearen argazkia dago, eta zera jartzen du argazki-oinean: “Madril komandoko kidea. 600 poliziak ere ezin izan zuten berarekin”. Hautaketa horren bitartez, emakume baketsuaren

Belén González Peñalva: Dirigenta del comando Madrid. 600 policías no pudieron con ella

ideia apurtu, eta borroka erreferente bihurtu zen. Berez, emakume borrokalarien erreferentzialtasuna ez da borroka armatu zuzena dagoen espazioetara mugatzen, gizarteko edozein mugimendutan baitago presente. Iruditegi patriarkaletik (emakume baketsua edota terrorista) erreferente feministara igarotzen dira emakume militanteak (Burgosko prozesua eta aipatu kartela, besteak beste).

Bortxaketak, indarkeria matxistak eta eraso sexistak gerrako arma gisa erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu izan dugu beti gatazka armatuari buruzko teoria lantzen dugun feministok; aldi berean, ordea, gaia fokuratzeko eta lantzeko moduen arriskuetan ere sakondu dugu. Kontu handiz ibili beharreko gaia dela uste dugu. Indarkeriak egiturazko jatorria duela azaltzeko orduan jarri behar dugu indar guztia, bortxaketaren eta tortura sexualaren estigmatizaziotik urrunduz. Pascale R. Bos-ek (1945) eta, geroago, Virginie Despentes-ek (2006) ondo argudiatu duten bezala, bortxaketek eta sexu erasoek ez dute beti zertan emakume baten bizitzako esperientziarik txarrena izan, eta ez dugu egoera traumatiko bezala definitu behar sistematikoki. Gainera, Susan Brownmiller-ek (1981) eta Amalia Gonzálezek adierazi dutenez, ga-

tazka armatuetan emakumeen aurka gertatzen den indarkeria ezin daiteke uler talde batek beste baten gainean egoeraren arabera ezartzen duen zerbait bezala; hots, une horretan boterea dutenek (gizonek) aurretik pentsatutako ordena da. Horiek izango dira, gainera, bake deitutako horretan bortxatuko eta eraso egingo dutenak. Ez dago gatazka armatuetan emakumeak erasotzeko arrazoi berezirik; kontua da gatazka armatuetan bake egoeretan baino gehiago erasotzen dela. Gudara joaten den patriarkatua, ordea, bake egoeran etxean geratzen den berbera da.

Horregatik, emakumeen aurkako indarkeria etsaiaren izugarrikeriak salatzeko erabiltzeak, etsai horren ezaugarriak xehatu gabe (gizonak dira), zibilizatu gabekotzat jo ditzake gizonek gatazketan edukitzen dituzten erantzukizunak, ardurak eta pribilegioak. Horren harira, Susan Brownmiller-ek berak (1981: 65) galdetu du zergatik ez diren jendaurrean naturaltasunez salatzen gizon militanteek gatazketan jasaten dituzten bortxaketak. Batzuetan, gizonek pairatzen dituzten uzki-sarketak zein barrabiletan jasotako kolpeak eta eskukadak torturaren izenean salatzen dira soilik, gizon baten ipurtzuloan zerbait sartu dutela esatea saihestuz. Horrela, gizonen maskulinitatea ez

da zalantzan jartzen, zerbait sartzeko gaitasuna edukitzeak definitzen duelako gizon izatea, eta ez zerbait hori berari sartu ahal izateak. Errealitate batzuk saihestuta, pribilegio jakin batzuei eusten zaie; gizontasunaren pribilegioari, alegia.

Halere, gure gatazka honetan tortura horiek salatu izan dituzten gizonak ere badaude; jendaurrean salatu baitute polizia-etxeetan bortxatu edota sexualki torturatu dituztela, beren gizontasunaren pribilegio batzuk kolokan jarriz. Adibide bat aipatze aldera, Martxelo Otamendi *Egunkaria*ko zuzendariaren kasua ekarriko dugu (bera zen aipatu egunkariko zuzendaria itxi zuten unean, 2003an). Bere adierazpenetan, barrabiletan eskukadak pairatu zituela salatu zuen, eta bere hitzetan argi ikus daiteke zer-nolako helburu sinbolikoa duten tortura mota horiek gizonengan: “ez ziren min egiteko ukipenak. Izan ziren umiliatzeko, gutxiesteko, burla egiteko [...] zure egoera animikoa hausteko zen” (2009). Hau da, maskulinitatea apurtzeko, gizona den hori suntsitzeko xedez egiten den tortura. Gatazka armatuetan, lehen azaldu dugun bezalaxe, maskulinitate hermetikoa blindatu egiten da. Ondorioz, zer gertatzen da tortura sexualaren bitartez hausten badute gizona den hori?

Pausoz pauso, borrokalari maskulino eta heterosexualaren iruditeria aldatzeko arrakalak sortzen ari dira. Behin gatazka armatua erlaxatzen denean (borroka armatua eteten denean, ilegalizazioak alboratzen direnean eta atxiloketa masiboak geldiarazten direnean), beste iruditeria batzuk sartzen dira jokaleku politikoan. Hori, adibidez, Ernai gazte antolakundeak eginiko apustu diskurtsiboan ikus daiteke. Euren karteletan elementu berriak sartu dira indarrez, hurrengo

irudian argi ikus daitekeen bezala. Sakratutasuna kendu zaio gizonen ipurdiari, eta zerbait sar dakioke: plazera eskuratzeko toki bihurtu da gizonen uzkia. Emakumearen esentzialtasuna ere hautsi da, hilekoari erreferentzia subertsiboa egin baitzaio odola erakutsiz (ezkutatu beharreko zerbait baita odol hori). Kartel horietan, feminismoaren herentzia zuzena eta autoritatea ikus daitezke.

Iruditeriaren aldaketaren hasieran gaudela pentsa dezakegu, eta positibotzat jo behar dugu hori. Hala ere, iruditeriak diren heinean, zuhurtziaz jokatu behar dugu. Diskurtsoa aldatzeak ez du esan nahi praktika aldaketa egon denik. Euskal Herriko erakundeetako militanteek heterosexualak eta maskulinoak izaten jarraitzen dute gehienbat, Euskal Herria bera delako heteropatriarkala. Beraz, erronka handia daukagu parez pare. Iruditeria horiek egiazko bihurtzeko erronka daukagu, disidentzia sexualek eta gizon/emakume binomiotik haragoko identitate anitzek gure tabernetan, batzarretan, bileretan, lantokietan eta oheetan egoteko eskubidea eta beharra baitute.

Praktika normatiboei eutsiz, emakumeak biktimizatuz, horien militantzia bakea lortzera mugatuz, gizonek pairatzen dituzten bortxaketen salaketa publikoak

saihestuz eta gizon militante erasotzaileak ezkutatuz, historiaren eta gatazka armatuaren atal bat ezkutatzen da kontzienteki. Non daude, esaterako, borroka armatuan aktiboki parte hartu duten emakumeen ekarpenak eta erreparazioa? Edo, non dago emakumeek osatutako kolektiboen presentzia? Non lesbianek, transek edota homosexualek borroka armatuan izan duten tokiaren aitorpena? Non heterosexualitatearen pribilegio eta indarkeriaren salaketa? Non dago mugimendu feministaren autoritatea, lidergoa eta ekarpena negoziazio mahaietan? Zein izango da bere/gure egitekoa bake eta normalizazio deitu diogun prozesuan? Zergatik ez gaude? Nork ukatzen digu presentzia?

Euskal Herriko iruditegiak

Oihana Etxebarrieta Legrand

> *Euskal nazionalismoak, euskal emakumearen irudi bat sortu du, eta horrek eragin handia izan du historian.*
>
> (Diez eta Bullen, 2010: 3)

Ikuspegi orokorraz aritu gara orain arte. Bakea/Gatazka dikotomiak aztertzen, dikotomia hauetan maskulinitate eta feminitate hegemonikoek duten tokia ikusarazten... Orain, testuinguru konkretu batean horrek guztiak duen eragina azaltzen eta aztertzen ahaleginduko gara, espetxean hain zuzen. Espetxea, Euskal Herriaren eta bertako herritar askoren historiari lotuta joan den *zera* da. Mamua, sinboloa, denbora, etxea... hor egon da, hor dago. Zeharka edo zuzenean begiratu diogu, beldurtu gaitu eta altxarazi, amesgaizto edo ilusio bilakatu da. Baina zenbat dakigu espetxeaz? Zer dakigu espetxeaz? Nork hitz egin digu espetxeaz eta nori entzun diogu?

Frankismo garaiko espetxeez etxeko sukaldean istorioren bat entzungo zuen zuetako inork, baina duela gutxi(egi) atera ditugu testigantza horiek plaza publikora. Gure buruetan espetxe barruko zuri-beltzeko irudiak izango ditugu (Carabanchel, Yeserias, Modelo, Basauri...) eta batzuek gorputzean iltzatuta izango dituzte bertan pasatutako bizipenak. Baina kolektiboki, zenbat dakigu gaur egungo kartzelez, beren funtzionamenduaz, barruan atxikita dituzten pertsonez, sistemaz?

Argazki batzuek irudi batzuk sortu dituzte gure buruan. Testigantza batzuek denbora lerro bat eraiki dute. Albiste batzuek, gure barnean ahal bezain gordeen ditugun iruditegiak, ezinegonak berrazaleratzen dituzte. Baina, non daude emakume presoak? Non espetxeetako atariak betetzen dituzten emakumeak (senideak, bikotekideak, lagunak)?

Duela gutxi jakin genuen Saturrarango kartzelan gertatutakoa, eta duela oso gutxi hasi dira zenbait preso ohi ere euskal emakumezko presoen egoeraz hitz egiten. Aldi berean, espetxearen ondorioak pairatzen dituztela esatera ausartu dira zenbait senide eta lagun, eta haien egoeraren berri ematen hasi. Baina orokorrean emakumezkoek kartzela barruan eta kan-

poan bizitu izan dutena ez da gure interesekoa izan. Haien bizitzako istorioek ere gure historia osatzen dutela uste dugu eta gehiago entzun behar ditugula konbentzituta gaude.

Analisi horrek guztiak balio dezala abolizionismoaren lupa esku artean izan dezagun. Zigor-sistemaz (espetxe-sistemaz) ari garenean, hitzak ondo dioen bezala, zigorrean oinarritutako sistemaz ari gara, minean eta mendekuan oinarritutako sistemaz, alegia. Ez dugu lupa hau eskuetatik galdu behar. Sistema bera aztertzeak egoeraz kontzientzia hartzen laguntzen digun moduan, beste egoera batera salto egiteko beharra sortu behar liguke.

Zenbait ikerketa egin dira emakume presoaren egoera aztertzeko, eta haien egoera espezifikoetan jarri da jo-puntua, adibidez, emakume ijitoak, espetxeratutako amak, jatorri ezberdinetako emakumeen egoera... berezitasun bakoitzak emakume presoaren zigorra baldintzatzen du, presoen senide eta lagunen testuinguruak ondorioak baldintzatzen dituen moduan. Gure kasuan, Euskal Preso Politikoen Kolektiboan (EPPK, hemendik aurrera) zentratuko gara, baita kolektibo horretako partaideen bikotekideetan ere. Talde horri, juridikoki eta legalki, eskatzen duen izaera

politikoa ez zaio aitortzen, baina “euskal gatazkaren” ondorioz espetxeratuak izan diren pertsona guztiek erregimen berezi batean bizi behar dute espetxealdia. Horretan oinarrituta, eta eskubide murrizketa horiek bikote erlazioak aurrera eramateko sortzen dituzten zailtasunak ikusita (dispertsioa, dei kopuru murriztua, bisitetara sartzeko arazoak, eta abar) egoera hori ezagutzen eta ikusarazten ahaleginduko gara. Hasteko, kolektibo hori historikoki kokatzen saiatuko gara, zein korronte eta ideologiatatik edaten duen, eta horietan emakumearen nolako irudikapena izan den begiratuko dugu bereziki.

EUSKAL NAZIONALISMOAREN IRUDITEGIA

Emakumearen iruditegia eta bere erreferentzia, euskal nazionalismoaren oinarrietako bat izan da. Emakumearen figura nagusi eta garrantzitsuena amarena izan da. Familiaren ama, aberriaren ama. Azterketa historiko txiki honetan euskal nazionalismoaren bi korronte aipatuko ditugu. Alde batetik, Sabino Aranak sortutako Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ), eta bere emakume mugimendua zen Emakume Abertzale

Batza (EAB) izango genituzke, abertzaletasun tradizionalaren adierazle garrantzitsuenak. Bestetik, Euskadi Ta Askatasuna (ETA) eta Ezker Abertzalea izango genituzke, aurrekoaren ideologiatik edan baina abertzaletasun erradikalago bat planteatuko dutenak.

Sabino Arana eta Eusko Alderdi Jeltzalea

"Jaungoikoa eta Lege Zaharra" aldarrikatuz hasten den alderdi batek oinarria Eliza katolikoaren dotrinan izango duela argi dago. Emakumearen irudia horren arabera eraiki zuen mugimenduaren teorialari nagusi zen Sabino Aranak. Mundu mitifikatu eta harmoniatsu horretan, emakumearen irudi idilikoa emazte baserritarraren rolean kokatu zuen, haren izaera horrela definituz:

> *...El hombre debe considerar a la mujer, 1 como hermano menor que necesita de su protección para vivir...; 2 como hija suya, pues madre de la mujer es el hombre...; 3 como seres semejantes a él y a Dios...; 4 como compañera que le ayude a sobrellevar las penas de este mundo, a servir a Dios y a educar los hijos para Él; 5 como madre de sus propios hijos y persona entre todas las del mundo que más*

ama a esos pedazos de sus entrañas. (Del Valle, 1985: 228)

Emakumearen barnean amaren figura gailenduko du Aranak, katolizismotik zuzenean edanez. Harentzat, emakumea indartsua eta antolatzailea da eta haurren fedea, arau tradizionalak eta moralak babestuko ditu; baina aldi berean ahula da eta gizonaren babesa behar duen adin txikikotzat joko du. Estereotipo hori euskal jendartean errotu zela diote Teresa Del Vallek zuzendu zuen *Mujer Vasca. Imagen y realidad* lan antropologiko ezinbestekoan. Idatzi nazionalistetan, emakumea amari, lurrari, birjinari eta aberriari lotuta aipatuko da etengabean: Ama, Ama-lurra, Ama Aberria eta Ama Birjina. Purutasunari, gorenenari, gizakiaren gainetik dagoenari lotuta. Aldi berean, emakumea arrazaren, hizkuntzaren eta familiaren euskarri gisa aipatuko da.

Emakume irudi hori sustatzeko 1922an Emakume Abertzale Batza sortuko da, eremu pribatuan antolaketa lanak egiteko. EABk, hala ere, emakumezkoen antolakuntzari eta beroriek esparru publikoan agertzeari bidea ireki zion, bultzatu behar zuen emakumearen irudiari nolabait kontra eginez. Horrek, zigor

gogorrak ekarri zizkien eta Gerra Zibilaren ondoko urteetan kartzela eta heriotza-zigorrak jasan zituzten.

Euskadi Ta Askatasuna

Euskadi Ta Askatasunak hasieratik (1958) ez-konfesionaltzat jo zuen bere burua, eta horrek, emakumearen definizioan mesede egin zezakeen, nazionalismo jeltzaleak zuen kutsu moralista eta kristaua kentzen zitzaiolako gainetik. Bestalde arrazaren kontzeptua alde batera utzi zen, etniari garrantzi handiagoa emanez (hizkuntzak berebiziko funtzioa jokatuko du puntu honetan). Marxismoak ere faktore eta arrazoibide berriak ekarri zituen eta euskal nazionalismoaren irakurketa ezkertiar bat egiten hasiko dira. Baina orokorrean, emakumearen inguruko lanketarik ez du egiten hasierako ETAk, eta emakumea aipatzen duen lehen aldietako bat *Moral de resistencia nacional* testuan (1979an *Documentos Y* lanean argitaratua) izango da:

> *Frente al concepto tan generalizado de la mujer como promesa placentera, frente a la mentalidad de Don Juan, frente al concepto de dama (cosa bella e idealizada, pero despersonalizada), opone el vasco su concepción trans-*

cendente de la mujer como madre y como etxekoandre: es decir como elemento fundamentalmente humano y de primera importancia en la organización social. (Ibidem: 234)

Emakumearen inguruko diskurtsoaren jarraipena ematen dela ikus daitekeen arren, pixkanaka beste ikuspegi bat bultzatzen duten ideiak sartzen joango dira (etxeko lanengatik soldata bat jasotzearena, kasu). *Carta a los intelectuales vascos* (1964-65) delakoan, emakumea modu esplizituan aipatzen den lehen aldia izan zen. Dirudienez testuak polemika biziak sortu zituen eta kartaren berrargitalpenean paragrafo hau ez zuten berriz sartu:

En cuanto a la posición de la mujer en la sociedad vasca, consideramos que debe gozar de idénticos derechos y posibilidades que el hombre en todos los sectores de la vida política, social, económica y cultural. No obstante conscientes de la especial función que le incumbe en el hogar como esposa y madre, deberá la sociedad prestar la debida atención y facilitar su cumplimiento. Una de las medidas a emprender sería la concesión de un salario a la mujer con

hijos en tanto que legítima compensación por su trabajo y educación de los futuros ciudadanos vascos y su consiguiente aportación a la formación de la sociedad. (Ibidem: 235)

ETAren sorreran ez zuen emakume batek ere parte hartu, baina Miren Alcedok ETA erakundeari buruz egindako ikerlanean ikusi ahal izan zen moduan pixkanaka erakundean parte hartzen hasi ziren. Hasieran, 60ko hamarkadan, batez ere egiturazko lanak egiten aritu ziren eta 80eko hamarkadan zenbait ekintzatan parte hartu zuten (Alcedo, 1997). Burgosko epaiketak eragina izango du emakume askorengan, lehen aldiz hiru emakume preso ikusiko baitituzte, gainera hiltzera kondenatuak izateko arriskuan. Horrek, emakumeen parte hartzean eragina izan zuen. Horretaz gain, emakume asko, aukerak zabaltzeko, irekitasuna sentitzeko, emakume bezala askeak eta erabakiak hartu ahal izateko... ETAn sartu ziren (Del Valle, 1985: 237).

Baina emakumezkoaren irudi bat zegoen bezala, gizon borrokalariaren estereotipoa oso indartsua zen eta eredu hori bereganatzen ahalegindu ziren hasierako emakume militante horiek. Hala ere, gizonezkoen eredua soilik jarraitzeak alienaziora eraman ahal zi-

tuela ikusten zuten eta “femeninotasun kontzeptu berri bat sortu behar” (Alcedo, 1997: 35) zela aldarrikatu zuten militante haietako askok. Genero kontzeptua berreraikitzeko nahia azaldu zioten Alcedori ETAn parte hartu zuten hainbat emakumek, militantziaren bidez generoen arteko harremanak aldatu nahi zituztela.

Emakumeek erakundean parte hartzen zutela ezaguna bada ere, ETAren espazio sinbolikoak espazio maskulinoa izaten jarraitu zuen. “Idatzietan, karteletan, pintadetan edo eranskailuetan ETAren irudia indarraren eta erresistentziaren sinboloz osatzen zen, eta irudiak maskulinoa izaten jarraitzen zuen: gizon ukabil bat, gizonezko baten besoa metraileta bat heltzen duela” (Del Valle, 1985: 244). Espazioen banaketa ematen jarraitu zen (modu sinbolikoan beti) eta emakumezkoarena zaintzarekin zerikusia duten erakundeetan irudikatzen zen gehiago, presoen aldeko elkarteetan, adibidez.

Iruditegi hori beste hainbat antolakundetara zabaldu daiteke, eta egun oraindik ere indarra du. Ihintzaren kasuan, bere atxiloketa egunean sarekadaren bat izango zela zurrumurrua heldu zitzaion, eta bikotekidea atxilotu ahal zutenetako bat zela pentsatuta,

bere gurasoen etxera lo egitera eraman zuen. Bertan atxilotu zuten Ihintza, nahiz eta hasiera batean bere bikotekidea atxilotzen ari zirela pentsatu.

> *Nik banekien gerta zitekeela, beti egon naizelako militatzen eta gainera urtebete neraman zerrenda beltzen asuntoarekin. Baina nire buruan neska-lagunaren papera hartu nuen, bera lehenago atxilotuko zutela uste nuelako. Mundu guztia ere sorpresaz harrapatu zuen ni lehenago atxilotzeak.* (IHINTZA)

Emakumezko militanteek “bikotekidearen papera” hartzen dute eta gizonezkoak atxilotuak izateko arriskua dutenak bezala identifikatzen ditugu. Militantearen identifikazio maskulinoa egin izan dugu. Harritu egiten gara emakume bikotekidea atxilotzen badute gizonaren ordez.

Poliziarengan ere eragina izango du militantearen irudi horrek eta inkomunikazio aldian egindako galdeketetan paper feminizatuaz galdegingo zaio, edo horrekin ahuldu nahiko dute psikologikoki (komandoko puta zela, sukaldari bezala lan egiten zuela, ama izateko aukera galdu duela...).

ZEN Plana izenez ezaguna izan zen Espainiako Gobernuaren 80ko hamarkadako plangintzak aldaketa ekarri zuen emakumeen ikusgarritasunaren inguruan. Garai hartara arte Gobernutik eta komunikabideetatik ETA antolakundeaz hitz egiten zen, erakundeko kideen homogeneotasuna bultzatuz. Momentu horretatik aurrera “etarrez” hitz egiten hasi ziren, norbanakoengan eta haien bizitzetan zentratuz. Horrek, ETAko militanteak banaka aurkeztera eraman zituen Gobernua eta prentsa, kideen eromena edo odol-zaletasuna azaltzeko haien bizitzetako momentuetara joz.

Iruditegia bakarra izan arren, azpimarratu behar da, historia guztiak bezala, ETA erakundearen historia ez dela homogeneoa eta bakarra izan. Emakumeek izan zuten parte hartzeak eragina izan zuen, eta adibidez, aipatzekoa da 1980an emakumez osatutako komando batek Usparitxa medikuaren kontra egindako atentatua. Bere Lekeitioko txaletean bonba bat leherrarazi zuen ETA militarrak “medikuaren hipokrisia” salatzeko. Atentatuaren ondoren kaleratu zuten agiri batean jakinarazi zuten mediku hori abortuaren kontrako mugimendu baten burua zela, baina aldi berean ordain zezaketen emakumeei abortuak egiten zizkiela bere klinika pribatuan. “Emakumeen askapena babes-

teko ekintza” bezala izendatu eta “emakumeen askapenean aurrerapausoak eragin ditzakeen edozein ekimenarekin bat egingo” zutela esan zuten (*El País*, 2016-05-25). Beraz, esan dezakegu, emakumeen parte hartzeak eragin zuela horrelako gaiak mahai gainean jartzea, nahiz eta ez ziren gertakari edo ekintza mota ohikoenak izan.

Ezker Abertzalea

Bi mugimendu edo korronte handi horiek berebiziko eragina izan dute euskal jendartean. Historiaren hariari tiraka jarraitzen badugu, Ezker Abertzalearen ideologia eta mugimendura ailegatuko gara, eta interesgarria da horretan ere arreta jartzea. EPPK-k bere burua korronte ideologiko eta politiko horren baitan duen heinean, haren aspektu zenbaiti begira jar gaitezke momentu batez. Ez da gure asmoa Ezker Abertzalearen erradiografia zabal bat egitea, lan honetan interesgarriak izan daitezkeen antolakunde eta gertakari historikoak markatzea baizik.

EPPK

Kolektibo honetako pertsonek gatazka politiko armatu baten baitan gertatutako atxiloketa batzuen on-

dorioz amaitu dute espetxean, eta bertan, elkartzeko hautua egin dute, izaera borrokalari eta aldarrikatzailearekin:

> *Jatorri eta izaera politikoa dugun heinean, kartzelatuak izan garen euskal herritarrok EPPK osatzen dugu, Euskal Herriaren alde egiten segitzeko asmoz. Kartzela esparrutik eta molde bateratuaz eragiteko tresna dugu, izan ere, kolektiboa. Gatazka politikoarekiko loturari irmoki eutsi eta gure parte hartzea prozesu politikoan bideratzeko tresna modukoa, alegia. Hori besterik ez baita EPPK.* (Auzolana, 2010)

Haien egoera gatazka politiko baten oinarrian kokatzen dute kolektiboko kideek, nazio baten (Euskal Herriaren) ukazioan hain zuzen. Haien ustez Estatu frantsesak eta Estatu espainiarrak ukatzen duten autodeterminaziorako edo independentziarako eskubidearen alde bidea egiteagatik daude kartzelan, hainbat akusaziopean: erakunde armatuko kide izateagatik; Ezker Abertzaleko kide izateagatik; edo azken urteetan Baltasar Garzon epaileak abiarazitako “dena ETA da” leloari jarraiki, herri eta gizarte mugimenduetako kide izateagatik.

Historikoki 1978an kokatu ahalko genuke kolektibo horren hasiera, aurretiaz haien izaera politikoa aldarrikatzen zuten presoak egon arren, 1977ko abenduan bururatu zen amnistia prozesuarekin atera baitzituzten kalera. Beraz, 1978an atxilotutako lehenengo euskal herritarrekin osatzen hasten da EPPK.

Presoen senide eta lagunen elkartea. Etxerat

Preso politikoen sostengurako elkarte hau senide eta lagunez osatua dago, batez ere ama eta bikotekide emakumez. Arlo pribatua eta publikoa uztartzen dituen erakundea dela esan dezakegu, zaintzan eta babesean oinarritzen den arren –EABrekin ikusi dugun bezala– plaza publikoa hartzen baitute kideek, salaketak eta lan politikoa bultzatuz.

KAS Emakumeak eta Prozesu Feminista

1978an KAS Emakumeak sortu zen. Ezker Abertzalean zeuden emakumeak biltzen zituen antolakunde honek (HASI alderdiko emakumeak, KAS blokearen baitako emakumeen erakundeak, Euskal Emazteak Beren Askatasunaren Alde eta emakume independenteak bildu zituen), eta bertan euskal feminismoaren

oinarri nagusia den *zapalketa hirukoitzaren* ideia lantzen hasi ziren: jazarpen Nazionala (Espainiaren eta Frantziaren aldetik), Genero jazarpena (Gizonen aldetik) eta Klase jazarpena (Burgesiaren aldetik). Aurreko 15-20 urteetako borroketan emakume gutxik parte hartu zutela-eta, emakumeekin zer ikusia zuten aldarrikapenak ez zirela kontuan hartu uste zuten (Epelde et al., 2015: 111), eta horregatik emakumez osatutako antolakundearen beharra ikusi zuten KAS koordinakundearen baitan.

1981ean taldea desegin eta gero, KASetik kanpo kokatutako Aizan! taldea sortu zen, euskal feminismoaren eta zapalketa hirukoitzaren ideiari heldu ziona. Bide propio eta indartsua izan zuen Aizan!-ek, baina erdibideko linbo batean mugitu zen, ENAMen (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua) aldarrikapen feminista txertatzeko ahaleginean, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministan nazio askapenerako borrokaren aldeko aldarrikapenak eransteko ahaleginean.

1988an Egizanek Aizan!-en bidea hartuko du, baina kasu honetan KASen barruan kokatuko du bere burua, koordinakunde abertzaleak 1983an bere oinarri ideologiko eta politikoen baitan kokatu baitzuen emakume antolakunde baten beharra. Bide luzea egin

zuen Egizanek, eta aipagarria da 1998an Ezker Abertzaleari erakunde feminista izateko erronka proposatu izana. Horrek, *Ezker Abertzale feministarantz* prozesua abiatu zuen eta 2001ean erakunde guztietako zuzendaritzek eragile feminista izateko konpromisoa hartu zuten. Hori egikaritu ahal izateko, Prozesu Feministaabiatu zen Ezker Abertzalean eta hamar urtez luzatu zen. Bide horretan, zenbait egoera desorekatu identifikatu zituzten: “parte hartze desorekatua, kontzientzia feministarik eza, emakumeen egoera ikusteko zailtasunak. Horiei aurre egiteko barne planaren ardatz nagusiak adostu zituzten, eta Ezker Abertzalearen oinarri ideologiko feministak onartu”. (Ibidem: 233) Prozesu horren amaieran Egizanek bere jarduna amaitutzat eman zuen.

Prozesu horiek, eta politika feministak Ezker Abertzalearen baitan izandako garapenak eragina izan zuten EPPK-ko kideengan. Laura Vara antropologoak (2011) idazki batzuk hartu zituen kontuan, eta batez ere 2005eko Emakumeen Mundu Martxarako idatzitakoa, prozesu feministak izan zuen eragina ikusaraztеko:

> *Herri bezala hanka azpian hartzen gaituzten estatu ukatzaileen aurka egiten dugu borroka,*

eta horregatik gaituzte espetxeratu. Estatuok ezarri eta gurea ez den eredu politiko-soziala eraldatu nahi dugulako egiten dugu borroka. Herri, nazio eta gizarte berri bat eraiki nahi dugulako, alegia. Askea, gizon-emakume askez osatua, justizia sozialean errotua eta sexuen arteko harreman parekideetan oinarrituta. Halako Euskal Herria nahi dugu eta, euskal emakume preso politikook eusten diogu gure borroka-tokiari, bai eta askapen prozesuan ere.

Agiri honetan ere, Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta erreferentziatzat hartzen dute, eta bertan haien ekarpena egingo dutela azaltzen dute, “euskal gatazka eta guk jasaten dugun espetxe egoera izango dira gure ekarpenaren ardatzak” (*Etengabe*, 2016-05-23). Gatazkaren konponbidean, beraz, emakumezkoen egoera bereziaren ikuspegia txertatzera konprometitzen dira agiriaren bidez. Horrek gatazka beste modu batean bizi ahal dela ikusarazten du, emakumezkoek beste modu batean bizi dezaketela gatazka.

ESPETXEAREN IRUDITEGIA

Gizonezkoek osatzen dute oraindik ere espetxeaz dugun iruditegi kolektiboa. Emakumeak ere tartean noski, baina normalean, zaintzailearen eta bisitatzailearen paperean irudikatuko ditugu. Baina zenbat du errealetik iruditegi horrek? Edo hobe esanda, zerk eragiten du gure irudikapenean rolen banaketa dikotomiko hori egotea?

Zenbakiei begiratuz gero, estatistiketan portzentaje txiki bat izaten jarraitzen dute emakume presoek. Espainian, 2016ko urtarrilean kartzelan zeuden pertsona guztien % 7,6 (61.423 presotatik 4.695) ziren emakumeak eta Frantzian, 2016ko martxoan % 3,3 (67.580 presotatik 2.249 emakume). Azpimarragarria da Estatu espainiarrak duen emakume preso kopurua, Frantziakoa bikoiztu eta Europako batez bestekoa gainditzen baitu (% 5ekoa zen 2013an). Eta zergatik daude “horrenbeste” emakume Estatu espainiarreko espetxeetan? Dolores Julianok dioenez, gaur egun delitu txikiarekiko politika “zero tolerantziakoa” bihurtu da (Juliano, 2011: 44). Horrek emakume asko kartzelan sartzea eragin du, haien delituak ehuneko handi batean drogen trafikoarekin eta salerosketarekin zeri-

kusia izanik; osasun publikoaren aurkako delitu kontsideratuak dira (% 47, 2005ean Marta Cruellsek eta Noelia Igaredak koordinatu zuten ikerketaren datuen arabera) eta horiek geroz eta gogorrago zigortzen dituzte politika penalek. Emakumeek, beraz, kartzelan egonaldi luzeak egin behar izaten dituzte delitu “txikiengatik” (Aguilera, 2009). Beste estatuetan, ordea, delitu horiek beste modu batean (lan komunitarioak, hirugarren graduak...) zigortzen dira eta horregatik ez dago hainbeste emakume kartzeletan.

Estatu espainiarrean, emakume presoen kopurua konparazioan altua bada ere, gizonezkoekin alderatuta “oso txikia” izaten jarraitzen du eta horrek kolektiboa ikusezin bihurtzen du. Politika penalaren eta kartzela politikaren sorreran emakumea kanpoan uztea edo ukatzea dakar egoera horrek, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Emakume presoen egoeraz gehiago jakiteko, egokiena tokiko azterketa bat eta baldintzen argazkia ateratzea litzateke, baina Elisabet Almeda ikertzailearen hitzetan, Estatu espainiarreko kartzeletara sartzea ez da erraza, ez ikertzaileentzat, ezta elkarteentzat ere. Kartzela sistemaren inguruko salaketa egin bezain laster, aurretiaz sartzea lortu izan zuen talde, profesional

edo ikertzaile batek, ezin izango du berriro sartu edo zailtasun ugari izango ditu.

> *Gure herriko kartzela sistemen bahiketaz hitz egin daiteke. Naturalki, hau demokrazia batean ez litzateke gertatu behar, baina paradoxikoki, herri demokratiko bat izanik, indarrean den legeditik horren urrunduta dagoen kartzelako errealitatea isilean ezkutatzeko beharra handiagoa izan daiteke.* (Almeda, 2002: 206)

Esaldi horretan bi egoeraren berri ematen zaigu: alde batetik, paperean idatzita dagoenetik nahiko urrun dagoela egungo kartzela sistema, eta bestetik, oso zaila izaten dela horren inguruko informazioa lehen eskutik jasotzea eta, beraz, horren inguruko informazioa zabaltzea. Hala ere, bada instituzio itxi hau barrutik edo ertzetatik ikertu duenik, baita ikuspegi feministatik egin duenik ere (Almeda, De Miguel, Arostegi et al., Vara, Juliano...). Horien guztien lanari esker, emakumezkoen espetxeen, emakume presoen eta haien senideak preso dituzten emakumeen argazkitxo bat atera ahal izango dugu.

Estatu espainiarrak ibilbide luzea izan du emakumezkoentzako atxilotze guneak sortzen. Almedak

(2006) aipatzen duen lehenengo erreferentzia, duela lau mendeko Galera Etxeak (Casas Galera) dira. San Jeronimoko sor Magdalenak sortu zituen etxe horiek, eta bertan “prostitutak eta eskaleak giltzaperatzen ziren, hau da, gizonezkoen kontroletik eta etxeko giltzapetik kanpo bizi ziren emakume pobreak”. (Juliano, 2011: 23). Etxe horiek baino lehen, emakumezkoak, gizonezkoen espazioetan giltzapetzen zituzten, eta gaur egungo arrazoi bera erabiltzen zuten emakumezkoentzako kokapen itxiak ez sortzeko, emakumezkoak soilik giltzaperatzeko eraikinak altxatzeak ekarriko zukeen “kostu handia” alegia. Galera Etxeak izan ziren beraz, emakumezkoentzat eraiki ziren lehen espetxeak. Bereziki orientazio moralizatzailea zuten eta helburu argiak zituzten: bertan giltzapetuta zeuden emakumeen izate “okerra” zuzentzea. Espetxearen historiari buruzko hainbat analisi egin izan dira, eta gehienetan espazio horien sorrera ez da kontuan hartzen. Gaur egungo espetxe ereduaren helburu berekin sortutako Galera Etxeak mugarri historikoa izan baziren ere, Foucault bezalako ikertzaileek XVIII. eta XIX. mendeetan kokatu izan dute espetxe modernoaren sorburua, gizonezkoen atxiloaldia erregulatzen hasten den momentuan alegia. Horrek guztiak (estatistikoki

kopuru txikia izatea, bereizi gabeko espetxe baldintzak, espazio falta...), aurrerago ikusiko dugun bezala, eragina du emakumeek kartzelan dituzten baliabide eta egoeren gainean.

Emakumeentzat sortutako presondegi eredua erreferente bilaka zitekeen, baina tamalez espetxeen iruditegian ez du tokirik izan. Espazio maskulino bezala ikusten jarraitu dugu. Eta espazioaren ordena hertsatzailearekin kritikoak izan diren horiek ere, ikuspegi maskulino hegemonikoa birsortu dute. Ikusezintasun bera EPPKren adierazpenetaraino heltzen da eta hor jarri nahi genuke lupa.

Bestalde, espetxea bera sufritzea tokatzen zaion beste kolektibo bat sartuko dugu ekuazio honetan: presoen senide eta lagunena, kasu honetan bikotekide emakumeena. Kataluniako Observatori del Sistema Penal i els Drets Humans (OSPDH) behatokiak egin zuen txosten batean (2015) ohartarazten zen kartzelatzearen ondorioak ez dituela soilik pertsona presoak bizi, eta zigorrak preso dagoen pertsonaren familiarengan ondorioak dituela. Ondorio horiek askotan “larriak” direla gaineratu zuten, eta ikusezinetan ikusezinena den kolektibo horri espazioa ematea behar-beharrezkoa dela argi utzi. Bisitetara doazen pertsonen

daturik ez dago, baina bertan egon denak badaki “espetxeetako itxarongelak emakumez beteta daudela”. Zaintzarekin lotuta dagoen lan horretan gehiengoa emakumea izatea ez da kasualitatea, baina geroago sartuko gara zergatietan. Horretarako, eta emakume presoen egoera aztertzeko, erabat ikusezinak diren baina aldi berean espetxeko egoerari aurre egiteko oinarria diren harremanetan zentratuko gara, batez ere harreman afektibo sexualetan, maitasun harremanetan, bikoteetan.

Rol banaketa patriarkalak kartzelaren antolaketa ereduan, sisteman, espazioan, egunerokotasunean... eragin oso bortitza dauka. Baina, esan bezala, espetxearekin kritikoak diren eremuetan ere eragingo du, eta bi hari mutur horiek non topatzen diren, korapiloak non sortzen eta non askatzen diren begiratzen ibiliko gara hurrengo orrialdeetan. Hasteko, Tolosan “Emakumea eta kartzela” hitzaldi batean parte hartu zuen Eider Ijurkoren hitz batzuk erabiliko ditugu. Haren bikotekidearekin batera atxilotu zuten, eta polizia-etxean, baina baita bere inguru sozialean ere, horrek eragina izan zuela adierazten du. Emakumea zaintzaile eta gizona militante irudikatzen jarraitzen dugu:

Bikotekidea eta biok batera atxilotu gintuzten. Polizia-etxean etengabe esaten zidaten mutilak engainatu ninduela, eta “pobre niña” bezalakoak esaten zizkidaten. Herrian ere, intentzio txarrik gabe, baina Ekaitz kartzelara sartuko zutela eta ni aske utziko nindutela uste zuten. Mutila jotzen da militante politikotzat eta gu, emakumeok, haien bikotekide bezala ikusten gaituzte.
(EIDER IJURKO)

Ilunpetik argira

Hau ez da gure bakea.
(Bilgune Feminista)

Ikuspegi androzentrikoak eragina izan du kartzela edo gatazka politiko armatuak bezalako gaien inguruko analisia egiteko garaian. Hala ere, horren aurrean ikuspegi feminista batetik lan egin duen jendea ere aurki dezakegu. Haien ekarpena gehiago edo gutxiago ezagutuko da, baina bidea egiteko beste mugarri bat izan da. Aitortza eta errekonozimendua behar duten lanak, pertsonak, taldeak, ekimenak... topatuko ditugu urte horietan guztietan.

Alde batetik, lan akademiko eta teorikoak topatuko ditugu, lan honen oinarrian dauden ideia eta pentsamendu ugariren sortzaile izandakoak. Lehenik, Begoña Aretxaga antropologoak egindako lana aipatu nahi genuke. Aretxagak lan gogoangarriak egin zituen, baina lan bat bereziki da nabarmentzekoa, IRAko militanteek Long Kesh espetxean egindako Protesta Zikinari buruzkoa (1997).

Ipar Irlandan, IRAko presoek *Protesta Zikina* izenez ezaguna den greba eraman zuten aurrera, estatus politikoa lortzea xede. Ziegetako paretetan txiza eta gorotza sakabanatu zuten eta emakumeek baita hilekoaren odola ere. Azken horrek, militantearen figura homogeneizatua apurtu zuen nahi gabe, emakumeak ere preso zeudela eta gatazka bizitzeko haien modu berezia ere bazutela adierazi zuen. Hasiera batean emakumeek odola sinbolo berezitutzat erabiltzeak gaitzespena eragin zuen, baina gerora sortu ziren erreakzioek berezitasun hori ulertu eta aldarrikatzera eraman zituen. Aretxagak, erreakzio horiek aztertu zituen, eta bertan ikus daitekeen bezala, kazetariengatik bakarrik ez, senide eta lagunek ere protesta aldaera hori “gogorragotzat” hartu zuten, emakumeei bertan behera uzteko eskatuz. Hau da, emakumetasunarekin zer ikusia duen horrek erreakzioak sortu zituen, talde homogeneoa apurtu zuelako, eta “emakumea” gatazkan sartu zuelako. Erabat maskulinoa zen borrokalariaren espazioan hain zuzen. Hemen ere, euskal emakume preso politikoen egoera berezia, aipatu ez den “berezitasuna” izan da urte luzez. Aipatzekoa izan daiteke, liburu hau sortzen ari ginen bitartean Estatu frantseseko Fresnesko espetxean dauden EPPK-ko ki-

deen borrokaldia. Bertako hiru emakume preso politikoek, beste preso sozial batzuekin batera, protesta bat abiatu zuten bizi baldintza gogorrak salatzeko. Hamarnaka emakume mobilizatu zituen protestagatik zigortu zuten Itziar Moreno, preso politikoetako bat, eta isolamendura bidali. Egoera horren aurrean, beste bi emakume preso politikoak *mitard*era (zigor ziegara) joan ziren haien kabuz, eta gizonezkoek gose greba abiatu zuten. Emakumeek ere gose grebari ekin zioten eta borrokaldia Morenoren espetxe aldaketaren baieztapenarekin amaitu zen. Emakumeengandik hasitako borroka bat kolektibo osoak bere gain hartu izanak, emakumezkoei gertatzen zaiena kolektibo osoari gertatzen zaion zerbait bezala ikustea irudika dezake. Horretaz gain ere, pixkanaka hasi dira ahots ezberdinak plazaratzen eta bizipen propioak kontatzen. Mugarria izan daiteke 2012ko abenduaren 18an Bilboko Kafe Antzokian Herrira-k eta Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatutako “Emakumea eta kartzela” mahai ingurua. Garai horretara arte ez ziren hitzaldi edo mahai inguru ugari antolatzen gaiaren inguruan, are gutxiago bizipenetatik abiatuta. Kafe Antzokian, bizi izandakotik eta egindako ikerketetatik hitz egin zen, eta hastapenean jende asko bertaratu ez bazen ere,

pixkanaka indarra hartzen hasi zen ekimena. Zabaltzen joan zen heinean, haien bikotekidea preso duten emakumeak hitz egiten hasi ziren; seme-alabek, emazteek, iheslariek... hitza hartu zuten, eta pixkanaka ohikoago bihurtu da emakumeek bizitako egoera berezia kontuan hartzea.

IKUSGARRI BIHURTZEN

Jarraian, espetxearen eta EPPKren eta bertako emakumeen arteko harremanean zentratuko gara. Zer baldintza, eragin, murriztapen... ditu kolektibo horrek jada murriztailea den sistema horretan?

Espetxea

EPPK-ko kide izandako Olatz Dañobeitiak, arestian aipatutako hitzaldian, honela deskribatu zuen inkomunikazio aldia:

> *Kartzela, atxiloketatik hasita, sistema patriarkalari erantzuten dion eraikuntza bat da [...] Atxiloketa unetik hasten da hau dena, emakumeari ezarritako rola apurtu izana zigortuz. Polizia-etxeko galdeketetan etengabekoa da*

“alaba txarra zara, bikotekide txarra zara, inoiz ez duzu haurrik izango” bezalako irainak jasatea. Bestalde, tortura bizipenak izan dituzten emakumeen kasuan, izaera militantearen aitortza eza erabili ohi dute poliziek: “mugimendu politikoan sartu zara bikotekidearengatik, sukaldari lanak egiteko, edo zerbitzu sexualak emateko”. Olatz Dañobeitia (Herrira, 2012)

Espetxealdiaren aurrekari bezala irudika dezakegu atxiloketa inkomunikatua. Dañobeitiak azaltzen duen moduan, zigorra ez da soilik ustezko delitu bat burutzeagatik etorriko; emakume bezala, zure rola apurtu izana ere zigortzen da, eta inkomunikazio aldian erabiltzen den irain berak, Galera Etxeetan ikusten genuen berreziketa prozesua suposatuko du espetxealdian.

ACOPE (Asociación de Colaboradores con las mujeres Presas) elkarteko kide den Margarita Aguilera abokatuak (2009) zigor hirukoitzaz hitz egiten du emakume presoen espetxeratzeari dagokionez: zigor soziala, pertsonala eta presondegikoa.

Emakumeak, delitu bat egiten duenean, gizarteak esleitutako rola apurtu duelako zigor soziala pairatuko du. Alde batetik delituaren ekintzagatik berarengatik

(emakumeari dagokion rol pasiboa apurtu duelako), baina bestetik, kartzelara sartzeko garaian familiaren zaintzarekin jarraitu ezin duelako eta, beraz, berari egotzitako zaintzaile lana utzi eta mantendu ezin duelako. Hau da, delitu bat egikaritzea emakumearekin bateraezina dela pentsatzera garamatza gizarte patriarkalak, eta horrelako ekintza bat burutu duen emakumea anti-emakume bezala ikustera bultzatu. Ikuspegi horrek gainera, estigmatizazio bikoitz batera daramatza emakumeak, alde batetik delitugile bezala ikusiak direlako, eta bestetik emakume delitugiletzat ere jotzen dituelako.

> *Estigma, onarpen sozial osorako gaitasun gabetzea da. Aurkitzen duten estigma nagusia emakume izatea da, baina sozialki baztertuta bizitzeak, sakratutzat hartzen diren rolekin haustea dakar. Hau da, unibertso kolektiboan ez da barkatzen emakumeek ama, emazte, zein alaba gisa huts egitea. Modu bikoitzean zigortzen da emakumeak egoera horretara iristea.* (Goffman, 1998: 7)

Gizarteak esleitutako estigma hori hain da handia, familia zaintzaren ardura duten emakumeen kasuan

banaketa oso traumatikoa izaten dela, eta horrek zigor pertsonal bat gehituko die. Espetxetik kanpo haien identitatea zaintzaile rolaren inguruan eraiki duten horiek, beren emakume identitatean apurketa handia sufrituko dute. Seme-alaben edo pertsona nagusien zaintzarekin jarraitu ezin izateak auto-zigortze egoera oso gogor batera eramango ditu emakume asko.

Presondegiko zigorrari dagokionez, emakumeen kondenak betetzeko baldintzak, gizonezkoarenak baino gogorragoak izango dira kasu askotan. Espainiako Barne Ministerioak egindako ikerketa batean, emakume presoek sufritu behar zituzten bereizkeria egoera larrienak identifikatu zituen: dispertsioa, hirugarren gradua lortzeko zailtasunak, delitu kopuru txikiagoa egin arren emakumeek dituzten kondena handiagoak eta lana lortzeko zailtasunak (Espainiako Barne Ministerioa, 2008).

Dispertsioa arazo larria da presondegi sisteman: Espainiako Barne Ministerioaren 2008ko datuen arabera, emakume presoen % 56k soilik bete dezake kondena bere autonomia erkidegoko kartzela batean Estatu espainiarrean. Honek, beraz, eragin handia izaten du emakume horien familiarteko eta lagun harrema-

nak mantentzeko garaian. Oso kartzela gutxi daude emakumezkoentzat soilik direnak; Estatu espainiarrean Brieva (Avilan), Alcala de Guadaira (Sevilla), Madrid I eta Barcelona Dones daude. Horretaz gain, emakumeak gizonezkoen espetxeetan kokatutako modulu txiki batzuetan egon daitezke, eta makro-kartzela berrietako batzuetan emakumezkoentzat espetxe txikiak eraiki dituzte. Zehazki, Estatu espainiarrean dauden 80 espetxeetatik 46k har ditzakete emakumeak. Estatu frantsesean legalki emakumeak eta gizonezkoak elkartzeko erabateko debekua dagoenez, emakumezkoentzat soilik diren moduluak aipatzen dituzte Asanblada Nazionalak 2009an ateratako txosten batean. 194 espetxetatik 63tan soilik daude emakumeak. Baina ez dugu aurkitu emakumezkoak soilik dituen espetxe frantsesik.

Euskal preso politikoen kasuan, dispertsioa modu automatikoan ezartzen zaien zigor erantsia da eta horren ondorioz, Estatu frantses zein espainiarreko edozein kartzelatara bidaltzen dituzte presoak, etxetik gertu egoteko duten eskubideari muzin eginez. Batzuetan, epaituak izan gabe ere, urrundu izan dituzte haien sorterritik.

293 preso Estatu espainiarreko 44 espetxetan sakabanatuta:

39 emakume (horietatik 4 umearekin)

254 gizon

85 preso Estatu frantseseko 26 espetxetan sakabanatuta:

16 emakume

69 gizon

4 preso Euskal Herriko 3 espetxetan:

4 gizon

Preso 1 Portugaleko espetxe batean:

gizon 1

3 preso etxeko espetxeratzean, gaixotasun larriak direla eta:

emakume 1

2 gizon

(Etxerat elkarteak 2016ko apirilean kaleratutako datuak.)

1989az geroztik aplikatzen den zigorra da dispertsioarena. Garai hartara arte, preso guztiak hiru espetxetan bilduta zituzten (Carabanchelen emakumeak, Alcala Meco eta Herrera de la Manchan gizonezkoak). Garai hartan zituzten baldintza txarrak ahaztu gabe,

espetxean egondako zenbait emakumek berorietan bizi izandako elkartasuna eta babesgunea azpimarratu izan dituzte.

> *Egoera oso berezia bizi izan genuen. Gu espetxean sartu eta bi-hiru egunetara salbuespen egoera ezarri zuten, eta 17 izatetik ia 40 izatera pasatu ginen bi egunetan. Barne mailan hau guztia antolatu ahal izateko bi komuna egin genituen; bata komunistena eta bestea independentistena.* (PAULA)

Preso politikoen artean sortzen ziren babesgune horiek deuseztatzeko eta ustez erakunde armatuak espetxeetan zuen kontrola txikitzeko aplikatu zen dispertsioa. Preso politiko guztiei aplikatzen zaien arren, emakumeek pairatzen duten isolamendua handiagoa da, sakabanaketa ez baita soilik geografikoa. Kartzela barruan ere modulu ezberdinetan kokatu izan dituzte emakumeak (baita gizonezkoak ere), eta horrek are eta isolatuago egotera daramatza. Momentu hauetan hamar emakume bakarturik daude Estatu espainiarreko eta frantseseko kartzeletan:

> *Ez dakit zer gradu zeukaten... Hiru euskaldun egon ziren elkarrekin eta ez zuten beste inor*

ikusten. Sekula ez besteren bat, horren inguruan hitz egiten genuen beti. (JURDAN)

Jurdanek graduak aipatzen dituenez, horien inguruko azalpen txiki bat egiteko baliatuko dugu aukera. Hirugarren graduak zigorra espetxetik kanpo egiteko aukera ematen du (gauez lo egitera joaten dira batzuk espetxera, besteak asteburuetan kanpoan daude, beste batzuentzat kontrakoa...); “bergizarteratzeko” gradua litzateke hau. Emakumeek hori lortzeko zailtasunak izaten dituzte, irteerak kudeatu ahal izango dituen espetxe gutxiago baitaude, eta beraz, geografikoki haien eremuan kokatuta dagoen kartzelan geratu behar izaten dute baina hirugarren gradurako aukerarik gabe. EPPK-ko kideei ukatu egiten diete gradu horretan egotea. Beraiek lehen eta bigarren graduan egoten dira, eta lehena aukera murriztaileena da (zeldan ordu asko pasatu beharra, zenbait eskaintzatan ezin parte hartzea...). Bigarren gradua, gradu arrunta litzateke, preso gehienak barne hartzen dituena.

Lehen bi gradu horietan egon behar dute espetxeratu bezain laster FIES-3 erregimena ezartzen dietelako. FIESak, kontrol berezia pairatzen duten presoak dira. Ofizialki, bere izenak dioen moduan (Ficheros de Internos de Especial Seguimiento), presoen informa-

zioa biltzen duen karpeta bat litzateke FIESa, haren inguruko informazioa eta kartzela barruan sortzen diren taldeekin duen erlazioa jasotzen duena. Baina gaur egunean FIESak kartzela erregimen berezi bat dira bere horretan. Kontrol zorrotza eta murrizketa ugari pairatuko ditu presoak, duen FIES mailaren arabera-koa beti ere.

EPPK-ko kideak normalean FIES-3 izaten dira; talde armatuekin edo elementu terroristekin lotura izateagatik, edo talde horiekin elkarlanean aritu edo laguntzeagatik espetxeratutako presoak. Horrek murrizketa ezberdinak eragingo ditu lehenengo edo bigarren graduan egotearen arabera. Kartzela bakoitzak ere bere modura aplikatzen ditu murrizketa horiek. Baina laburbilduz, EPPK-ko kideei komunikazioetan eragingo die haien FIES izaerak. Horrek, dispertsio geografikoak sortzen duen isolamenduari, isolamendu komunikatiboa gehituko dio.

Espetxean emakumeek pairatzen dituzten ezberdintasunekin jarraituz, lan munduari eta formakuntzari begiratuko diogu jarraian. Lan mundurako sarrera edo horretarako prestakuntza jasotzeko aukera oso eskasa izaten da emakumeentzat. Kartzela barruan lan egiteko aukerei dagokienez, askotan emakumeak

gizonezkoek nahi ez dituzten lanak hartzera derrigortuak daude. Gizonezkoek lan horiei uko egiten diete gaizkien ordainduak edo gogorrenak direlako (Aguilera, 2009: 140). Batez ere kartzelari berari begira egindako zerbitzuetan egiten dute lan emakume presoek, % 74,7ak, eta horrek esan nahi du, gerora kartzelatik kanpo daudenean, lan merkatuan txertatzeko aukera gutxiago izango dituztela, ez baitute lan munduan prestatzeko aukerarik izan.

Aldi berean, formakuntza tailer gutxiagotan parte hartzeko aukera izaten dute. Parte hartzeko aukera daukatenean, tailer askok genero rolarekin harreman zuzena dute: josketa, ile-apaindegia, sukaldea... Beraz, kartzelan emakumeek burutu ditzaketen lan eta ikasketak (tailerren bidez eskaintzen direnak) emakumezkoaren rola birproduzitzeko, eta emakume presoak “berrezteko” erabiltzen dituzte. Hasieran aipatutako anti-emakumea, dagokion tokian jartzeko erabiltzen dute lan-mundua kartzelan.

Emakume preso guztiek espetxeak emakumeekiko hartzen duen jarrera pairatu behar izaten dute, kolektibo bateko partaideak direnek zein besteek.

Emakumeak beti azkenak ginen. Egutegian kirol denboren banaketa begiratzen zenuenean

konturatzen zinen normalean mutilek beti zeukatela gu baino hobeto eta gehiago; errespetuzko moduluak sortzen bazituzten gizonentzat, emakumeak zeuden tokira eramango zituzten eta gu modulu okerrago batera eraman. Hiru aldiz aldatu gintuzten moduluz eta azkenean txarrenarekin geratu behar. Gainera mutilak zeuden moduluan obrak egiten zituzten, patioa konpondu, paretaren bat bota... (ONINTZE)

Harreman afektibo sexualak kartzelan

> *Emozioak eta sentimenduak, batez ere bikotekideen arteko maitasunarekin eta amatasun erlazioekin zerikusia dutenak, patriarkatua gure eremu intimo eta pertsonalenetan sartzen dela seinale dira.*
>
> Estíbaliz de Miguel (2009: 11)

Gutxi aztertutako eremua da espetxea tarteko garatzen diren bikote harremanena, baina dauden lanek hurbilpen bat eskaintzen dute eta uste baino galdera gehiago erantzuten lagundu. Hala ere, azpimarratu nahi dugu, azterketa horietan guztietan, bikote heterosexualez mintzatu izan direla, eta beraz, eskura ditugun datu bakarrak bikote heterosexualenak direla.

Ikerlanaren garapenean, oinarrizko eta aldez aurreko galdera bat sortu zitzaigun: harremana espetxea tarteko bizitzera doazenek, beren buruari galdetzen al diote egoera horretan harremanarekin aurrera egin

nahi duten edo ez? Espetxeratzeak harremanean egoera berri bat ekartzen duenez, egoera horretan harremana mantentzearen edo puskatzearen inguruan hausnarketarik egiten ote dute? Gure elkarrizketatuen artean inork ez zuen horrelakorik inoiz planteatu. “Oztopo”, “zailtasun”, “jarraipen” edo “moldaketez” hitz egin zuten, “negoziazioez” batzuek, baina egoera horretan harremanarekin jarraitu nahi ote zuen ez zion inork bere buruari galdetu. Gerora, hausnarketa hori beharrezkotzat jo zuen batek baina gehiagok, baina momentuan, ez zuen inork egin.

> *Momentu bat ere ez da egon hori pentsatu dudanik. Agian burutik pasatzen zaizu, baina ez naiz planteatzera heldu. Erabat inplikatzeko prest nengoen hasierako momentuan. Edozertarako prest nintzen.* (IDURRE)

De Miguelek ikusi ahal izan zuen moduan, emakumeek egoera gogor horietan erlazioa uztea, “traiziotzat ikusten da” (bikotekide gizonaren edo inguru hurbilaren aldetik) (De Miguel, 2009: 15). Zubiko elkarteak egindako lanean, nolabaiteko “arau, akordio moral edo paktu ez-ahozko baten existentziaz” hitz egiten dute (Arostegi et al., 2008: 77). Paktu horren

arabera, emakumeak preso sartu berri denaren bikotekidea izateari uztea ez litzateke etikoa izango. Bikotekidea EPPK-ko kidea duten nesken kasuan ere, paktu ez-idatzi horren zantzuak topa daitezke. Egoera ezberdinak izan badaitezke ere, bada harremana espetxean zegoen pertsonarekin amaitu nahi izan duelako gaitzespenik jaso duenik.

> *Izatezko bikote paperak egitera zoazenean inork ez dizu galdetzen ea ondo pentsatu duzun hori egin aurretik. Denek normaltzat jotzen dute urrats hori ematea. Hori bai, harremana uzten duzun momentuan... kristo guztiak ematen dizu bere iritzia! Hein handi batean preso batekin zaudenean zure bikote harremana publiko bihurtzen da, haiek pertsonaia publikoak dira. Beraz zu ere jende askorentzat ezaguna zara, E.ren neska zara. Horregatik harremana uztean denek ematen dizute beraien iritzia, onera edo txarrera, baina ematen dizute. Paperak sinatu nituenean ordea, inork ez zidan ezer esan ba!* (ARGIÑE)

Kanpoan dauden gizonezko bikotekideen kasuan, ordea, ez da akordio hori existitzen, eta ulergarritzat

jotzen da harremana uztea. Kasu horietan, gainera, harremanarekin aurrera egitea erabakitzen duten gizonezkoak “heroitzat” jo izan dira emakume presoen artean. Emakumeen kasuan ematen ez den miresmena lortzen dute.

Azpimarratzekoa da presoen artean maitatua sentitzeak duen garrantzia. Estigmari, egoeraren gogortasunari, bakardadeari... aurre egiteko, kanpoan zu babesteko eta maitatzeko jendea dagoela jakitea garrantzitsua da. Bikote harremanek, beraz, kasu horietan indar handia hartuko dute eta askotan ilusioen erdigunean kokatuko dira.

OSPDHk egindako beste ikerketa bati esker, ohartu ziren kartzelatzearen ondorioak ez dituela soilik pertsona presoak bizi, eta zigorrak preso dagoen pertsonaren familiarengan ondorio larriak eragin ditzakeela. Baieztapen horrek espetxeratutakoaren senide eta lagunek bizi behar izaten zuten egoera berezia ikertzera eraman zituen (OSPDH: 2005). Familiaren barruan dagoen lanaren banaketak eta hierarkizazioak eragin izugarria dutela ikusi zuten:

> *“Familia” kontzeptuak egitura sozialen errealitatea ezkutatu du. Egitura horrek sexuaren bidezko lan banaketa eta zaintza eta erreproduk-*

zio lanak emakumezkoei egoztean oinarritzen da. Gizon eta emakumeen arteko lan banaketa horrek familietan ematen diren zaintza lan gehienak oraindik soilik emakumezkoek egiten dituztela ezkutatu du. (Ibidem: 10)

Beraz, kartzelaren ondorioa eta horrek eragingo duen lana ez da berdina izango kanpoan dagoen familiako kidea emakumea izan edo ez, eta ez da berdina izango ondorioa (eta laguntza-zaintza) jasoko duen presoa gizona izan edo ez.

Espetxeak senideei eta presoari berari sortzen dizkien arazoen artean, OSPDHk egindako banaketa aintzat hartuta, arazo komunikatiboez, psikologikoez eta familiarrez jardungo dugu.

ARAZO KOMUNIKATIBOAK

Presoak eta haien senitartekoak elkarrekin komunika daitezen presondegi-erregimenak eskaintzen dituen tresnak eskasak dira. Preso eta senitarteko ugarik salatzen dute “erlazio on bat eta haien bikotekideekin komunikazio on bat izateko espazio horiek

nahikoak” ez direla (Arostegi et al., 2008: 92). Baina zer eskaintzen du espetxeak?

Kartzelan, kanpoko jendearekin erlazionatzeko, deiak, gutunak, bisitak eta vis a vis-ak daude. Aurretik aipatutako FIES-3 erregimenak horien erabileran mugatzeak eta kontrolak eragingo ditu. Hala nola dei eta bisiten interbentzioa –grabaketa–, gutunen irakurketa, dei eta gutun kopuru txikiagoak... Etxerat-etik, “bakartze soziala” deitzen diote murrizketa horri, eta horrek “pertsona gisa garatu diren jatorrizko ingurune sozial eta kulturaletik bereizten” dituela uste dute (Etxerat, 2010).

Presoek bikotekiderik izatekotan, batez ere haiekin erabiliko dituzte baliabide horiek. Nolabait, maitasuna demostratzeko erabiltzen dute; zenbat eta dei edo gutun gehiago eskaini bikotekideari, maitasun handiagoa duten seinale. Beste batzuentzat “behar” bat da ahalik eta gehien komunikatzea bikotekidearekin.

> *Bost minutuko zortzi dei genituen astean eta sei gastatuko nituen berarekin. Ama deitzen nuen astean behin eta saiatzen nintzen lagunen bat deitzen, baina gainerako deiak M.rekin. Igandea baino lehen dei guztiak erabiltzen ni-*

tuen. Astelehenetan normalean bi dei egiten nituen jarraian. Nik kanpoan berarekin asko hitz egiten nuen telefonoz, eta bost minutu ez da ezer... Orduan, astelehenak jartzen genituen 10 minutukoak, eta astelehena opari bat zen niretzako. (IRANTZU)

Ikus ditzagun Estatu espainiarreko espetxeek eskaintzen dituzten baliabide hauek banan-banan:

Ahozko komunikazio arruntak

Presoaren –eta ondorioz haien senitarteko eta lagunen– komunikatzeko eskubidea, astean gutxienez 20 minutuko bi bisita dira. Kartzela gehienetan bisita bakarrean batzeko aukera ematen dute, gutxienez 40 minutuko bisitak lortuz. Aurretiaz, kanpotik bisitara doazenek, kartzelarainoko bidaiak egin behar izaten dituzte, eta kartzelan bertan, erregistroak pasatu behar izaten dituzte lagun edo senitartekoarekin kristal bat tartean dutela komunikatu ahal izateko. Bisitaren ordua eta eguna zehazteko, “ez dira bisitara doazenen beharrak kontuan hartzen” (OSPDH, 2005: 26).

Aurrez aurreko familiarrak
(vis a vis familiarrak)

Hilean behin, asko jota bi orduz luzatzen diren aurrez aurreko hauetan, gehienetan, familia bakoitzak bere gela “pribatua” izateko aukera du. Bisita horietan, familia gertukoena soilik sar daiteke, gurasoak, izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak (kartzelaren arabera), seme-alabak eta bikotekidea. Kartzela askotan, bikotetzat har ditzaten gutxienez izatezko bikote behar dute izan. Ikus daitekeen moduan, familiaren irakurketa zurruna egiten du kartzelak, eta ez presoaren, edo haren gertukoen beharrena.

Bisita horietara doazenak, batez ere emakumezkoak izaten dira.

> *Kulturalki emakumeei egotzitako genero rol bat bada, espetxeratutako pertsonaren laguntza, zaintza eta babesari dagokiona. Emakumeak dira (amak, bikoteak edo alabak) bisitez arduratzen direnak, itxaronaldiak jasaten dituztenak eta familiaren eta presoen arteko lotura mantentzen dutenak.* (De Miguel, 2008: 9).

Sarek eta Bilgune Feministak antolatutako “Emakumea eta kartzela” mahai-inguruan, bikotekidea eta anaia preso dituen Mila Jimenezek bisitak egiten dituzten pertsonen % 80a emakumeak izaten direla esan

zuen, eta “borroka honek gu gabe ezingo luke aurrera egin” azpimarratu zuen, ematen duten sostengu emozionalari balioa emanez. Galdera hau luzatu zien entzuleei: “Nork mantendu du borroka Euskal Herrian?”.

Senitartekoak presoen sostengu handia direla argi bazuen ere, beraiek ere babesa eta laguntza behar dutela azpimarratu zuen.

Aurrez aurreko intimoak (vis a vis intimoak)

Aurrekoak bezala, hilean behin eta gutxi gorabehera bi orduko iraupena dute aurrez aurreko hauek. Presoak eta haren bikotekideak erlazio sexualak izan ditzaten daude prestatuak. Ohe bat duen gela itxi batean burutzen dira. Presoak bikotekiderik izan ezean, bisita hori ez diote familiarekin egin ahal izan dezan aukerarik emango. Horrek, bestela ere frustrazioa eragiten duen gaiari berebiziko garrantzia ematera daramatza presoak, aurrez aurreko horiek “galtzeak” aukera galera bezala ikustera eraman baititzake.

Erlazio intimo edota sexual horiek egokiak izan daitezen arazo asko izaten dituzte bikoteek: denbora faltagatik; denboraren kontrol zorrotzagatik eta amaieran megafoniaz abisua emateagatik; aurrez aurrekoaren aukeraketa modu librean ez egiteagatik, eta

beraz gogoa dagoenean baino, ezarri den egunean eta orduan elkartu behar izateagatik; intimitate faltaren sentsazioagatik; besteek (funtzionarioek, beste presoek, lagunek, senideek...) aurrez aurrekoan burutuko den ekintza sexualaren berri izateagatik eta kontaktu intimoa burutzeko ingurune baldintza eskasengatik. Horrek, zailtasun ugari sortzen ditu eta bisita horietan harreman sexuala ez burutzeraino eraman ditu zenbait pertsona. Presioak, arautuegi egoteak... deseroso sentiarazi izan ditu zenbait elkarrizketatu hasierako aurrez aurrekoetan. Pixkanaka egoera horietara moldatzen joan ziren, baina hasiera batean, edo batzuetan baita handik aurrera ere, gogorrak ziren elkartze horiek.

> *Vis a vis-etan gogorra zen hara joatea eta gogo gabe txortan egitea... Ni gogoratzen naiz lehenengo vis a vis-ean txortan egin eta negar egin nuela. Emozionalki gauza asko mugitzen zaizkizu, kartzela bat da... Zuk badakizu hor dagoela bera, eta hau hileko momentua dela, bi ordutako kontrarreloj batean egin behar duzu nahi duzun dena...* (ARGIÑE)

Lehenengo vis intimoa izan nuenean, errespetu handiarekin baina prostituta bat sentitzen nintzen. Zenbaki bat eman ondoren gela batera sartzen zintuzten eta giltzez itxi. Zu gela txiki batean sartzen zinen mutila noiz etorriko zain... (LOREA)

Vis a vis horiek, ezberdinak izaten dira presoa gizona edo emakumea denean. Preso sozialekin burututako ikerketek erakusten dute, emakume preso gehienek aurretiazko bikotekidea galdu zutela espetxeratzearekin batera (Zubiko, De Miguel, OSPDH...). Preso politikoen kasuan ez dago hau baieztatu edo ezeztatu dezakeen daturik, baina hitzaldi ezberdinetan gaia atera denean, emakume asko vis a vis intimorik gabe daudela aipatu izan da. Honela dio Irati Tobarrek Herrira-k eta Bilgune Feministak Bilbon antolatutako hitzaldian:

Preso politikoen artean ere gertatzen da emakumeek kalean duten bikotekidea galtzea. Urte asko kartzelan daramatzaten gizonezko preso politikoek bikotekide emakumea mantentzen dute kasu askotan. Emakumea izaten dute bera zaintzeko kanpoan. Urte asko kartzelan dara-

matzaten emakumeen kasuan, aldiz, ez da hori gertatzen. Batzuetan bikotekidea kartzelan dutelako gertatzen da, baina, oro har, emakumearen kartzelaldiko prozesu osoa bizitzen duten bikotekide gizonak oso gutxi daude. IRATI TOBAR (Herrira, 2012)

Ikusi ahal izan dugun moduan, eztabaida, amets eta desoreka handienak sortzen dituen espazio eta unea da aurrez aurrekoena. Presoen kasuan kartzelan zeudela "ahazteko" balioa izaten du askotan. Vis a visetan, elkarrizketatu ugarik espetxetik ihes egiteko aukera izan zuten mentalki. Momentu hauetan, burua espetxetik kanpo ateratzen da, eta horregatik batzuei gogorra egiten zaie horiek amaitu eta espetxera bueltatu behar izatea. Beste batzuek aldiz "hilabeteko txutea" bezala definitzen dute.

Kanpotik datozen bikotekideen kasuan ordea, batzuetan, espetxean daudela gogorarazten die aurrez aurreko horrek. Erlazio sexualak izatea zaildu dezake baina, hala ere, egoera horiei aurre egitea lortzen dute askok eta aipatutako momentu "berezi" bilakatzen dira.

Vis a vis horiek, bikotekidearekin aurrez aurre egoteko aukera luzeena izanik, norberaren egoera pertso-

nalez eta beren sentimendu eta bizipenez hitz egiteko aukerarik “aproposena” izan daitezkeela pentsa daiteke, baina bisitan doazen emakumeentzat bestea “animatzeko” espazio bilakatzen da batez ere. Emakumeek joera izango dute kontrako egoeran dagoen pertsona okerrago dagoela pentsatzeko. Kartzelatuaren egoera haiena baino askoz esperientzia gogorragoa dela uste dute eta, beraz, ez dute beren arazoekin edo eguneroko zailtasunekin bikotekidea arduratu nahiko.

Aldiz, preso dagoena emakumea denean, kontrako pentsamoldea daukate, hau da, kanpoan dagoena haiek baina okerrago pasatzen egongo dela sentitzen dute. Emakumezko presoentzat, gizonek egiten dutena beti da nahikoa.

> *Zu barruan oztopo bat bezala sentitzen zara. Horrela pentsatu behar ez duzula badakizu baina... Bidaiengatik, paketeak,... kontziente zara asko jasotzen duzula eta ez duzula asko eskaintzen bueltan.* (IHINTZA)

Urtza Alkortak, Iruñeko “Emakumea eta kartzela” mahai-inguruan, emakume presoen artean “geratzea” erabakitzen duten gizonak jatortzat jo izan direla adierazi zuen. Emakumezkoen kasuan ordea, ez da “erre-

konozimendu” hori egingo, haien “naturan” eta aurretik aipatutako kontratuan agertzen baita harremanarekin jarraitu behar dutela.

Komunikazio idatzia (gutunak)

Normalean gutunak idazteko eta jasotzeko mugarik ez dagoen arren, gutxienez FIES-3 erregimenean dauden askori, astean bi gutun idazteko muga ezarri diete, eta gutun guztiak irakurri eta fotokopiatu izan dizkiete.

Gutunak oso tresna garrantzitsuak dira, egunerokotasunaren berri emateko espazio “lasaienak” bilakatzen baitira. Harremana garatzeko eta eusteko tresna garrantzitsu dira maitasun harremanak espetxea tarteko bizi behar dituztenentzat. Gutun asko idazten dituzte egoera horretan daudenek eta berorien bidez, bikotekideari egunerokotasunaren berri eman nahi izaten diote, maitasun gutun “politak” bidali, hausnarketa baten berri eman...

> *Gutun piloa bidaltzen genion elkarri. Gaur egun irakurtzen dituzu eta harritu egiten zara idatzi genuenaz. Etorkizunaz hitz egiten genuen, haurrak izateaz... horrelako gauzak!* (LOREA)

Erromantizismoak, kasu askotan, indar handia hartzen du emakume horientzat. Denek aurretiaz horrenbeste erabiltzen ez zuten hitz egiteko eta amesteko modua garatzen dute kartzelan. Batzuek, gerora gutunak berriro irakurrita (Lorearen kasua adibidez), harritu egiten dira erabiltzen zituzten hitz eta esaldiengatik. Erromantizismoak indarra hartu zuen kartzelan, bai bikotekide neskentzat, bai preso dauden neskentzat. Jokatzeko modu hori onartu egiten dute, joko arauetan sartzen dira, baina kapazak dira beren buruez barre egiteko. Ohartzen dira gertatzen denaz, hartzen duten paperaz, baina momentu batzuetan ezin dute ekidin jarrera hori hartzea. Espazioaren "hoztasunari" aurre egiteko goxotasunaren eta maitasunaren indartze bat bezala ikusten dute.

Komunikazio telefonikoak

Astean bost minutuko 10 dei egiteko aukera dute presoek, eta grabatuak izaten diren 8 dei FIES-3 erregimenean daudenek. Dei horiek soilik kartzelan dagoenak egin ditzake eta zerbitzu horren aldebakartasuna arazo bilakatzen da senitartekoentzat. Alde batetik urgentziazko gertakizunen bat ezin baitzaio komunikatu preso dagoenari (hark noiz deitu zain egon behar

dute) (OSPDH: 2005: 33) eta bestalde mugikorraren edo telefonoaren mendekotasuna handia bilakatzen da, presoak ere ordu konkretu batzuetan eta dagoen ilararen arabera soilik dei dezakeelako. Normalean, bikotekideek ia egunero jasotzen dute deiren bat. Deiak soilik barrukoak egin ditzakeenez, momentuan hartzen ez bada, berriro deitu arte itxaron behar izaten da. Horrek, eta eguneko ilusioetako bat izateak, batzuei mugikorrarekiko mendekotasun handia eragin izan die. Autonomia galera handia eragin diezaieke horrek, kalean eta lagunekin badaude ere, erlazio sozialak garatzeko garaian tokian egon bai, baina arreta mugikorrean izatera daramatzalako.

> *Nire egunerokotasunean berari buruz daukadana hori da [deiak]. Ilusioz hartzen ditut, orain ez daukat hain pendiente mobila baina lehen edozer egiteari uzten nion dei horren pendiente egoteko, mobilari begira egoteko, ea noiz jasoko nuen deia...* (IDURRE)

Presoaren egoera familiarekiko (gehiegizko kezka, babesa eta itxaropena)

Presoarentzat, familiarekiko duen galera handienetako bat berak kartzelatu aurretik zuen "rola galtzea izango da" (OSPDH: 105). Kasu horrek garrantzi berezia hartzen du ama diren presoentzat. Lehenago aipatu moduan, kartzelak emakume horiek duten sentsazioa indartu egiten du, "ama txar" direla behin eta berriz gogoraraziz.

> *Gurasoentzat heziketa, auto-kontrola, garapen morala... bezalako ikastaroak antolatzen dituzte (Wad-Ras kartzelako tailerrak dira, adibide moduan balio dutenak). Hori ez da gizonekin gertatzen, haientzat profesionalizaziorako tailerrak antolatzen baitituzte batez ere. [...] Horrela, emakume preso batentzat kartzelak eskaintzen duen aterabidea rol femeninoaren "bide ona" zein den irakastean datza: etxekoa, eremu pribatura mugatua; eta haren rol familiarra garatzeko izan duen kapazitate eskasa aurpegiratzen diote.* (Ibidem: 105)

Horrek eraman gaitzake ulertzera zergatik gertatzen diren emakume presoek dituzten erruduntasun sentsazioak (Arostegi et al., 2008: 69). Gehienetan, amatasun lanetan emakume preso horien amek laguntzen diete. Preso ugarik, haien amen laguntza aipatu izan dute seme-alaben zaintzarekin aurrera egin ahal izateko (Ibidem: 68).

Gizonezkoen kasuan ordea, orokorrean, ez da seme-alaben zaintza kezka moduan bizitzen, erabat ohikoa baita bikotekideak umeen kargu hartzea. Gainera, gizonezko horiek orokorrean “ez dute inolako kezkarik erakusten haien bikotekideek seme-alaben zaintza aurrera nola ateratzen duten jakiteko” (Arostegi et al., 2008: 57). Oro har ari gara beti, eta ez genituzke horren aurrean aitatasunaz kezka planteatzen duten ahotsak isilarazi nahi. Interesgarria da, Info7 Irratian Jon Mindegiaga preso ohiak eta Iñaki Gabilondo emakume preso politiko baten bikotekideak gaiaren inguruan izandako hizketaldia. Gizonezkoak gaiaren inguruan hitz egiten entzuten ditugun lehen aldia da, eta aurrerapauso bezala ikus genezake.

Presoen babes moduan, aurretiaz aipatu ditugun komunikazio tresnak erabiltzea oso garrantzitsua da, eta ikerketek erakusten dute, orokorrean, horien era-

bilera femeninoa izaten dela. Hau da, ama, ahizpa, bikotekide emakume... gehiago joaten dira bisitetara (OSPDH, 2005: 106). Beraz, gizonezko presoak emakume presoak baino bisita gehiago eta babes handiagoa izango ditu.

Askotan, haien bikotekidea kartzelan duten emakumeen kasuan, presoaren ama-papera hartzen dutela ikusi izan dute profesional eta ikertzaile ugarik (Arostegi, 2008: 78). Ama-neskalagun terminoa erabiltzen dute rol horri buruz hitz egiteko. Gizonezko presoek, noski, haien bikotekideek erabat babestuta dituztela sentitzen dute eta haientzat egonkortasun emozionalerako laguntza handia direla aipatzen dute.

> *Zailtasun egoeretan harreman horri garrantzi handiagoa ematen diozu. Funtzio gehiago eta oso ezberdinak ematen dizkiozu. Hor bikoteak egin behar duena ez da harreman normaletan egiten dena, hortik haratago doa.* (KOLDO)

> *Bikotekidea edozertarako helduleku bihurtzen da. Saiatzen nintzen nituen beharrizanak pixka bat dibertsifikatzen, baina azkenean askotan beragan amaitzen zuten.* (GOTZON)

Ikus dezakegunez, elkarrizketatu gizonezkoak ohartzen dira haien bikotekideek hartzen duten paperaz eta lanaz, eta horrek batzuengan eragin handia dauka, bestea egiten ari den “sakrifizioa” handiegia dela pentsatzen baitute. Haiek, toki horretan egonda nola jokatuko luketen zalantzan jartzen dute eta horrek kontraesan handiak eragiten dizkie; alde batetik beharrezkoak dituztelako lan horiek, eskertzen dituztelako, baina bestetik, beren bikotekideentzat gehiegizkoa dela uste baitute. Gizon gazteengan ikusi dugun zalantza hori errepikatzen ote den ikusi behar litzateke, baita aitatasunaren kasuarekin ikusi dugun moduan, badaude “normaltasunarekin” deseroso sentitzen diren gizonezkoak.

Emakume presoen kasuan, behin eta berriz errepikatu dugun moduan, haien babes emozionalerako garrantzitsua izan daitekeen bikotekidearen figura askotan galdu egiten dutenez, orokorrean, ez dituzte haien behar emozionalak beteta sentitzen. Inés Herrerok (2015) dioen bezala, gizonen, bikotekideen eta bisiten absentziak, esperimentazio eta desio lesbikoaren garapenerako espazio pribilegiatu bilakatzen du espetxea.

Emakumezko presoek “maitasun erromantikoaren mitoaren apurketa bat izan dutela” esateraino iritsi dira Zubiko elkarteko ikertzaileak (Arostegi et al., 2008: 197). Sufritutako abandonuak, haien buruaz eta erlazioez hausnartzera daramatzala adierazten dute.

Familiako errealitatearen irudikapena

Familiako kide presoak bizitzen dituen injustizien aurrean gertatzen den inpunitateak “frustrazio, desesperazio eta larritasun handia eragiten die senitartekoei” eta gehiegizko kezka horrek haien egunerokotasunean etengabeko presentzia hartzen du kasu askotan (OSPDH, 2005: 120).

Kasu batzuetan, egoera horrek “ni-aren gabezia” eragin izan du emakume bikotekideengan “harremanekiko mendekotasun” (Arostegi et al., 2008, 16) zantzu asko topatuz haien egoeretan. Zenbait pertsonari presoaren bikotekidearen estereotipoak asko eragiten die; triste, bikotekidearen zain eta berau zaintzen dagoen emakumezkoa bezala identifikatzen dute askok. Horrek, alde batetik, emakumezkoaren rol jakin bat bilatzera eta hori eskatzera darama jendea, baina bestalde, pertsona horren erdigunean presoa jartzera ere. Haien izaera propioa galdu, eta norbaiten bikotekide

bilakatzen dira. Gatazka ugari sortzen ditu egoera horretan harremanarekin aurrera egiten duten neskengan. Hasiera batean rol horiek beraien gain hartzen dituzte, estereotipoak haiengan duen eragina handia baita. Baina beste bide eta izaera batzuk garatu nahi izaten dituztenean oztopoak sentituko dituzte inguruko zenbait pertsonaren artean.

> *Ustez askatzailea den mugimendu batean, super lotuta egon behar zarela ematen du. Izan behar zara super zaintzaile, egon behar zara denetarako... ematen du ez dela kontuan hartzen zu zelan zauden. Gainera, ez daukazu askatasunik. Barrukoak eduki dezake eta egin dezake edozein gauza, baina kanpokoa luparekin kontrolatzen dute. Bere ama ez dute luparekin kontrolatzen eta bere bikotekidea bai.* (IRANTZU)

> *Egia esan ez zait gustatzen, Idurre da K. presoaren neskalaguna. Ez. Alde batetik, jendea topatzen duzu kalean eta jende guztiak egiten dizun lehenengo galdera: Zelan K.? Dena berari buruz, dena bere inguruan...* (IDURRE)

Esan dugun bezala, batzuetan neskek beraiek rol batzuk hartuko dituzte. Adibidez, kartzelak harremana “garatzeko” eskaintzen dituen baliabideez gain harremana elikatzeko zenbait estrategia garatuko dituzte. Batzuk bikotekidearen inguruan murgiltzen dira, haren lagunekin harremanak egiten dituzte, haren familiarekin harremana estutzen dute...

Argiñek, bikotekidearen gurasoak aurretiaz ezagutzen zituen arren, haiekiko harremana asko estutu zuen bere bikotekidearen espetxealdi garaian eta hasiera batean laguntza handikoa izan bazen ere, harremana utzi zuenean, familia ere beren bikote erlazioaren erdian sartua zegoela konturatu zen. “Ni”-a galdu zuela eta bestearen bizitzan gehiegi sartu zela iruditu zitzaion. Haren bikotekidearen amak egiten zituen Argiñeren bikotearen gestioak, eta horrek, bikotearen luzapen bat bezala bihurtzera eraman zuen. Egoera “ona” zenean ez zen arazorik egon, baina beren arteko harremana apurtu zuenean arazo bilakatu zen.

> *Bere gurasoei dena kontatzen zien, zelan sentitzen zen... Eta oso gaizki egon omen zen. Orduan bere gurasoak nirekin haserretu ziren. Bere gurasoekin harremana eten zen. Nik gogoratzen dut negar pilo bat egin zidala bere amak*

eta nik bere amari, bere aitak ez zidan hitz egiten, nik bere anaia baliatzen nuen bitartekari lana egiteko... (ARGIÑE)

Familia ugarik presoa gehiegi babestea bilatzen dute, batzuek presoa kezkatu dezakeen inolako informaziorik ez emateraino (OSPDH, 2005: 121). Kasu horietan ere, kanpoan dauden emakumeek kezka horien zama bikoitza eramatera derrigortuta ikusten dute beren burua. Beren kezkak edo arazoak konpontzeaz gain, bikotekideenak ere konpontzera jo behar izaten dute.

Espetxealdia hasten den momentuan, pena eta beldurra bezalako emozioak nagusitzen dira kanpoan dauden senideen artean, baina "aurrera egiteko" indarra hartzen saiatzen direla adierazten dute. Horrek, kartzelako dinamikara egokitzera daramatza bikotekideak: espetxeak nola funtzionatzen duen, zeintzuk diren egin beharreko lanak... berehala ezagutzen hasten dira. Askok, hasierako momentu horietan (eta batzuetan luzatu egiten da egoera), presoa "ondo" egon dadin saiatzen dira, berari animoak emanez, sentimendu positiboak transmititzen saiatuz... nahiz eta gero, espetxetik ateratzerakoan, lur jota gelditzen diren.

Presoari lasaitasuna, ongi zaudela, animoso zaudela, indartsu... transmititu behar diozu. Eta hortik atera eta negarrez egon izan naiz, bajoia-rekin... (LOREA)

Gehiegizko babes horrek ez du soilik informazioa ezkutatzea ekarriko; presoaren ongizateagatik edozer egitera eramango ditu senideak, hala nola preso batek eragiten duen zaintza lan guztia inolako zalantzarik gabe hartzera. Normalean, presoak bikotekide emakumea badu, haren gain geratuko da ardura hori guztia. Askotan berak hartuko du "guztia" antolatzeko ardura, eta lagunek presoa bisitatu ahal izateko NANak jasoko ditu, sei hilero hamar lagunen zerrenda antolatu beharko du, asteburu oroko bisitak zehazteko kartzelara deituko du... Batzuek, hala "nahi dutelako", dena antolatzearen ardura hartzen dute.

Amak utzi zuen dena nire gain. Nik lotzen nuen dena, erabakiak nik hartzen nituen... (LOREA)

Dena den, badago lan horiek zama bilakatu zaizkionik ere. Lagunen eta beste senideen artean banatu ahal izan dute batzuek, baina beste batzuetan, presoaren bikotekideak lan horiek bere gain hartu nahi ez izatea traiziotzat hauteman izan da.

Bere amak esaten zidan: Zuk bere andreak eta nik bere amak ez baldin badugu laguntzen, nork lagunduko du ba? (IDURRE)

OSPDHren ikerketak adierazi moduan, presoen senide eta gertukoek ere kartzelaren eraginak sufritzen dituzte, besteak beste egoera berri eta gogor horretara berehala egokitu behar direlako. Nork zaintzen ditu zaintzaileak?

Kartzelatzea amaitzean egoera guztiei aurre egitea "askoz errazagoa" izango dela pentsatzen da gehiegitan, bai senideen bai presoen aldetik, eta gehiegizko itxaropenak jartzen dituzte momentu horretan. Baina presoa espetxetik ateratzen hasten denean (baimenekin edo behin betiko) harreman askoren amaiera gertatu ohi da (Arostegi et al., 2008: 77). Preso zegoena jada preso ez egoteak, lehendik zegoen "betebehar moral" horren amaiera dakar, eta hori harremana amaitzeko gakoen artean egon daiteke.

Horrez gain, eta gehiegizko babesarekin lotuta, askok izan ditzaketen zalantza edo gatazkak "gerorako" uzten dituzte. Bikotekidearekin lasaiago egongo diren momentua itxaroten dute beldurrak, aldaketak... planteatzeko. Itxaroteak, ordea, arazoa handitzea eragin dezake.

Zuk adibidez gaur gatazkaren bat baduzu, zure bikotekidearekin egon zaitezke goizeko ordu biak arte hitz egiten eta ondo konpontzen da. Baina espetxean arazo txiki baten eztabaida asko luzatu daiteke. Zeren bost minutuko deiarekin... Ezin duzu nahi duzun guztia esan eta gero vis a vis-etara zoaz. Baina hilean behin ikusten duzunez ez zara hasiko eztabaidatzen, ez? Gauzak konpontzeko prozesu hori ez da egokia, orduan nik konfliktoak saihesten nituen. (ARGIÑE)

Afektibitatea eta sexualitatea

Afektibitatearen eta sexualitatearen kontrolak eta baldintzatzeak gatazka handiak sortzen dizkiete harremana modu horretan garatu behar duten pertsonei. Egoera horiei aurre egiteko "momentu onen oroitzapenei" (Arostegi et al., 2008: 79) heltzen diete haien bikotekidea preso duten emakumeek zein presoek beraiek. Iraganari begira egoten dira askotan, harremana bertan kokatzen dute eta berori idealizatzera heltzen dira, inoiz izandako gatazkak, desadostasunak... alde batera utziz.

Azkenean badakizu epe laburreko oztopo bat dela bidean, eta hori pasatuko dela. Orain gaizki pasatuko dugu baina helduko da momentua berdin jarraituko duela, lehengo moduan, ez? (JURDAN)

Ametsek eta etorkizuneko irudikapenek ere paper handia hartzen dute harremanaren garapenean, eta harremana elikatzen saiatzen dira kartzelako egoera "amaitzean" egingo dutenaren irudikapen horrekin.

Iraganean eta etorkizunean heldulekuak bilatzea izan da askorentzat harremana garatzeak zuen ezintasunari aurre egiteko modua. Hala ere, badira egoera hori beren egunerokotasunean kokatzeko hautua egiten dutenak eta harremana "jarraipen" bezala ikusten dute. Haientzat, etorkizuna bizitzea garrantzitsua den arren, harremana egunerokotasunean kokatzea beharrezkoa da. Kartzelan, harremana bizitzeko hiru denbora daude: iragana, oraina eta etorkizuna. Baina ez dira denbora aukeraketa itxiak, eta aldatzen joan daitezke. Ametsek lehenaldian, edo orainean ere, eragina daukate. Iraganak ere presentzia dauka orainean. Hala ere, baliagarria izan daiteke harremana bera ulertzeko modu horiek kontuan hartzea, gerora, harre-

manaren beraren garapenean nolako garrantzia duten ikusi ahal izateko.

Ametsek, idealizazioak... garrantzi handia hartzen dute bikote harremana garatu nahi dutenen artean. Aldez aurretik gutunetan ematen zen erromantizismorako joerarekin ikusi dugun moduan, batzuk jabetzen dira joko horretan sartu direla, baina espetxearen iluntasunari aurre egiteko oso baliagarria zaiela aipatzen dute.

> *Nire kasuan positiboa izan da idealizatze hori. Nik adibidez ez ditut harremanak idealizatzen, baina espetxean bai. Dena arrosa zen. Momentu horretan nik uste dut autodefentsa dela.* (IHINTZA)

Hala ere, ametsen kontu horrekin, batzuek ez zuten haien pentsamenduen edo zoriontasunaren giltza bertan kokatu nahi. Amestea beharrezkoa dela diote, baina saiatzen dira gauza “errealekin” amesten, edo egunerokoan egin ditzaketen gauza “txikiei” garrantzia bera ematen.

> *Nik uste dut beharrezkoa dela idealizazioa. Ezinezkoa da zure momentuko bizitza bakarrik imajinatzea: lau paretaren artean gertatzen*

dena. Baina zerbaitetan indarra jarri behar baduzu eta elikatu behar baduzu zure harremana, izan dadila idatziko diozun gutunean, edo egin zenuten vis a vis-ean... Nahiago dut hori zin egiten ibiltzea baino: zoriontsuak izango gara hemendik ateratzean. Ez, izan gaitezen zoriontsu orain eta baita etorkizunean ere, ezta? (ALAITZ)

Amesteko bi modu dira, batzuena "errealagoa" dela esan dezakegu, eguneroko gauza txikietan zentratuagoa, eta besteena "onirikoagoa". Baina harremanaren denborarekin (iragana, oraina edo etorkizuna) gertatu bezala, hemen ere alde batetik bestera salto egitea posible da. Gainera, hori izaten da modurik arruntena presoen artean: biak uztartzea. Hala ere agerikoa da batzuek amesteko baliabideak egunerokotasunean aurkitzen dituztela eta besteek kanpokoak behar dituztela amets egiteko. *Barrura begiratzeko leihoak* (2012) dokumentalean, gai horren inguruan ideia interesgarriak planteatzen dituen eszena oso berezi eta intimoa dago. Etxeko sukaldean Maika eta Jon ageri dira. Jon urte luzez egon da espetxean eta Maika hasieratik haren alboan egon da. Jonen bizitzaren eta egoeraren berri ematen badu ere, Maikaren indar eta istorioak pisu handia hartzen du dokumentalaren zati

horretan. Jonek, espetxean ametsak zein garrantzitsuak diren esaten hasten du berari buruzko erreportaje zatia. Aipatutako elkarrizketan ideia hori mahai gainean jartzen du Jonek eta horrelaxe erantzuten dio Maikak:

> JON: *Orduan gure artekoa –nik behintzat, e?– pixka bat idealizatuta edukiko ninan, bai hi, bai hi eta Urtziren harreman hasierakoa, gero bizkiekin beste horrenbeste, ba emozio horiek, sentimendu horiek barnean... beste intentsitate bat diten, premia nola daukanan eta hango bortizkeria gestionatzeko, kudeatzeko, ba... ostras hi, sobredimentsionatu egiten ditun positiboak. Porke hik idealizaziorik ez dun...*
>
> MAIKA: *Ez.*
>
> JON: *Eskape bat, esaten dena; beti horra joaten hintzena...*
>
> MAIKA: *Ez ez. Denborarik ez, klaro: goizean jaiki, umeak bideratu, haurtzaindegian, batzuk ikastolan, eta ni lanera, klaro, nik lan egin izan diat Arrasaten, Bergaran, Donostian... mugitu egin behar eta orduan ba bueno... horixe bukatzen duk, gero gauean etxeko lanak, eta laba-*

dorak, eta... orduan horixe, denborarik ez hirekin amesteko, eta holako ametsak egiteko.

Zerekin amesten dute kanpoan diren bikotekideek? Zeri heltzen diote egoera horretan harremana garatzeko? Ametsei eta ilusioei heltzen diete, baina agian ez horrenbesteko indarrarekin. Hasierako momentuetan erromantizismoak gora egiten duenean bertara helduta daude, baina pixkanaka egoera berrira ohitu eta bestelako neurriak bilatuko dituzte. Harremanarekin jarraitzea erabaki duten emakumeak kontziente dira behar eta nahi luketen adina ez dutela jasotzen eta beste modu batzuetan bilatzen hasten dira.

Badakit baldintzak zeintzuk diren, badakit harreman batean beharko nuena ez didala ematen guztiz, baina... Iruditzen zait ez dela nire bizitzako aspektu bakarra. Orduan badakit beste aspektu batzuetara jo behar dudala. (IDURRE)

Bikotekidea preso izateak, aipatu ditugun lanak ondo banatuta izanez gero, norbere buruarekin inoiz baino denbora gehiago egoteko aukera eman izan die elkarrizketatutako lagunei. Batzuentzat haien buruekin “berriro topatzeko” aukera eman izan die, espazio propioak berrartzeko. Horrek, harremanean mesede

egiten duela uste dute askok, teorian denek nahi lituzketen norberaren espazioak eta espazio komunak berriz ezartzeko balio baitu.

Afektibitatean ikusi dugun moduan, sexualitatean ere nahasmen ugari ematen dira espetxearen egituraketagatik. Sexualitatea, “kasurik onenean, planifikatuta eta gogor baldintzatuta egotera pasatzen da” (OSPDH, 2005: 132). Ikusi dugun moduan sexualitatearen garapena vis a vis intimoetara mugatzen du espetxeak, eta askotan, presoek beraiek, horretara bakarrik mugatzen dute beren esperientzia sexuala. Beren bikotekidea preso duten emakumeen kasuan, ikusia dugu aurrez aurrekoen espazioa zaila eta hotza izan daitekeela hasierako momentuetan, baina gerora pixkanaka ohitzen joaten dira gehienak.

Presoen kasuan, espetxeak eragiten duen gorputzekiko kontrol zorrotzegia dela medio, zaila izaten da haien gorputzekin erlazionatzeko espazio intimoak bilatzea (masturbatzeko momentuak aurkitzea, adibidez). Are zailagoa da preso gehienak bikoiztuta (zelda bakoitzean binaka) baitaude. Preso batzuk tarteak bilatzen ahalegintzen dira, komunetan, bakarrik egoteko aukera dutenean... Emakumezko presoak beste presoekin afektibitate eta kontaktu hori bilatzen saia-

tzen dira, besarkaden, masajeen, musuen, eta abarren bidez. Hau da, sexualitatearen eta afektibitatearen mugak bikote harremanetik ateratzea lortzen dute askok.

Egoera horri aurre egiten dionik badagoen arren, orokorrean, emakumeek (presoek zein bikotekide ez-presoek) ez dute lehentasun moduan ikusten sexualitatea. Ez diote garrantzirik ematen eta kasu batzuetan sexua errefusatzera heldu dira batzuk (Arostegi et al., 2008: 204). Autodefentsatzat jo genezake erantzun hori, emakumeak gizonen plazererako ganadu bezala erabiltzen dituztela sentitzean emozio negatiboak sortzen baitzaizkie sexuarekiko. Gizonezkoentzat plazer iturri bai, baina emakumeen beraien kasuan kartzelak "emakumezkoaren sexualitatea ikusezin bihurtu, ezeztatu eta ezkutatzen duela" uste dute (Ibidem: 229).

BIKOTE HARREMANEAN SOR DAITEZKEEN ARAZOAK (ARAZO SOZIO-FAMILIARRAK)

Bikote harreman batek modu "egokian" garatzeko dituen zailtasunak behin eta berriz errepikatu ditugu:

komunikaziorako espazio eta momentu eskasak, afektiboki elikatzeko aukera apurrak, aurrez aurrekoen kontrol zorrotza... Horrek guztiak harremanak aurrera ateratzeko zailtasunak besterik ez ditu ekartzen, eta "ez da harritzekoa bikote harreman ugarik egoera horretan jarraitu ezin izatea eta bertan behera uztea" (OSPDH, 2005: 145). Gizonezko espetxeratuen kasuan, egoera hori "aurreikusiz", batzuek beren bikotekidea uzteko erabakia hartzen dute kartzelara sartzean (Arostegi et al., 2008: 93). Erabaki hori gizonezkoek hartzen dute, emakumearekin eztabaidatu gabe. Besteari gehien komeni zaiona harremana jarraitzea den edo ez beraiek erabakitzen dute, hau da, emakumezkoarentzat hoberena zer den gizonak erabakitzen du. Preso dagoen pertsonak bere burua zamatzat jotzen du, edo bestearen egoeran egongo balitz egoera zaila egingo litzaiokeela uste du. Horregatik aurre hartzen diote kanpoan dagoen bikotekideak pentsatu edo senti dezakeenari. Egoera horretan, bikotekideak egiten zuen guztia ikusita, eta mutilen begietan egiten zituen "sakrifizioak" ikusita, zenbait kasutan, bai elkarrizketatutako mutilek bai elkarrizketatutako bikotekide neskek kontatu digutenez, "askatasun osoa" ematen zieten mutilek, neskek beste pertsona batzuekin

harreman sexualak (eta kasu batzuetan afektiboak ere) izan zitzaten. Zenbait kasutan, badirudi nolabaiteko baimena ematen dietela mutilek neskei nahi dutena egiteko. Kasu gehienetan ordea, neskek, “berek nahi zutenean egingo zutela” erantzuten zieten, eta erabaki hori “berena” zela.

> *Niretzat obsesio bat zen. Iruditzen zitzaidan ez zela sanoa, elizaren dogmak jarraitzen genituela sentitzen nuen! Erromantizismoaren eta harremana bizi osorako mantentzea posible izatearen ideiak eta gainera elkar ukitu gabe! Hori ez da normala. Eta berak hasieran arrazoia ematen, baina gero, berak esaten zidan: hori nik esango dut, ez zuk (harreman irekiak izatearen aukera).* (KOLDO)

Azpimarratzekoa den beste ondorio bat, kalean dagoen emakumezkoaren egunerokotasunaren erotiko aldaketa da. Espetxeko egutegira egokitzeaz gain, beren egunerokotasuna, beren lagun harremanak eta bizitza soziala murriztera heldu dira emakume asko. Besteak beste, egunerokotasunak eskaintzen dizkien alde onak modu positiboan bizitzeari uzten diote askok. Hori, “maitasun erromantikoaren irudikapena-

rengatik egiten dute, posesioan eta mendekotasun emozionalean oinarritzen baita. Erlazioak paper pasibo eta mendekoan bizitzeko heziak izan dira emakumeak” (OSPDH, 2005: 146). Beraz, gizonen falta dutenez, ezin dute pozik bizi, beren poztasunetik bizi behar baitute. Aurretiaz aipatu dugun moduan, emakume horietatik gehienek gizonezkoaren egoera berea baina okerragoa dela sentitzen dute, eta beraz, haien egunerokotasuna “penitentzia” moduan bizi dute bikotekidea aske izan arte. Katolizismotik jaso dugun “sufrimenduaren” eta “penaren” ikusmoldea argi eta garbi ageri zaigu hemen. Presoa animatu eta babestu behar dela sinetsita daude bikotekide asko hasieran. Horrek, haiek ere “espetxe txiki” batean sartu izan ditu.

> *Espetxean zegoen garaian segitu nuen guztiz inplikatzen, neure burua alde batera uzten, neure burua ez baloratzen, neuretzat denborarik ez hartzen, bera, bera eta bera. Azkenean ni ere sartu nintzen espetxe txiki batean. Alde batetik bai uste dut espetxeak bultzatzen zaituela egoera horretara, baina beste alde batetik, neuk ere erru puntu bat eduki nuen eta bueno,*

heldu zen momentu bat krak egin nuela eta esan nuen: ezin du horrela jarraitu. (IDURRE)

Hala ere, aipatzekoa da emakume askok egoera horietaz ohartzeko aukera dutela, bai inguruan dituzten beste emakume batzuei esker, bai mugimendu feministarekin izan duten harremanari esker. Gainera, espetxeratzearekin bizi behar izaten dituzten egoera guztiei aurre egiteko duten "indarraz" jabetzen dira. Askok ez zuten potentzial hori ezagutzen eta bikotekidearen espetxeratzeak dauzkan alde on eta gustukoak berreskuratzea eta autoestimua indartzea ekarri izan die (Arostegi et al., 2008: 197).

LABURBILDUZ

Ikusi dugun moduan maitasuna garrantzitsua da presoentzat espetxeari aurre egiteko. Kanpoko babesa izateak lagundu egiten du espetxearen egunerokoan integratzeko eta bertan ahalik eta hoberen bizitzeko. De Miguelek dioen moduan, maitasuna garrantzitsua da itxialdian bizirauteko eta estigmaren ondorio kaltegarriak desegiteko.

Baina ikusi dugun moduan, maitasun hori jasotzea ezberdina izango da presoa gizona edo emakumea bada, eta maitasuna eskaintzea ere horren arabera aldatuko da. Gizonezko presoek “gehiegizko” maitasuna eta zaintza lanak jasotzen dituzte, lan horiek egiten dituzten emakumeek askotan kartzelara soilik bideratzen baitute beren kanpoko eguneroko bizitza. Emakume presoen kasuan ordea, espetxeratutakoan abandonatu egiten dituzte askotan.

Presoez gain, haien senitartekoei, eta batez ere bikotekide emakumeari eta amari eragiten die kartzelaldiak, eta “eragin negatibo horiek, presoak soilik pairatzen ez dituela onartu behar lukete gizarteak eta Estatuak” (Arostegi et al., 2008: 166). Horretaz gain, preso dagoen pertsonaren zaintza lanak zama handia eragin lezake emakume horien bizitzetan.

Espetxe garaian, mendebaldeko maitasun ereduak indartu egiten direla esan dezakegu. Alde batetik aurretiazko bikote harremanean ez zeuden zaintza lanak agertu egiten direlako kartzelan. Lan horiek, emakumezko bikotekideen bizitzaren erdigunean kokatzen dira eta horiek konpartitzeko ahaleginak dauden arren, askotan, pisu gehiena haien gain geratzen dela ikusi ahal izan dugu. Banatzekotan, amaren eta

neska bikotekidearen artean banatuko dira. Hau da, emakumezkoen artean banatzen dira lan horiek nagusiki. Aipagarria da hala ere bikotekidea espetxean duten mutilek lan horiek betetzen dituztela (modu “orekatuago” batean hala ere). Kasu horietan, zaintza lanez egiten diren hainbat banaketa azpimarratu beharra dago, beste hainbat egoeratarako eredugarriak izan daitezkeelako (lagunek, herritarrek, gurasoek zein bikotekideek lanak haien artean banatzeaz ari gara batez ere). Bestalde, preso dauden pertsonentzat, bikote harremanak ilusioen eta indarren erdigunean kokatzen dira. Ametsen erdigunean bikote planak sartzen dituzte. Batzuek kideekin izan ditzaketen laguntasun harremanak garrantzi handikoak izan arren, orokorrean bikotea bilakatzen da ametsen erdigune. Etorkizunean, beraz, bikote harremana irudikatzen dute.

Presoaren eta haren bikotekidearen estereotipo konkretuak sortuak daude, eta horiek betearazten saiatzen dira, bai elkarrizketatuak beren kabuz, edo inguruko jendearen nolabaiteko “presioaz”. Presoaren bikotekidea triste eta “itxaroten” dagoen neska zaintzaile bezala irudikatzen jarraitzen dugu eta horrek konfrontazioak eragiten ditu. Adibidez, harremana es-

petxean dagoen pertsonarekin etetea erabakitzen duen neskari eragiten zaion presioa ikusi ahal izan dugu. Horrek ere gizonezko preso ohiei eragin izan die, batez ere, kanpoan daudenean jada “dena pasatu dela” pentsatzen baitu jendeak, eta gaizki egotea ez zaie “onartzen”. Presoaren irudi indartsu eta borrokalariarekin du zerikusia horrek, eta hori betetzen ez denean preso ohiak berak kezkatuta biziko ditu tristezia eta egonezin sentimenduak.

Bikotekideetako bat espetxeratzen duten unean harremana “publiko” bilakatzen da. Hau da, aurretiaz elkar ezagutzen ez bazuten, bikotekideak eta familiak elkar ezagutuko dute, eta “herrian” ere ezagun egingo da harremana. Bikotekideari babes sare horietan txertatuta egotea eragiten dio horrek eta hemen, laguntza eta laguntasuna eskainiko zaizkio. Baina batzuetan “gehiegizko” konfiantzak, edo presoaren figura erdigunean kokatzeak, emakumearen izaera propioa “ezabatu” egiten duela sentitu dute zenbaitzuek. “Ni” izateari utzi eta “presoaren bikotekide” izatera pasatu direla sumatu dute denek, eta ez dute gustuko.

Amaitzeko, azpimarratu nahi genuke hori guztia analizatzeko eta ikusteko kapazak direla gurekin egondako emakume guztiak, baita gizon batzuk ere.

Ohartzen dira inguruan dutenaz eta eraldatzen ahalegintzen ari dira. Haien arteko sareak sortzen dituzte, adibidez haien bikotekidea preso dagoen nesken artean elkartzea. Honelako egoerez eta bestelakoez hausnartzeko aukera izaten dute berdinen arteko sare horietan. Askotan ulermen eta babes handiagoa topatu izan dute emakume horien eskutik inguruko beste inorengandik baino. Horretaz gain, haiei gertatzen zaienaz publikoki gehiago hitz egin behar dela uste dute.

> *Ez da ezagutzen eta ezagutu behar litzateke. Aurreko udan bere bikotekidea ere espetxean zegoen lagun batekin hizketan, ohartu ginen berak berea kontatzen eta nik nirea, puntu berera iristen ginela. Eta noiz arte? Adierazi behar dugu eta jakinarazi besteei zer den, ez? Zer sentitzen den eta nola den, ez?* (LOREA)

Lan hau egoera horren zabalpenean baliabide txiki bat izan dadin saiatu gara. Baina oraindik asko dago kontatzeko, aztertzeko eta sendatzeko. Presoen kolektiboak eta haien senideenak duten aniztasun horretan guztian, lagin txiki bat da hemen ikusi ahal izan dugu-

na. Beste hamaika adibide egongo dira, kontatuak eta entzunak izateko moduan daudenak.

Dena bukatu delako ameskeria

Zuriñe Rodriguez Lara
Oihana Etxebarrieta Legrand

Gatazkan bizi gara eta gatazketako bat bukatu berri da gure herrian: gatazka armatua. Orain, *bakea* eraiki beharra dago, baina argi ikusi dugu bakearen gaineko uste edo ikuspegi ezberdinak ditugula eta, beraz, gatazkaren konponbidea eta bakearen negoziazioa ere modu ezberdinean ulertzeko arriskua dagoela. Gatazka armatuan bizi den herriak etengabe amesten du bakearekin, eta emakume edo gorputz disidenteoi onura gutxi edo are batere onurarik ekarriko ez digun ameskeria sortzen du burutapen horrek gatazkaren amaierari dagokionez. Gatazka ezberdin bizi bada gizon edo emakume izan, zentzuzkoa da pentsatzea bakea ere ezberdina gerta daitekeela gizon edo emakume izanda.

Gatazka armatu eta politikoa etengabe egon da borrokarako gorputzak eskatzen, eta, gorputz ez-hegemonikoak egunerokotasun politikora sartzeko aukera ireki da eskaera horretan; are gehiago, sartu egin

dira. Gatazka armatua duten herrietan, aipatu eskarien ondorioz, emakumeek botere kotak konkistatzen dituzte eta espazio publikoa okupatu, bakean dauden gizarteetan baino neurri handiagoan. Euskal Herrian ere horixe gertatu da.

Gatazka armatua amaitzen denean, ordea, gorputz horiek ez dira hain beharrezkoak izaten, eta kanpoan egon diren haiek aurretik zuten espazioa/estatusa hartu nahi izango dute. Gatazkan buru izan diren gorputz hegemonikoak –orokorrean gizonak– ez dira lidergotik hain erraz aldenduko *bake garaian*. Bakearen eraikuntza, kontuan hartzen ez gaituen bake horren eraikuntza alegia, egoera *natural* eta harmonikorako itzulera da, normaltasunaren negoziazioa. Eta jakin badakigu normaltasunak ez digula inolako onurarik ekartzen geure burua bere bazterretan eraikitzen dugunoi. Sistema patriarkaletan, egoera harmonikoak ez die ez botererik ez espaziorik ekartzen emakumeei. Gure gorputzek borrokarako baliagarri izateari utzi diote, jada ez dagoelako borrokarik; beraz, tokiren bat bilatu beharko zaie bakean balio dezaten.

Gatazka armatuaren amaieraren kudeaketa integrala eta zeharkakoa egin ezean, hots, bakearen kon-

tzeptualizazioa indarkeria armatuaren amaieratik harago eramanez egiten ez bada, rolak berriro ere tradizional bihurtzeko prozesuak gerta daitezke, generoetako bakoitza dagokion toki sozialean birkokatzeko prozesuan: gizonak espazio publikoan eta emakumeak pribatuan. Gizarte baketsu berri hori askoz ere kontserbadoreagoa izateko arriskua dago, eta, beraz, emakumeek etxeratze prozesuak pairatzeko arrisku handiak sortzen dira. Emakumeek, bada, eskuratutako botere sinboliko eta errealaren zati bat galdu ahal izango dute, eta gizonek, bitartean, unibertsala den hori definitzeko pribilegioari eusten jarraituko dute. Irlandako gizartean ikus dezakegu prozesu horren adibidea; Euskal Herrian ere gerta daitekeena. Bake akordioak sinatu zirenetik hamabost urte baino gehiago igarota, IRAkoak izan ziren emakume asko, egun, bizitza politiko-instituzionaletik kanpo daude, eta familiako bizitzari erabat emanda. Espazio publikotik bota dituzte ala emakume horien erabaki kontzientea izan da? Bota egin badituzte, horren zergatia jakiteaz gain, nork bota dituen hauteman beharko da, nork ez dien botereari eta espazioari eusten utzi. Euskal Herrian nork ekarriko ditu emakumeen etxeratze prozesuak? *Full-time*ko gizon publiko militanteek akaso?

Euskal Herrian ispilu erabilera eman diezaiokegun kasu bat dugu. Espainiako Gobernuak 1977an dekretatu zuen amnistiak, besteren artean, Estatu frantsesean ihes eginda zeuden emakume batzuk etxera itzultzea ekarri zuen. Etxerako itzulera hori ez zen sinbolikoa bakarrik izan, benetakoa izan baitzen. Emakume horiek etxera itzultzea ekarri zuen, familiaren etxera itzultzea kasu askotan, eta, horrekin, autonomia eta botere kotak galdu zituzten. Euskal Herrira itzultzea eta herriarekin berriz batzea ekarri zien amnistiak gizonei; emakumeentzat, ordea, atzean utzitako Espainia frankistara itzultzea izan zen, hau da, familiaren etxera, espazio pribatura eta etxekotzeko betebeharrera itzultzea.

> *Donostiatik ordubetera bizi nintzen, baina Ameriketara itzultzea bezala zen. Agurra lazgarria izan zen; nire bizitzari, nintzen hari agur esatea izan zen, eta etxera itzultzea. Leku itxi eta atzeratu horretara itzultzea, debekura itzultzea. Gogorra izan zen. Aitak ontziak garbitzea eta janaria prestatzea nahi zuen. Zeinek eta nik, ezkongabeen pisu batean nahi nuen guztia egiten bizi izandako honek. Izugarria izan zen.* (Poti)

Gatazkaren amaierarekin dena bukatu delako ameskeriaren ondorioz gertatzen dira etxeratze prozesu horiek, baina gatazka askotarikoez ari garenez, beste etxeratze prozesu batez hitz egiteari garrantzitsua deritzogu, espetxetik ateratzeari buruz alegia.

Aipatzen genuen moduan, preso eta senideek gehiegizko itxaropenak jartzen dituzte espetxealdiaren amaieran. Momentu horietan, min ematen dien elementua beren bizitzetatik kentzeak berehalako lasaitua ekarriko duela uste dute. Argi dago, hasiera batean horrela izango dela, muga eta debeku asko eragiten zituen arazo hori desagertzen delako. Baina pixkanaka espetxealdiak, torturak, militantzia politiko edo armatuak... eragindako aldaketa pertsonalak, kolektiboak, espazialak, denborazkoak... agertzen joango dira, eta horrek bikote, familia eta lagun harremanean kode berriak barneratzea ekarriko du, baita kasu askotan lanketa psikologikoa ere. Momentu horiek oso gogorrak izaten dira, hain zuzen, ondo egon behar dela uste duten momentuan arazoak eta gatazkak ateratzen hasten direlako. Gizarteak eta inguruak horrelako mezuak zabalduko dizkie etengabe. Frustrazioz eta minez bizitzen dituzte egoera horiek preso ohiek zein beraien ingurune hurbilekoek, eta inguruan

“dena amaitu da” ideia zabaltzen jarraitzeak ez die inolako mesederik egiten. Kasu horietan gainera, espetxealdian zuten babes politiko eta soziala galtzen dute askotan (hain zuzen, egoera hobetu dela pentsatzen baitu inguruneak) eta bakarrik sentitzen dira egoera horri aurre egiteko. Horrek, bikote harremanean eragin itzela izango du, eta lehenago aipatzen genuen moduan, harreman asko momentu horretan apurtzeko aukera handiak izango dira.

Espetxetik ateratako lehen momentuetan euforia sentsazioa konpartitzen dute elkarrizketatu askok. Hala ere, pixkanaka egoera hori baretzen eta normaltzen doan neurrian zenbait oztopo eta gatazkarekin egin izan dute topo.

> *Gure harremanak gutxi gorabehera lau etapa izan ditu: hasieran elkar ezagutza, bigarrena sarekadaren momentuan –buf, harreman hori ez duzula ikusten eta ez dakizula noiz arte ez nola–, hirugarrena atxiloketa eta espetxeratzearena, eta laugarrena, nik uste dut laugarrena izan zela, ez gogorrena e! Atxiloketa-eta gogorra izan ziren baina bazenekien zeozer gertatuko zela baina gero iristen denean beti kolpea da, ez? Baina laugarrena espetxetik atera eta*

ez nuen uste horren zaila izango zenik. Ez nuen imajinatzen, ez dakit. Uste nuen izango zela "pum", aske eta lehengo harreman hori, ez? Eta ez. (LOREA)

Zailtasun horietaz inork ez du hitz egiten, eta horrek are zailagoa bihurtzen du egoera gatazkatsua bizitzen ari denarentzat horren inguruan hitz egin edo egoera horri buelta emateko laguntza eskatzea. Hala ere, harremanaren birmoldaketa hori aberats bezala bizi izan duenik badago. Kasu horretan maskulinitate hegemonikoak preso ohi gizonezkoengan duen eragina aipatzea ezinbestekoa da. Sabino Aranak sortutako gizon gudariaren iruditegiak eragina da oraindik gugan, eta pertsona horren irudikatze indartsuak, kementsuak... gaizki, deprimituta edo beldurtuta dauden mutilak sentimendu horiek ezkutatu eta lotsaz bizitzera eraman ditzake. Emakumezkoaren zaintzaile figurak ere eragina izango du, eta nesken kasuan espetxetik atera berri diren pertsonen babesa izaten jarraitzeko papera egotziko zaie. Kasu horietan, hala ere, harreman ugari apurtu egin direla aipatu behar dugu. "Errazagoa" bihurtzen da harremana momentu horretan uztea. Etxeratze prozesu horiek espazio erabat intimoan geratzen dira oraindik ere. Espetxealdiak

harremana modu publikoan bizitzeko ondorioa bazuen ere, hori amaitutakoan harremana eremu pribatura itzuliko da. Argi dago, harremana espazio publikoan zegoen bitartean ere egon zitezkeen gatazkak norberak kudeatu beharrekoak zirela, baina nolabaiteko baliabideak aurki zitezkeen. Espetxealdiaren amaierarekin, ordea, baliabide guztiak desagertuko dira eta “dena ondo egon behar dela” pentsatzeak eta laguntzen galerak zaildu egingo du harremanaren garapena. Espetxeak eragindako aldaketak eta zailtasunak gainditzea mahai gainean egon behar lukeen gakoa dela sinetsita gaude, ondoren norberak horrekin nahi eta ahal duena egin dezan.

Etxeratze prozesuak eta dena bukatu delako ameskeria ez dira sor daitezkeen arrisku bakarrak. Bake eta normalizazio prozesuaren kontakizuna ere egin beharko da, eta norbait arduratu beharko da hori egiteaz, batetik. Beste batzuek, bestetik, guztia nola gauzatzen ari den ikertu eta aztertu beharko dute. Eta, azkenik, eztabaidarako foroak eta guneak sortu beharko dituzte beste batzuek. Nortzuk izango dira edo dira horiek? Gatazkaren monopolioa gizonen esku bakarrik egoteak ekartzen dituen ondorio berberak dauzka bakearen monopolioa horien esku egoteak.

Izan ere, emakumeen ahotsak kontuan ez hartzeak eta feministen analisiak neutralizatzeak bake prozesuaren irakurketa misogino eta matxista egitera eraman gaitzake.

Feministak eta emakumeak gonbidatuta ez dauden eztabaida-foroak sortzea, edo berariaz generoaz mintzatuko diren mahaietara zokoratzea ez da kasualitatea, ezta kalkulu akats baten ondorioa ere; huts egite larri-larria da formari dagokionez, eta, batez ere, gatazka garaian emakumeen bizkar izandako erantzukizuna eta botere kokalekua onartzeari uko egiten dion erresistentzia. Gatazka maskulinitatea garatzeko eta patriarkatua indartzeko espazio pribilegiatu bihurtu zuen horrek nekez sortuko ditu bake jokalekuan botere errepikapen berbera ez egoteko baldintza egokiak. Hortik abiatuta, ezinbestekoa da feministak eta feministen boterea bakearen ezarpenean egotea.

Baina guztia ez da arriskua, ordea. Gatazka armatuan, emakumeek ahalduntze kolektibo zein indibidualak bizi izan dituztenez, indarrez ekin diezaiekete sortzen diren erresistentzia patriarkalei. Hau da, ez dituzte hain erraz alboratuko gatazkan konkistatutako boterea eta espazioa, eta beraien/geure presentzia exijituko dute/dugu espazio guztietan. Egun, nonahi

aurki ditzakegu horren adibideak: Emagune bezalako guneetan, sortzen ari den ezagutza feministan, mugimendu feministak eragin politikorako duen gaitasunean, eta abarrean. Gainera, paradigma aldaketa baten aurrean gauden heinean, eztabaida sozial eta politikoa egin beharko da gizarte berri hori nola eraiki nahi dugun erabakitze aldera, eta, horren bidez, generoen arteko harremanak birdefinitzeko aukerak sortuko dira; emakume eta gizon izatea zer den zehazteko aukerak. Bakea eraikitzeko premia suertatzen denean, indarkeria zer den definitzeko beharra ere sortzen da, eta, horrela, indarkeria bera birdefinitzeko aukerak irekitzen dira. Dena eraikitzear, negoziatzear eta sortzear dago, eta, horretan gu gara, feministok, jadanik eraikitzen, sortzen eta alternatibak proposatzen ari garenak. Liburu hau adibide bat da.

–epilogoa–

“Euskal gatazka” eta “euskal bakea” feminismotik

Irantzu Mendia Azkue

Feminismoak gatazka eta indarkeria kontzeptuen zabaltzea eta sakontzea proposatu izan du; alegia, horien birdefinizio bat, emakumeen egunerokotasunaren bizipenetan oinarrituta legokeena. Behetik gorako ikuspegia da hau, ukatzen duena politika eremu instituzionaletan eta boterearen goi mailetan soilik egiten denik; feminismoak horri “egunerokotasunaren politikaren” garrantzia kontrajartzen dio, errealitatea ulertzeko zein eraldatzeko.

Aurreko ideiatik abiatuta, esango nuke euskal emakumeon esperientzia “euskal gatazkan” –eta horren atzean bigarren plano batean geratu izan diren beste hainbat euskal gatazkatan (sozialak, ekonomikoak, kulturalak...)–, ez dagoela kolektiboki elaboratuta ezta kontatuta ere. Zentzu horretan, esku artean daukagun erronka “euskal gatazkaren” genero politikaren erabateko azterketa burutzea da, eta horrekin

batera euskal patriarkatuaren salaketa jendarteratzea.

Bide horretan kokatzen den ekarpen beharrezkotzat jotzen dut liburu hau, hurbiltzen gaituena Euskal Herriko historia hurbilean hainbat emakumek izan duten partaidetza politiko eta sozialera, ETAko kide izan diren, haien ezker abertzaleko militantzia politikoa dela-eta kartzelan egon diren eta baita bikotekidea preso izan duten edo duten emakumeena, hain zuzen. Euskal jendartea osatzen dugun emakumeon kontakizun askotarikoek gure memoria kolektiboaren parte izan behar dute, baldin eta bakerantz egin nahi dugun trantsizio honek zilegitasun eta sinesgarritasun minimoak eduki nahi baditu. Beste modu batera esanda, euskal emakumeei ere egia zor zaie.

Motibazio politikoa egotz dakiokeen indarkeriaren intentsitatea azken urteotan nabarmenki gutxitu bada ere –nahiz eta guztiz desagertu ez–, emakumeen kontrako indarkerietan ez dugu “su etenik” izan, zuzeneko zein egiturazko terminoetan. Izan ere, matxismoak ez du soilik emakumeon euskal gatazkaren bizipena iraganean zeharkatu eta baldintzatu, gure parte hartze eremuak eta moduak edozein izan direla ere; gaur egun, bakearen lehen mailako mehatxua izaten jarrai-

tzen du. Eta motibazio politikoa ere badu. Matxismoak elkarbizitza kolektiboan agertzen zaizkigun arazoak kudeatzeko boterearen erabilera zehatz bat adierazten duelako; guztien ongira zuzentzen ez den erabilera bat.

"Euskal bakerako" bidean, beraz, ezinbestekoa dugu indarkeria ezberdinen arteko lotura eta jarraitutasunak bistaratzea, bai gatazka politiko-armatuarekin batera eman direnak eta bai modu orokorrean genero desberdintasunekin eta matxismoarekin lotzen ditugunak. Ikuspuntu feminista batetik, Euskal Herrian bakearen eta elkarbizitzaren bermatzeak harreman sozialen maila guztietan (interpertsonala, komunitatearena, lanarena, politiko-instituzionalarena...) sakontze demokratikoa eskatzen du. Alegia, bakearen eta genero justiziaren arteko harremana finkatzea. Sakontze demokratiko horretan, sinetsita nago euskal emakumeen partetik edozein bake ekimenek eragina eta inpaktua izango dituela, baldin eta ekimenak berak mugimendu feminista subjektu politiko gisa indartzeko balio badu; horrek euskal gatazkaren gaineko erabakietan –eta modu zabalean, indarkeriarik gabeko jendartea eraikitzeko– zeresan artikulatua izan dezan.

Hala ere, azken hamarkadetan borroka armatuaren aurrean egon diren posizionamenduek askotariko tentsioak eragin dituzte euskal mugimendu sozialetan, eta logikoa denez baita mugimendu feministan ere (borroka armatuaren estrategiari berari buruz, mugimenduaren lehentasunei buruz...). Ezin da ukatu euskal mugimendu feministak ahalmena erakutsi duela emakumeen eskubideen aldeko ekintza bateratu asko egiteko, eta baita ekintza horiek arrakastatsu izan daitezen ere. Aldi berean, sakondu beharrekoa litzateke zer puntutaraino hori posible izan den banaketa ardatz ideologikoen halako "saiheste estrategiko" baten hautua egin izan delako, eta ea mugimendu feminista ez ote dagoen oraindik saiheste paktu sinboliko horren inertzian.

Erronka da, beraz, historikoki euskal gatazkaren aurrean posizionamendu kontrajarriak edo ezberdinak mantendu izan dituzten talde eta kolektibo feministek elkarrizketa eta hausnarketa kolektiborako bideak aurki ditzaten, subjektu politiko gisa indartzeko. Egungo abaguneak horretarako aukerak eskaintzen dituela uste dut, feministok pentsamendu androzentrikoa, politika partidarioaren zentralitatea eta genero estereo-

tipo zurrunak apurka-apurka ahultzea lortzen dugun heinean.

Mugimendu feministak “euskal bakearen” gainean zeresan artikulatu bat izan dezan, aldarrikapen komunak guztion artean eraikitzekoak eta adostekoak dira, gure euskarri ideologiko ezberdinen gainetik. Nire aburuz eta nire posizionamendutik, ondoko bi hauek dira aldarrikapen garrantzitsuak, besteak beste.

Lehenik, bake eta elkarbizitza demokratikoaren oinarriak jartzeak emakumeen kontrako indarkeria eta diskriminazioa arazo politiko lehentasunezkotzat kokatzearen exijentzia ekar dezala. Normalizazioa desiragarria den momentu honetan, feministok normalizazioarekin apurtu nahi dugu: indarkeria matxistaren normalizazioarekin.

Bigarrenik, bake eta elkarbizitza demokratikoaren oinarriak jartzeak euskal herritarron erabakitze eskubidearen defentsa eta emakumeon erabakitze eskubidearen defentsa bereizezin bihur ditzala. Horrekin lotuta, Erdialdeko eta Hego Amerikako feminismo indigenatik ikasi izan dugun bezala, inkoherentzia hutsa da lurraren edo lurraldearen defentsa egitea emakumeon gorputzaren defentsa egin gabe. Ondorioz, “Gure gorputza gurea da!” lelo historikoa gaurkotasun

osoz txertatzen da bakegintza prozesuan: indarkeria matxisten kontra, abortuaren penalizazioaren kontra... baina baita emakumeenganako diskriminazio ekonomiko-laboralaren aurrean ere, prekarietatea eta pobreziaren intzidentzia handiagoaren aurrean ere, lan produktibo eta erreproduktiboaren zama bikoitzaren aurrean ere, heteroarauaren ereduan heziak eta kontrolatuak izaten jarraitzearen aurrean ere, eta abar.

Aldarrikapen bi horiek gorpuzteko, feminismoaren korronte eta belaunaldi ezberdinen batuketa ezinbestekoa da. Alegia, pentsamendu lerroen arteko elkarrizketa: batetik, azken urteetan feminismoan indarrez garatu diren eta subertsio feminista berriek ahalbidetu dituzten sexu/genero dikotomiaz harago doazen pentsamendu lerroak, eta bestetik, materialismoan errotuagoak izanik patriarkatuaren kontrako borroka kapitalismoaren kontrako borrokarekin uztartzen duten pentsamendu lerroak. Oinarri horiekin, bakearen eraikuntza prozesuan mugimendu feministaren proposamenek sakontasuna eta indarra irabazten jarraituko dute.

Bibliografia

Aguilera, Marga (2009): “Población penalizada”, in Manzanos, César, “*Gizarte bazterkeriaren eta pobreziaren feminizazioaren aurkako borroka: herri-erakundeen eta elkarte sarearen papera: biltzarra”*. Ikusbide, orri. 125-137.

Alcedo, Miren (1996): *Militar en ETA. Historias de Vida y Muerte.* Haranburu editor, Donostia.

_____ (1997a): “Las mujeres de ETA: construcción del género y militancia política”, in *Ankulegi Gizarte Antropologia aldizkaria*. 1. zenb., 31-35 or.

_____ (1997b): “Militar en ETA: recreación de la etinicidad colectiva/identidad individual”, in *Ankulegi Gizarte Antropologia Aldizkaria.* 1. zenb., 43-52 or.

Almeda, Elisabet (2002): *Corregir y castigar. El ayer y hoy de las cárceles de mujeres.* Bellaterra, Bartzelona.

_____ (2003): *Mujeres encarceladas.* Ariel, Bartzelona.

Arbelaitz, Miren; Bengoetxea, Edurne; Méijome, Alma; Ruiz, María eta Vara, Laura (2011): *Mujeres expresas, vulnerabilidad y autonomía.* Publikatu gabeko ikerketa, Emakunde, Gasteiz.

Aretxaga, Begoña (1988): *Los funerales en el nacionalismo radical vasco.* Donostia, Baroja.

_____ (1996): "¿Tiene sexo la nación? Nación y género en la retórica sobre Irlanda", in *Arenal. Revista de historia de las mujeres.* vol. 3, 2. zenb., 199-216 or.

_____ (1997): "Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia de Irlanda del Norte", in *Bitarte* aldizkaria. 13. zenbk., 45-67 or., Donostia.

Arostegi, Elisabete; Fernández, Araceli; García del Moral, Nieves; Urbano, Aurora (2008): *Prisión y género: efectos del encarcelamiento en mujeres y hombres presos y en su entorno familiar.* Zubiko elkartea, Bilbao.

Assemblée Nationale (2009): *Rapport d'information Nº 1900.* Assemblée Nationale, Paris, in <http://www.assemblee-nationale.fr/13/rap-info/i1900.asp> [Azken kontsulta: 2016-06-06].

Auzolana (2010): *Burdinen arteko herria. Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren historia.* Euskal Herria.

Azkarraga, Oier (2016): *Gorriones entre águilas. Masculinidad y prisión en el caso del Colectivo de Prisioneros Políticos Vascos.* Masterreko ikerketa proiektua (UAB, Bartzelona).

Barne Ministerioa (2008): *Programa de acciones para la igualdad entre mujeres y hombres en el ámbito penitenciario.* Ministerio del Interior, Madrid, in <http://www.institucionpenitenciaria.es/> [Azken kontsulta: 2016-06-06].

Brownmiller, Susan (1981): *Contra nuestra voluntad. Hombres, mujeres y violación*. Planeta, Bartzelona.

Bos, Pascale R. (1945): *Feminists Interpreting the Politics of Wartime Rape.* Berlin.

Butler, Judith (2010): *Marcos de guerra. Las vidas lloradas.* Seix Barral, Bartzelona.

Casanova, Iker (2007): *ETA 1958-2008, medio siglo de historia.* Txalaparta, Tafalla.

Cruells, Marta eta Igareda, Noelia (2005): *Mujeres, Integración y Prisión: Un análisis de los procesos*

de integración sociolaboral de las mujeres en Europa. SURT, Aurea, Bartzelona.

De Miguel, Estíbaliz (2008): *Actrices sociales en el escenario carcelario en V Congreso Internacional de la Asociación de Estudios de Mujeres* (AUDEM). ArCibel ed., Sevilla.

_____ (2009): "Las relaciones de pareja de las mujeres encarceladas", in HEIM. Daniela.

_____ (2010): "Mujeres excluidas, 'malas' mujeres". *VII Congreso Vasco de Sociología y Ciencia Política.* Asociación Vasca de Sociología Política, Bilbao.

_____ (2015): *Relaciones amorosas de pareja en las trayectorias vitales de las mujeres encarceladas.* Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Del Valle, Teresa (1985): *Mujer vasca, imagen y realidad.* Anthropos, Bartzelona.

Despentes, Virginie (2006): *King Kong theory*. Grasset & Fasquelle, Paris.

Epelde, Edurne; Aranguren, Miren eta Retolaza, Iratxe (2015) *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat.* Emagin, Andoain.

Etxebarrieta, Oihana (2013): *Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak*. Masterreko ikerketa proiektua (EHU, Leioa).

Etxerat (2010): *Dispertsio politika aztertzen duen dossierra.* Hemen eskuragarri: <www.etxerat.info> [Azken kontsulta: 2016-06-06].

Farr, Vanesssa (2005): "La desmilitarización con perspectiva de género como herramienta para la construcción de la paz", in *Cuadernos INER.* n.º 2, Instituto de Estudios Regionales, Universidad de Antioquía, Colombia.

Foucault, Michel (1979) *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión.* Siglo XXI, Madrid.

Goffman, Erving (1998): *Estigma, la identidad deteriorada*. Amorrortu editoriala, Argentina.

Goikoetxea, Jule (2015): "Bakea ez da existitzen, feminismoa bai", in *Euskal Herriko gatazkaren irakurketa, etorkizuneko bake feministaren bidean.* Udako ikastaroa, Iruñea, Udako Euskal Unibertsitatea.

Herrira Mugimendua (2012): "Emakumea eta Kartzela, emakumeon bizipenetatik hausnarketa kolektibora", in *Emakumea eta Kartzela hitzaldia.*

Bilbo, 2012ko abenduaren 18an. Publikatu gabeko transkripzioa.

Herrero, Inés (2015): *Deseo(s) y resistencia(s) en las cárceles: Algunas experiencias de mujeres expresas.* Masterreko ikerketa proiektua (EHU, Leioa).

Jaiki Hadi (2009): *2009an senideei egindako diagnostikoaren ondorioak.* Jaiki Hadi elkartea, Euskal Herria (publikatu gabeko txostena).

Juliano, Dolores (2011): *Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino.* Gakoa Liburuak, Donostia.

Lagarde, Marcela (2011): *Los cautiverios de las mujeres.* horas y HORAS, Madrid.

Martinez, Josu; Larreategi, Txaber; Gabilondo, Mireia; Goikoetxea, Enara eta Olasagasti, Eneko (2012): *Barrura begiratzeko leihoak* [dokumentala]. Zinez, Bilbo.

Mendia, Irantzu (2008*): Estrategias de organizaciones de mujeres para una paz con justicia de género*. Hegoa institutua, EHU.

_____ (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina.* Tecnos, Bilbao.

Miralles, Nora (2016-03-14): Nora Mirallesekin izandako elkarrizketa pertsonala.

Nash, Mary (ed.) (2013): *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista.* Comares Historia, Granada.

Observatori del Sistema Penal i els Drets Humans (2005): *La cárcel en el entorno familiar.* Ajuntament de Barcelona, Bartzelona.

Pankhurst, Donna (2000): "Women, gender and peacebuilding", in *Working paper.* n.º5. Centro para la resolución de conflictos, Departamento de Estudios de Paz, Bradford Unibertsitatea, Ingalaterra.

Pérez Orozco, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida.* Traficantes de Sueños, Madrid.

Rodríguez, Zuriñe (2012): *Mujeres armadas: una mirada a las mujeres de ETA a través del discurso mediático.* Masterreko amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

_____ (2015): "Gatazka, normalizazioa eta feminismoa". *Jakin,* 209, pp. 83-9.

Salhaketa Nafarroa (2011): *Mujeres en prisión. Voces desde dentro del Centro Penitenciario de Pamplona.* Salhaketa elkartea, Iruñea.

Vara Jiménez, Laura (2011): *Amatasuna eta espetxeak. Hainbat euskal emakumeren esperientziak.* UPV-EHU, Donostia (publikatu gabeko tesina).

Wittig, Monique (1992): *Pensamiento heterosexual y otros ensayos.* Egales, Madrid.

Woolf, Virginia (1967): *A room of the one´s own.* The Hogarth Press Ltd, London.

Zarkov, Dubravka (2008): *Gender, violent conflict and development.* Nueva Delhi, Zubaan.

–eranskina–

ELKARRIZKETATUEN ZERRENDA

1960-70 – ETAko kideak:

Poti

Itsaso

Aitziber

Juli

1960-70 – ETAko kidea / Mugimendu feministako kidea:

Isa

1970-80 – ETAko kide baten senidea:

Uxue

1970-80 – ETAko kide baten senidea / Mugimendu feministako kidea:

Laida

1970-80 – ETAko kidea:

Jone

1970 – ETAko kidea:

Paula

2000-10 – Segi-ko kide izateagatik espetxeratuak:

Onintze

Ihintza

Alaitz

Irantzu

2000-10 – Segi-ko kide izatea leporatuta bikotekidea preso izandako neska feministak:

Idurre

Argiñe

Lorea

2000-10 – Segi-ko kide izateagatik espetxeratuak:

Gotzon

Koldo

2000-10 – Bikotekidea preso:

Jurdan